

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-10-07
ASTELEHENA
424. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Ikastolara datozen haur guztiak onartzen ditugu, nahiz eta toki arazoak ditugun"

Hur Gorostiaga
Iparraldeko Ikastolen zuzendaria | 7

'Azukre koxkorak' diskoa kaleratu du Ruper Ordorika oñatiarrak | 20



Zabalotegi aretoa bete egin zen 'Hiru' antzezlanean | 30



Oñatiko historia Azpiazuren eta Elortzaren eskutik | 10



San Migel jaiei tira eginez

Asteburuan jende asko ibili da Oñatin, San Migelak sasoiko daudela erakutsita. Gaur Errosaixo Bixamona egunak hartuko du tirakada | 11

Zapatu arratsaldean herri kirolek hartu zuten lekukoa Oñatiko plazan. Argazkian, gaztetxoak sokatiran.

IMANOL SORIANO

Gure industrialdeetako enpresek bat egiteko duten beharraz hausnartzen

Asko dira industrialdeek dituzten arazoak eta gabeziak, eta horiek garaiz ez konpontzeak herrialde osoaren garapen ekonomikoari kalte egin diezaioke. Hori izan da, beste batzuen artean, LKS Ingeniaritzak antolatutako mahai-inguruetan ateratako ondorio kezkarrietako bat. | 2-3

Aitor Mendizabal,
Lau t'erdiko Txapelketatik pauso batera | 26



Maritxu Kajoik
Aretxabaletara bidali ditu Joko Olinpiarrik | 12

SINADURAK

-  **Euskara krisian** | 8
AINTZANE IRIZAR
-  **8 | Agendak kontrolatzen**
ARANTZAZU EZKIBEL
-  **Ereindako hazia loratuz** | 15
ANE GOROSABEL
-  **17 | Non zauria han mihia**
ANDRES OSA
-  **Aurpegira barre!** | 18
JOSU ZUBIA
-  **19 | Inbidia apur bat**
BEÑAT ZAMALLOA
-  **Hirueletasunaz** | 40
MARKOS BALENTZIAGA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

☎ 943 71 48 45



www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.




Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Industrialdeetako enpresek elkartu beharra daukate, lehenbailehen

- ▶ Industrialdeen krisiaz ohartarazi du LKSk
- ▶ Mahai-inguruan, argi geratu zen eragileen kezka

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Elkartzeko kultura eta, batzuetan, horretarako motibazioa falta dira; antolakuntza eskasa dago; administrazio publikoen eta enpresa askoren artean, arazoak eta ondorioak ikusteko nahi edo gaitasun txikia... Askok dira industrialdeek dituzten arazoak eta gabeziak, eta horiek garaiz ez konpontzeak herrialde osoaren garapen ekonomiko konprometitu dezake. Horiek izan ziren eguaztenean LKS Ingeniaritzak antolatutako *Los retos para los polígonos industriales en la crisis económica* mahai-inguruaren ondorio batzuk.

Industrialdeak sortzen esperientzia handia du LKSk, eta

azkenaldian oso kezkatuta dago haietan antzeman duen egoera dela-eta. Ekonomia, industria eta merkataritzako erakunde publiko eta pribatuak hainbat ordezkari joan ziren mahai-ingurura, eta bistan geratu zen haiek ere kezka berbera dutela, baina ez dagoela argi ze pauso zehatz eman behar den hurrengo. Ordea, garbi geratu zen soluzioak enpresak elkartetik, ardurak onartzetik, kontzientzia hartzetik eta administrazio publikoari kontzientzia harraraztetik etorriko direla.

Hondatze-espinal azkarra

LKSk Baiona eta Iruñea inguruko industrialdeak konparatu eta

aztertu ditu, eta Jose Luis Azkaratek atera dituzten ondorioak jakinarazi zituen. Azpimarratu zuenez, ezkortasunerako arrazoi asko egon arren, "pentsaera baikorra eta proaktiboa" bultzatu nahi da.

Industrialdeen gaur egungo arazoetan "zerikusi handia du industrialde bakoitzaren jatorriak", eta arazo gisa aipatu zituen hauek, besteak beste: ez dute planifikazio egokirik eta "urbanismoaren kultura industrial falta da" Euskadin; administrazioak ematen dituen zerbitzuek "gabeziak dituzte", industrialdeen sarrerak ez dira zaintzen eta askotan ez daude behar bezala



LKSk eguaztenean antolatutako mahai-inguruaren une bat; entzuleen artean, enpresa, er

seinaleztatuta; "enpresa askok duten sentsazioa da udaletik fiskalitate bikoitza jasotzen dutela", adibidez hondakinen kudeaketan; eta mantenu eta zaintze-kultura txikia dago norberaren enpresatik kanpo. Adibide batzuk eman zituen: Gasteizen, N-Ietik bistara dagoen industrialde bateko espaloari ez dio inork inoiz erratza pasatu; Jundizko hiltegi zaharretako industrialdea itxita dago eta "industrialdeek oso bizitza-ziklo azkarra dute, eta alde zaharrak oso azkar husten dira; politika industrialak gero eta industrialde gehiago egitekoak dira, eta inor ez da arduratzen hustutako lekuak betetzeaz. Eta horrelako

ingurune baten, hondatze-espinal azeleratu baten sartzera oso erraza da. Horrek herri osoari eragiten dio", iragarri zuen Azkaratek. Eta Debagoienean bertan, galtzen uzte horren adibideak eman zituen: Arrasaten, Polmetasako industrialdean "jarduera aldaketa bat" egon dela eta horrek "eragina" izan duela esan zuen.

Elkarlan publiko-pribatua

Kalte horien aurka lehenengo pauso bat elkartek sortzea izan daiteke, Azkarateren arabera. Baina "elkartze-maila txikia da; Espainian, afiliazio-maila ez da % 30era iristen", eta gauza bera gertatzen da euskal industrialdeetan. "Pirinioe-

ESANAK

"Elkarlana ezinbestekoa da, baina enpresak etekin argia atera behar du: irudia, emaitzak..."

JAVIER SOTIL
MONDRAGONEKO BERRIKUNTZA ARD.

"Etxebizitzetako bizilagunen kasuan bezala jokatu daiteke poligonoetako enprekin"

LUIS LASKURAIN
DEBEGESAKO ARDURADUNA

"Industrialdeen gainbehera oso zaila da gelditzen, eta herrialde osoari eragiten dio"

JOSE LUIS AZKARATE
LKS-KO KIDEA

"Gure soluzioa industrialde publiko baten gure gune pribatua egitea izan zen"

JOSEMARI ASTIGARRAGA
DANOBATGROUP-EKO KIDEA

"Premia edo arazo komunak ez badaude, oso-oso zaila da enpresek elkartu nahi izatea"

JUAN INFANTE
FAGOR EDERLANEKO ORDEZKARIA



EROSKIren kosmetika berria, salgai

belle

Aurreztu geroz eta gehiago Eroskiren markekin

EROSKI
zurekin

2. ALEA
-50%
belle produktu guztietan konbinatu nahi duzun bezala!

EZ DU
parabenorik

Eskaintza baliagarria: 2013ko urriaren 16ra arte Arrasateko Eroski Hipermerkatuan. Musakola z/g. 20500. ARRASATE.



Erakunde eta bazkondeetako ordezkariak izan ziren. | GOIENA

Ekonomiaren traktoreak dira, baina nor bere aldetik doaz

4.800 PARKE PASATXO

Enpresa-parkeak Espainiako BPGren % 50 baino gehiago dira, eta Gizarte Segurantzaren afiliazioen % 16. CEPEren (Espainiako Enpresa-parkeen Koordinakundea) arabera, Espainiako 4.800 pasatxo parkeetatik bakarrik % 20k dute erakunde kudeatzailearen bat.

GESTIO FALTARI IRTENBIDE BILA

LKS Ingeniaritza aspaldian dabil parke eta industrialdeen egoeraz kezkatuta. Iazko irailean, CEPErekin elkarlan hitzarmena sinatu zuen, Hego Euskal Herrian eta Espainian dauden industrialdeen gestio faltari irtenbideak topatzeko.

KULTURA DESBERDINAK

LKSko Jose Luis Azkarateren esanetan, "ez dago 50 urte baino gehiagoko industrialderik, eta ez dakigu haiek ondo edukitzen; ez daukagu kultura hori". Iparraldean eta Frantzia, oso bestelakoa da kontua: "Industrialde txikiagoak dituzte, baina hemen baino askoz hobeto zaintzen dituzte".

AFILIAZIO MAILA TXIKIA

Iparraldean eta Frantzia "enpresen afiliazioa % 100 da; denek ezagutzen dute elkar, elkarrekin hitz egiten dute...", esaten zuen Azkaratek. Hego Euskal Herrian eta Espainian, enpresen elkarten afiliazio maila % 30 baino txikiagoa da.

lehenengo aldiz, baina bizilagunei aplikatuta. Azken urteetan, kanpotik behin eta berriz eraginda, lortu da elementu komunean lan egitea". Bere iritziz, "ezinbestekoa da industrialde bateko enpresa guztiek komunitate kontzientzia izatea", eta baita "nahi edo arazo komun bat izatea", elkartzera motibatuta sentitu daitezela. "Gakoa da enpresa guztiek industrialde horren arazoa bere egitea, eta gero has gaitzke ardurak banatzen".

Lege aldetik hutsunea dago

Administrazio publikoaren jarraera mahai gainean ipini zuten ere. Izan ere, industrialdeetako pabilioiak eta lantegiak pribatuak dira, eta espazio publikoak, jabe-garatu publikoak. Horrek eragiten

du lantegi bakoitzetik kanpo dagoena errazago utzita geratzea, inor horretaz arduratu gabe.

Azkarateren iritziz, "enpresek zergak ordaintzen badituzte, udalek mantendu beharko lukete, baina industrialdeen arazoak administrazioek ez dituzte ikusi ere egin nahi. Eta hori erreibindikatu behar dute enpresek". Gaineratu zuenez, "enpresa-ekimenek bultzatu behar dute administrazioa, horrek ez dielako bere kabuz gainbehera-espiraleari aurre egingo".

Garapen Agentziako zuzendari Koldo Azkoitiaren iritziz, "industrialdeak birgaitzeko iniziatibek aktibitate ekonomikoa bultzatu dezake. Ekintza mistoak egin daitezke, administrazio publikoak gazteen enpleguaren alde eginda eta bir-

gaitzeari gazte taldeekin oratuz. Baina beti elkarlan publiko-pribatu baten bidez egin beharko da".

Parte-hartzaile batzuk legez enpresak edo baita administrazioak ere elkartzera behartzearen alde agertu ziren. Edozein modutan, "lege aldetik hutsunea dagoela ondo identifikatutako arazo bat da", Jose Luis Azkarateren esanetan. Herrialde anglosaxoietan dagoen tradizioa azaldu zuen: "Herrialde horietan, industria komunitateetan arazo jakin bat dagoenean eta plangintza bat egiten denean, administrazioari plangintza hori betearazteko legeak daude eta itun publiko-pribatuak egiten dira; arazoa konpontzen denean, elkarrekin horiek desegin egiten dira. Hemen ez dago horren kulturarik".

tatik bestaldeen, ordea, % 100 dauke elkarre baten".

Arrakastaren gakoa enpresa pribatuaren eta erakunde publikoaren arteko elkarlanean dagoela dirudi; Azkarateren esanetan, "Frantzia duten elkarlan publiko-pribatuak kopiatzeko oso interesgarria da". Ondoren zainduta dauden guneek

"antolakuntza ona dute atzetik", esan zuen LKSko adituak.

Enpresak elkartzera nola animatu eztabaidatu zen mahai-inguruan. Debegeasako Luis Laskurainek etxebizitzetako bizilagun elkarteekin duen esperientzia erabili zuen konparaketa egiteko: "Nik 1987 inguru entzun nituen kezka horiek

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

 1200 b/min 6 Kg A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA FGB-162 290 €	 1000 b/min 7 Kg A+++ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA BASIC L-1017 299 €	 1000 b/min 8 Kg A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA 1F-1810 345 €	 1200 b/min 8 Kg A+++ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA F-8212 399 €	 1200 b/min 8 Kg A+++ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA WM-12Q488E 435 €
 170 x 60 x 60 A+ Saikapen energetikoa HOZKAILUA 3KF-6400B 399 €	 185 x 60 x 60 A+ Saikapen energetikoa HOZKAILUA FTC-682 499 €	 185 x 60 x 60 A+ Saikapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13 399 €	 8 Kg A+ Saikapen energetikoa KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF-820CE 445 €	 395 €
 440 €				

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabera energia aurreztea.

A+ >>> 70%
 A >>> 45%
 B >> 25%

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
 Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Bilbon zapatuan egin zen manifestazioa. | IÑAKI ETXEBESTE

Jende ugari joan zen guretik Bilbora zapatuan egin zuten manifestaziora

Tantaz tanta euskal preso en eskubideen alde lelopean, Herriraren aurka eginiko atxiloketak salatu zituzten han batutako milaka herritarrek

IRATI GOITIA | ARRASATE

Milaka lagun batu ziren Bilbon zapatuan, Herriraren aurkako polizia operazioa salatzen. *Tantaz tanta euskal preso en eskubideen alde* lelopean egin zuten manifestazioa. Gure bailaratik ere jende asko joan zen. Autobusak antolatu zituzten ia herri guztietatik. Adibidez, Bergaratik bi autobus irten ziren (110 lagun). Arrasatetik 120 lagun joan ziren autobusez, baina autoetan ere jende asko joan zela esan digute. "Arrasaten, bixamona eguna izanda, espero genuena baino jende gehiago animatu da", adierazi digu Eneko Barberenak. Antzuolatik, bestalde, bi pisuko autobusean joan ziren 95 pertsona; autoan ere abiatu ziren beste batzuk. Oñatin ez zen autobusik izan, baina Bilbon osatu zuten itsasoaren zati bat irudikatu nahi izan zuten eta tantez betetako argazkia ateratu zuten txosnetan.

Jendetza batu zen Bilbon

"Gu Casillatik irten gabe geundenean, Twitter bidez jakin genuen manifestazioaren hasiera Abandoko geltokian zihola. Beraz, Autonomia kalea alde batetik beste beteta ziholan", adierazi digu Bergarako Herrirako kide den Iñigo Arregik. Eneko Barberenak metroa hartu zuen Casillara iristeko eta honakoa kontatu digu: "Indautxuko metroko geltokian bi irteera daude eta Casillatik gertuen dagoena blokeatuta zegoen. Metroko langileek beste irteera erabiltzeko eskatu ziguten". Antzuolatik Bilbora joan zen Jon Lizarazuk esan digu beraiek udaletxera iritsi zirenerako ekitaldia amaituta zegoela eta ezin izan zutelaz ezer ikusi.

Eragile ezberdinak

50 alderdi, sindikatu eta gizarte eragile baino gehiagok babestu zuten zapatuko manifestazioa.

Hain zuzen, Arregik esan digu esparru ezberdinetako jendea ikusten zela manifestazioan eta gaineratu: "hori seinale ona dela esango nuke, herritarren gehiengo handi bat azaldu da operazio polizial honen aurka". Barberena ere bat dator eta zehaztu digu agerraldi anitza izan zela. Horretaz gain, kontraesankorra izan arren, jendea aldi berean pozik eta haserre zegoela gehitu digu. Amorruez gertatukoaz, baina indartsu berriro gerta ez dadin lanean jarraitzeko. Hain zuzen, protesta amaierako ekitaldian, haserrealdiak emandako indarra emankorra izango dela adierazi zuten antolakuntzatik.

Urrats berriak

Etorkizunerako asmoak ere iragarri zituzten: "aurreratzen dizuegu urrats berriak prestatu, aurkeztu eta abiatuko ditugula hurrengo asteetan".



TXOMIN MADINA

MOBILIZAZIOAK Gehiengo sindikalak egubakoitzerako eginiko deialdiak izan zuten eragina Debagoiengan. Arrasaten, esaterako, udaletxeko langileek eta hainbat herritarrek egin zuten agerraldia *Euskal preso en eskubideen alde* lelopean.



I.G.

EZOHIKO BILKURA Mozio bana aurkeztu zituzten Bilduk eta EAJk egubakoitzean Oñatin egin zen ez-ohiko bilkuran. Aho batez onartu ziren biak. Hainbat herritar izan ziren osokoa kolore urdineko kamisetak eta zapiak soinean zituztela.



IMANOL SORIANO

PLAZARA EKITALDIA Bergaran egubakoitzean hainbat ekintza egin zituzten atxiloketak salatzen, tartean, bazkaria eta Plazara ekitaldia. 300 lagun batu ziren azken horretan.

Oraingoan ere ez dira ehiza postu guztiak adjudikatu

Egubakoitzean egin zuten bigarren enkantea Leintz Gatzagan; beste zazpi postu banatu dira

I.G. | LEINTZ GATZAGA

Ehiza postuen bigarren enkantea egin zuten egubakoitzean Leintz Gatzagan. Lehena orain dela aste-bete egin zuten eta 11 postu adjudikatu ziren soilik. Hala, bigarren deialdi bat egin zuten, baina oraingoan ere ez dira guztiak banatu.

Prezio jaitsiera

Bigarren enkante honetako postuen prezioa %10 jaitsi zuten eta 25 lagunek eman zuten izena. Guztira zazpi postu adjudikatu

ziren. Bat izan ezin, beste guztiak Pago Ederren daude. Banatu ez zirenak udaletxearen esku geldituko dira, ez da erabaki horiekin zer egin. "Genituen itxaropen guztiak ez dira bete, izan ere, enkante hau da gure diru-iturria bakarra eta oso garrantzitsua da guretzat. Hala ere, egiten dugun balorazio ez da txarra. Izan ere, iaz lortutako diru kopuru antzerakoa lortuko dugu aurten ere: 30.000 euro (iaz baino 3000 gutxiago)", adierazi digu Eujenio Otxoa herriko alkateak.



Egubakoitzean egin zuten ehiza postuen enkantea. | IMANOL SORIANO

Sindesperdicio "marka solidarioa" orain gertuago, Internet bitartez

- ▶ Web orria sortu dute, eskaintza zabala duena
- ▶ Crowdfunding-a abiarazi dute, dirua lortzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Orain urtebete sortu zuen Sindesperdicio web orria, eta orain diseinua berriro, argazki berriak sartu, eta seguru aski, bezeroa-erendako interesgarriena dena: euren lantzen dituzten produktuak Internetetik erosteko bidea eskaintzen dute, katalogo berria gehitu ostean.

"Poltsak, diru-zorroak, erosketako karroak, nezeserrak, baberoak, amantalak, karpetak... denetarik dugu. Kanean (faroletan, balkoietan, fatxadetan ...) ikus ditzakegun PVCz egindako banderaxo horiek, bizitza labor baten ondoren, zabortegean amaitzen duten banderaxoak Sindesperdicio berreskuratu eta *ekoichic* poltsa eta osagarrietan bihurtzen ditugu. Halako banderaxoak leku askotan eskuratzen ditugu, ez bakarrik, Arrasaten. Adibidez,

Donostia inguruan asko egoten dira. Eta halakoak ipintzen dituen enpresak guri ematen dizkigu, gure produktuak egiteko. Jantzirik, berriz, ez dugu egiten. Sindesperdicio ez dugu halakorik lantzen. Jantzi kontuak Emausek egiten ditu; Sindesperdicio Emausen barruan dago, baina beste kontu bat da", ekarri du gogora Jone Barkerok, Emauseko Arrasateko arduradunak.

Laburbilduz, beraz, Sindesperdicioaren produktuak dira web orrian aurki ditzakegunak. "Produktuen %95aren materialak birziklatutakoak dira".


Produktuok, gainera, norberaren gustu edo beharretara egokitzeko bidea ere ematen du Sindesperdicio bere web orrian. Eta jakina, behin erosketan egin edo produktua aukeratutakoan, norbere etxera bidaltzen diote.

Hala ere, "Arrasateko Emausen dendan ere eros daitezke Sindesperdicioaren produktuak", puntualizatu du Barkerok.

Gizartea eta ingurumena

Barkerok, bestalde, gogora ekarri du produktuok birziklatutako materialarekin egindakoak izanik "ingurumenerako onak" izateaz gainera, onak direla, baita ere, "gizartearen ikuspuntutik"; izan ere "lan merkatura sartzeko zailtasunak" dituzten pertsonen egiten dituzte, eta "beti gainera Arrasaten erroldatutakoak dira, Lanbiderekin edo Udalarekin gizarteratze hitzarmena sinatuta dutenak kontratatzen ditugu".

Gaur egun hiru lagun dabilta Sindesperdicioarekin lanean. "Lan-gabezia, bazterkeria arriskuan eta Arrasaten erroldatuta daudenak, beraz".



Sindesperdicioaren web orri berria, Interneten ikusgai. | GOIENA

Crowdfunding, dirua batzeko

Berritasun horrez gainera, karpaina batekin ere badabil buru-belarri Sindesperdicio azkenaldian: crowdfunding bitartez, dirua batzen dihardute.

"Web orrian berrikuntzak egiteko, diseinu grafikorako, mantenu lanetarako... behar dugu dirua. Mikrofinantzazioen bitartez batu gura dugu; hau da, eman gura duenari dituen baliabideen arabera emateko aukera eskaini: euro bat, bi, hamar... 3.800 euro da behar dugun gutxienekoa. Hilabete geratzen zaigu karpaina bukatzeko, eta oraingoz, 1.000 euro inguru batu ditugu", adierazi du Jone Barkerok.

Laguntzak honako helbide elektronikoan eman behar dira: *Crowdfunding-kanpaina* <http://goteo.org/project/sindesperdicio?lang=eu>. "Zenbatekoa jarri eta erregistratu egin beharra dago, baina bost minutu besterik ez dira behar horretarako".

Edozelan ere, dirua ez den bestelako ekarpenak ere onartzen dituzte crowdfunding kanpaina. "Hau da, norbait ona baldin bada argazkiak ateratzen, bere burua eskaini dezake lan horretan guri laguntzeko; edo diseinu grafikoak egiten, ba horretarako, bideo produktiorako... halakoak ere oso ondo hartzen ditugu", dio Barkerok.

Aluminioa batzeko kanpainarekin jarraituko du ikasturte honetan Arizmendi ikastolak

Gutun bat helarazi du etxeetara proiektuarekin bat egin dezatela eskatuz

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Arizmendi ikastolak gutuna bidali du bere ikasleentz etxeetara aurten ere Zu behar zaitut elkarrekin aluminioa biltzeko garatzen duen kanpainarekin bat egingo duela jakinarazi eta laguntza eskatzeko. Ester Merino ikastolako Bizikidetzako arduradunak azaldu duenez, "udako hiru hilabeteetan lasaitu egin gara eta gutunaren bidez gogorarazi nahi izan diegu ikasturte honetan ere jarraituko dugula egitasmo honetarako bilketa egiten".

Zu behar zaitut elkarrekin garuneko paralisia edo antzeko gaixotasunen bat duten umeen aisialdia bultzatzea du helburu. Kanpaina honekin, berriz, bi asmo betetzen ditu: batetik, familiei eta haurrei laguntzea eta bestetik, aluminioak ingurumenerari eragiten dion kalteaz jendea kontzientziaztea.

Aurreko ikasturtean zabaldu zen aluminioa biltzeko kanpaina Arizmendi ikastolako zentro guztietara eta egun, denetan dago aluminioa uzteko kutxa bat egokituta. Horregatik eskatu zaie gurasoei etxean aluminioa batzeko eta gero umei eskolara eramateko ematea. Zentroetan batu-

tako materiala ikastetxeetako mantentze lanetako arduradunek eramaten dute Zu behar zaitut elkarrekin egoitzara.

Elkarlanean

Egitasmoa txertatzen aitzindariak Eskoriatzako Almen zentrokoak izan ziren eta gero zabaldu zen gainerako zentroetara.

Eraikin ezberdinetako Batxilergoko lehen mailako ikasleek gaia landu zuten aurreko ikasturtean bai euren tutoreekin bai elkarteko Marisol Andraderekin. Honek azaldu zien ikasleei zein kaltegarria den aluminioa naturarendako eta bide batez, hau bilduta elkartasun keinu bat egin zezaketela azaldu zien.

Ikasle horiek izan ziren eurak baino txikiagoei gaiaren garrantzia azaltzearen arduradunak: maila ezberdinetako haur eta gaztetxoek zuzendutako emanaldi eta materiala prestatu zuten. "Txikienei antzezlan batekin azaldu zieten kanpainaren arrazoia eta pixka bat helduagoendako PowerPoint bat prestatu zuten".

Lan hari esker, ikasturte berrian ikasle txikienei helduagoak azalduz gogora ekartzeko

nahikoa izango da kanpaina zailtasunik gabe berreskuratzeko. Hala uste du Merinok.

Herrietan ere bai

Ester Merinok gogorarazi du Arizmendi ikastolan ez ezik, zenbait herritan ere badaudela kaxak jarrita aluminioa bildu eta Zu behar zaitut elkarrekin kanpainarekin bat egiteko. "Arrasaten eta Aretxabaletan hainbat dendatan daude, esaterako". Gaineratu du denok lagundu diezaietegu beharra duten haurrei.

Herbeheretatik etorritako ikasleei gaur egingo zaie harrera, Arkupen

I.E. | ARETXABALETA

Zapatuan heldu ziren Aretxabaletara Kurtzebarriko ikasleekin elkartrukea egingo duten Herbeheretako Cuij herriko 39 ikasle eta hiru irakasleak. Asteburua dagoeneko bertako ikasleentz etxeetan pasa dute irakasleek ezik- eta gaur egingo zaie harrera ofiziala Arkupen.

Herriko kultur etxeak gune interesgarriak buruzko liburuxka bana eman zien ikasleei heldu berritan, ongietorri gisa. Gaur, aldiz, Ana Bolinaga alkateak eta Kurtzebarriko zuzendariak egingo diete harrera 15 eta 16 urteko ikasleei.

Urriaren 11 arte egongo dira gure artean herbeheretarrak eta bitarte horretan bertako kultura eta inguruak ezagutuko dituzte. Urkulu, Guggenheim eta Donostiara joango dira, herri kirolletan ibiliko dira eta argazki rallya, mikro antzerkia ingelesez eta paella lehiaketa egingo dituzte.

Martxoan hara

Eurak hona etorri moduan, martxoan Kurtzebarriko ikasleak joango dira Herbeheretara hango bizimodua eta kultura ezagutzera. Martxoaren 15ean abiatuko dira 36 ikasle.

C

SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK

ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Eraikuntzen Azterketa Teknikoa 2018ra atzeratzea aztertzen dabilta

Eusko Jaurlaritzak araua aldatzen badu, azterketa gertu edukitzeko lehenengo epemuga 2018ko abenduaren 31 izango da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak aztertzen dabil eta badirudi bere asmoak hortik doazela. Eraikuntzen Azterketa Teknikoaren gaineko araua aldatzea. Horren eraginez, derrigorrezko lehenengo epemuga 2018ko abenduaren 31n izango da, hau da, egun horretarako EAT eginda izan beharko lukete aurtengo ekainaren 27an 50 urte edo gehiago duten eraikinek.

Irakurketa desberdinak

Gaur egun, bi arauk erregulatzen dute EAT Euskadin: Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek eta Espainiako lege batek. Adituen artean hainbat irakurketa edo interpretazio daude, eta segun eta ze interpretazio egiten den, Euskadin ere derrigorrez bete behar da Espainiako legea edo ez.

Edozein modutan, asmoak egia bihurtu arte, epemugak hauek dira: 2013ko abenduaren 31rako EAT eginda izan beharko lukete 1901 baino lehenago egindako eraikin guztiek; 2014ko abenduaren 31rako, 1942. urtea baino lehenago egindakoak; eta 2015eko abenduaren 31rako, 50 urte edo gehiago duten eraikinek. Arau berria onartuko balitz, hiru multzo horietako etxebizitzaren betebeharra 2018ko abenduaren 31ra atzeratuko litzateke.



Etxebizitza eraikin bat, Arrasaten. | GOIENA

Dirulaguntzak, aparte

Baina soluzioa ez da hain samurra, izan ere, beste alde batetik, dirulaguntzen kontua dago. Gaur egun, EAT bera egiteko dirulaguntzak lortzeko aukera dago, gehienez ere 1.000 euro. Baina, azterketa teknikoaren arabera, eraikin horrek birgaitze edo konponketa lanak egin behar baditu, horietarako dirulaguntzak EATen gaineko arauak ez beste batzuek erregulatzen dituzte; araudi hori 1984koa da eta ez du inongo zerikusirik EATekin.

Etxebizitza ondarea birgaitzeko Suradesa agentziako Luis Laskurainek egoera azaltzen digu: "Udal batzuk bizilagunak informatzen hasi ziren EAT egin behar zutela, eta bizilagun batzuek laguntza eskatu zieten udalei". Laskurainek Etxebizitza Sailean kontsultatu du zelan dagoen kontua, eta, bere esanetan, agintariak "bi gauzak aztertzen dabilta: epeena, batetik, eta dirulaguntzena, bestetik".

Dena dela, atzerapena dagoeneko errealitate bat da: Laskurainek esan du datorren artean

duela batzar bat Bergarako bizilagun batzuekin, dagokien azterketa atzeratzeko.

Aditu baten txostena

Orain indarrean dagoen araudiak zenbait betebeharrak ezartzen ditu etxe-jabeendako. EAT txosten bat da, eta aditu kualifikatu batek bakarrik egin dezake; normalean, arkitekto edo arkitekto tekniko batek. Eraikuntzaren egoeraren gaineko txostena da, eta irisgarritasun-txostena eta energia-eraginkortasunaren gaineko txostena gehitzen zaie aurrekoari.

Ana Ugalde | Bazkundeko Prestakuntza arloko zuzendaria

"Onena da zuzendaria liderra ere izatea, baina beti ez da horrela izaten"

Enpresetako zuzendari eta arduradunendako ikastaro espezializatuak ematen ditu Bazkundek



Ana Ugalde. | L.K.

L.K. | ARRASATE

Enpresetako zuzendari eta arduradunendako ikastaro asko antolatzen ditu Gipuzkoako Bazkundek, eta matrikulazio epea zabalik dago gehienentzako. Bazkundeko Prestakuntza arloko zuzendari Ana Ugaldek dioenez, ematen diren gai askotan zer hobetu badute zuzendariak, baina baita beste edonork ere.

Formazioari dagokionez, zer eskatzen dute enpresek?

Ikastaroak praktikoak izatea. Zuzendariak denbora txikia dute, orduan behar dute zerbait motza, praktikoa eta bukatutakoan zuzen-zuzenean aplikatzea.

Gaurkotasan handiko gaiak lantzen dituzte: motibazioa, lidergoa, denboraren kudeaketa, komunikazioa... Kontu horietan hobetzeko asko dute enpresek?

Zer hobetu badago, bai, baina ez bakarrik enpresan; gai horiek denoi balio digute. Pertsonak oso inportanteak dira organizazioan, eta oso garrantzitsua da haiek ondo zuzentzea, liderrak izatea. Motibazioa, norbera motibatuta egotea eta lankideen arteko motibazioa; komunikazioa; nola hobetu denboraren kudeaketa... hori dena hainbat programatan ikusten dugu, eta zuzendariak oso ondo baloratzen dituzte.

Zuzendariak, zer da lider izatea?

Lidergoa ez da ikasten oso erraza, baina zuzendari izatea, bai. Zuzendaritza zerbait hierarkikoa da, eta lidergoa, ordea, ez; lider izatea lortzen duzu zurekin lan egiten dutenek ikusten badute zerbait berezia duzula eta hori lantzen baduzu taldearen helburuak lortzeko. Onena da zuzendaria liderra ere izatea, baina beti ez da horrela izaten.

Nazioarteko negoziak egiten dutenendako gero eta ikastaro gehiago dago.

Bai. Bazkundetik beti izan ditugu enpresei laguntzeko programak, internazionalizatzen hasten dire-

nentzat eta esperientzia handia dutenentzat. Esaterako, kontratuen munduan, estatutik kanpo gauzak oso desberdinak dira; ordainketak egiteko modu desberdinak daude; garraio aldetik ere bai...

Ekonomia eta finantza gaitasunak interes berezia piztuko dute gaur egungo testuinguruan...

Bai. Denok dakigun moduan, finantzazio arazoa oso inportantea da gaur egun enpresa askorik ikastaro horiek asko eskatzen dizkigute enpresek. Batez ere, modu tradizionalak utzita, modu desberdin baten arazoei aurre egitea lortu nahi dute.

Prestakuntza birtuala ere ematen duzue, Asmoz Fundazioarekin.

Bai; orain 13 urte jarri genuen gure lehenengo *on-line* plataforma. Eskaintzen ditugun ikastaroak askotarikoak dira: marketina, internazionalizazioa, finantzazioa... denetariko gaiak daude. Saiatzen gara daukagun eskaintza presentziala *on-line* eskaintzarekin osatzen. Izan ere, batzuek arazoak izaten dituzte egun eta ordu jakin batzuetan etortzeko. Beraz, *on-line* ikastaroa ondo etortzen zaie.

Gipuzkoarentzat 60 milioi euroko inbertsioak

L.K. | ARRASATE

Foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ekonomia suspertzeko erakunde arteko akordioa sinatu zuten astelehenean. Hitzarmentaren bidez, 180 milioi inbertituko dituzte bost urteotan lau erakundeok. Gipuzkoako Foru Aldundiak horietatik 60 kudeatuko ditu.

Bestalde, defizita Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean banatzeko erabakia astelehenean hartu zuen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, eta, ahaldu nagusiak esan zuenez, Foru Aldundiak uste baino 18 milioi gehiago kudeatuko ditu aurrekontuan. Esan zuenez, Aldundiak dagokion dirua "ahalik eta herri gehienen artean" banatuko da eta, besteak beste, enplegurako eta kultur eta gizarte ekipamenduetarako erabiliko da.

Krisiak "hondoa jo duela" uste dute enpresek

L.K. | ARRASATE

Krisiaren "zuloan" jarraitzen dute Gipuzkoako enpresek, baina "badirudi hondoa jo" duen aztarnak daudela; horrela esan zuen martitzenean Adegik, enpresaburuei egindako inkestaren berri emateko prentsaurrekoan.

Adegiko idazkari orokor Jose Miguel Aiertzak esan zuenez, "historikoki maila apalenean zeuden enpresen konfiantza datuek hobera egin dute. Barne salmenten beherakadaren erritmoa txikiagoa da. Eta kanpo salmentek %1,8 gora egin dute; salmenta horien erritmoaren abiadura, ordea, moteltzen doa. Enpresen ekoizpen ahalmenaren erabilerak 4 puntu egin du gora, oso baxuak ziren mailatik abiatuz".

Elektrizitatearen kostua kudeatzeko laguntza enpresendako

Eusko Jaurlaritzak aholkularitza zerbitzua eskainiko die enpresei, elektrizitatearen kostua kudeatzeko, eta enpresek adostutako hainbat neurri landuko ditu Industria Ministerioari proposatzeko, Arantza Tapiak egunean esan zuenez. Helburua da elektrizitate-erreformaren eragina arintzea.

Hur Gorostiaga | Iparraldeko Ikastolen Elkarteko zuzendaria (Seaska)

"Ikastolara datozen haur guztiak onartzen ditugu, toki arazoak ahal bezala konponduz"

- ▶ Seaskak duen lokal falta larriagotu egin da, Hendaiako debekuaren ondorioz
- ▶ "Haurrak onartuko ez bagenitu, frantses izatera kondenatuko genituzke", dio Gorostiagak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Seaskak, Iparraldeko Ikastolen Elkartek, leku eskasia arazoak ditu aspaldian. Ikastola berria eraikitzea debekatu berri dio Hendaiako Udalari Pauko epaitegiak. Seaskako zuzendaria Hur Gorostiagak dioenez, "80 ikasle behin-behineko lokaletan daude, aterpe eta jangelarik gabe".

Ze egoeratan utzi zaituzte Hendaiako ikastola egiteko debekuak?

Hendaiako 260 haur dauzkagu eta 160rendako geneukan ikastola. Udalak erabaki zuen ikastola berria egitea, baina suprafetak mehatxu-gutuna bidali zuen esanez erabaki hori kentzeko, bestela auzitara bidaliko zuela. Udalak gehiengo eta demokratikoki hartutako erabaki horri eutsi zion, eta suprafetak auzitara eraman zuen. Auziak behin-behineko suspentsioa eman du. Kasik urte batez atzeratzen da auzitegiaren erabakia, baina proiektua izoztu edo bertan behera geratzen da. Baditugu gutxienez 80 bat haur gaur egun behin-behineko lokaletan, aterperik gabe euria egiten duenean, jangelarik gabe eta oso egoera txarrean.

Bitartean, Beskoitzen ikastola berri bat eraiki dugu ikasturte hasieran, eta hor Udalak jartzen zigun lursail bat alokairupean, eta hori ere, nahiz eta ordaindu, debekatu nahi dio suprafetak Udalari. Beraz, Estatuak ikastolak jopuntuan ezarri ditu eta horri erantzun beharko zaio. Ondoko asteetan ditugu bilerak, ikastola guztien artean, ikusteko ze erantzun eman.

Falloux legea dago honen sustraian, Frantziako Estatuari ikastetxe pribatuak finantzatzea debekatzen diona. Zer diozu?

Falloux legea 1850ekoa da, estatua eta eliza oraindik bereizita ez zeudenean eskola katolikoak babesteko egindakoa. Baina 150 urte beranduago, eskola kristauak babesteko egin zen lege bat gure kontra erabiltzen dute, eta gu erabat laikoak gara; beraz, zentzugabekeria da. Ibili gara joan den urtean hainbat manifestaldi egiten, eta alderdi sozialistaren egoitza ere okupatu genuen joan den udan.

Uztailean bilera izan zenuten Parisen. Ezer onik irten da hortik?

Barne, Kultura eta Hezkuntza ministroekin bilkura izan genuen eta argi eta garbi ikusi genuen Barne Ministerioak duela gidatzen hizkuntza politika frantziar mailan, nahiz eta berez ez legokiokeen berari, baina hizkuntza politikan Valls ministroak errana du Kor-



Hur Gorostiaga, Oñatiko Santa Marina plazan. | OIHANA ELORTZA

sikan ez dela onartuko koofizialtasunik, eta nahiz eta Hollande iritsi zenean boterera hitz eman zuen hizkuntzen lege bat egingo zuela, badirudi Frantziako orain ez dugula lehen ministro ez presidenterik, baizik eta barne ministro oro-ahaldun bat.

Eusko Jaurlaritzaren babesa, behintzat, badu Seaskak.

Babesa, morala eta teorikoa, bai, badugu, izan ere, 2012an, Lopezen gobernuak hitz eman zigunetik ez zen deus iritsi, eta gobernu berria iritsi zenetik zehaztekoa dugu ea sotesan laguntza emango diguten edo ez. Baina sostengu morala badugu, eta sostengu denak ongi etortzen dira. Gainera, sostengua ez da bakarrik Jaurlaritzarena; hainbat herritar, elkarte eta bestek ere sostengua adierazten digute urtero, eta momentu zail hauetan, bereziki.

Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak Xalbador ikastegia egiteko 6.000 euroko laguntza onartu zuen, baina gobernuko delegatuak hori auzitara eraman duela dirudi, erranez Gipuzkoak ez zuela konpententziarik. Espero dugu laguntza hori ere ez digutela desbideratuko.

Gobernuarekiko harremanak gorabeheratsuak izan dira, baina inoiz akordioak ere lortu izan dituzue...

Beti lortu dira akordioak indar-harreman baten ondorioz. Ez digute inoiz deus eman. 80ko hamarkadan hainbat gurasok 30 eguneko gose greba egin behar izan zuten lehen onarpen bat lortzeko; gerora hainbat okupazio izan dira, eta oroitzen naiz ere 80ko hamarkadan Realak jokatu behar zuela partidu bat eta debekatu egin zutela partidu hori, eta sekulako istiluak izan zirela; guk uste genuen beste garai bateko kontuak zirela horiek. Baina egia da beti indar-harreman batera bultzatzen gaituztela, guk nahi ez duguna; gu hezkuntza eragileak gara eta badugu besterik egiteko, baina ez digute ezer eman nahi musu-truk, eta sozialistek hain-

bat aldiz egin duten bezala, berriz atzera egiten dute eta hitza jaten dute.

Eta hori horrela izanda ere, Seaskak hazten jarraitzen du.

Bai. 31 ikastola -lizeo bat, hiru kolegio eta 27 lehen mailako ikastola- eta 3.100 ikasle inguru ditugu. Ikastolek sekulako arrakasta dute, D ereduko sistema bakarra baita, eta sekulako emaitzak lortzen ditugu. Kultur mailan eta pedagogia mailan hainbat abantaila ditu ikastolan izateak.

Garapen betean gaude, eta aurtun 150 ikasle gehiago eskolaratzen ditugu eta aterbea emango diogu honi modu batera edo bestera, eta gauza bat argi dugu: hemen herritar, udal eta hautetsi

gehiengo handi batek sostengatzen gaituela eta Pariseri ideia aldarazi beharko diogula.

Euskara nahi adina transmititzen da Iparraldean?

Gero eta gutxiago. Hiltzen diren zaharren % 60 euskaldunak dira; aldiz, sortzen direnak, %10-15 izango dira euskaldunak edo euskalduntzen direnak. Eta horri gehitu behar diogu gaur egun Ipar Euskal Herrian bizi diren biztanleen % 50 kanpotik etortitakoak direla eta datozen 5-6 urteetan beste 30.000 biztanle etorriko direla kanpotik, eta horiek euskalduntzeko ez dagoela inongo plangintzarik. Guk susmatzen dugu haien asmoa dela gure hizkuntza poliki-poliki itzaltzen uztea, esateko eurek lagundu zutela baina, hizkuntza ahula zenez, hil egin zela. Heriotza hori kudeatu nahi du Estatu frantsesak, baina gu ez gaude prest.

Seaskako ikasleen etxeetan euskaraz egiten dute?

Ez; gaur egun gehiengoak guraso frantsesdunak dira. Horregatik, ikastola batera heldu baldin badira guraso batzuk, haien haurra ikastolan jarri nahi dutela erranez, nahiz tokirik ez izan, guk onartu egiten ditugu ume horiek, bestela haur horiek frantses izatera kondenatuko genituzke, eta gure hizkuntzak ezin du horrelako luxurik izaten, beraz datozen haur guztiak hartu eta lokal arazoak ahal bezala konpontzen ditugu.

Beste hizkuntza gutxitu batzuetako ikastetxeekin harremanetan dago Seaska, ezta?

Bai, hala da, eta azken urteetan, hemen egin den bezala, han ere saihebidetako aurkitu dituzte finantzazio batzuk lortzeko, baina estatuek bere jarrera gogortu nahi duela badirudi eta, egia erran, Ipar Katalunian, Alsazian, Okzitania eta Britainian guri begira eta beldurtuta daude, ea ze bilakatuko den egoera hau. Horiakin ere biltzen gara, eta noizbait konponduko da gaia, baina momentuz atzera goaz.

Etorkizun hurbila nola ikusten duzu?

Zailtasunak ezarriko dizkigute baina gu ez gaude horretan gelditzeke prest, eta beharra izan dugunean beti Euskal Herri oso-tik sostengua jaso izan dugu; duela gutxi ere Oñatin izan ginen, eta Laixan elkarteak Beskoitzeko ikastolarendako dirulaguntza eman zigun. Aurrera egingo dugu, ez dugulako beste erremediorik aurrera egitea baino.

"Ikastolek sekulako arrakasta dute, eta D sistemako eredu bakarra gara"

"Gure ikastoletako haur gehienek gurasoak frantsesdunak dira"

"Zentzugabekeria da 1850eko lege bat Seaskaren aurka erabiltzea"

"Euskararen heriotza nahi du Frantziak, baina gu ez gaude prest"

ZABALIK

AINTZANE IRIZAR
http://goiena.net/iritzia/



Euskara krisian

Zoritarrez, nahi baino mediku, erizain, espezialista eta administrari gehiago ezagutzea tokatu zait Osakidetzan, batez ere, orain dela ia hiru urte alaba txikia jaio zenez. Eta ia hiru urte horietan, hiru pertsona euskaldunekin topo egiteko zortea izan dut; zortea diot, panorama hori ikusita, ez baita gutxi! Ondotxo ikasi genuen, "pixka bat es mucho".

Asteburu honetan, etxean aspalditik pilatutako paperak txukuntzen jardun dut, tartean, mediku-txosten, hitzordu eta antzerakoak; bat bera ere ez dut aurkitu euskaraz. Ezta euskal hiztunak diren profesional horiek idatzitakoak ere. Bada, kit esaten nabilena ez dela ezer berria, ezta harritzekoa ere; izan ere, horixe lortu da euskaldunon artean, ezertzorekin ere ez harritzera iritsi garela, alegia. Baina, pentsatzen jarrita, (eta gutxi asko den kontu hori alde batera lagata), ez al da benetan gutxi horrenbeste

urtean gure hizkuntza-eskubideen alde egindako borrokarekin lortu duguna? Gainera, publikoa eta unibertsala den zerbitzua baldin bada, non dago, ba, unibertsaltasunak aitortzen digun berdintasun hori? Norbaiti, beharbada, krisi eta murrizketen garai honetan, arinkeria irudituko zaio, baina, kontxo, euskara denbora gehiegian dago krisian!

Zoritarrez (edo zorionez), Kataluniako osasun zerbitzuak ezagutzea ere tokatu zaigu. Haien independentzia goseaz gain, aipatzekoa iruditzen zait hizkuntzaren arloan izan duten harrotasuna (eta ez harrokeria). Bartzelonako ospitale handi, ezagun eta nazioarte-mailan prestigio handia duen batean, lasai asko eman ziguten txosten bat katalanez. Katalana ez den beste norbaiti, beharbada, ez lioke grazia handirik egingo eta uler nezake; ba, niri, ilusioa egin zidan, baita inbidia galanta eman ere.

Katalanek euren bidea eta guk euskal bidea egin beharko dugu, ados, baina zer ikasia ere badaukagu.

"Non dago unibertsaltasunak aitortzen digun berdintasun hori?"

USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

Agendak kontrolatzen

Fan zan astelehenian izan zan Herriraren aurkako operazio poliziala Euskal Herriko hainbat herri eta hiriburutan. Ahaztuta geukan ez hain aspaldiko garaixetara atzera egittia modukua izan zan. Herrira preso eta iheslarixen etxeratzea ahalbideratu gura dauen herri-mugimendua da, eta hori aprobetxatuta eta *dena ETA da* argudioarekin 18 lagun atxilotu zittuzten. Orduetik gai hori izan dogu agendan: hedabide danek jaso daue horren barri, eta aldeko eta kontrako iritziexekin orri mordua bete dittuzte. Eta, bixen bittartian, horretaz berba egitten dogun bittartian, beste gai batzuk tapatu dittuzte: krisia, langabezia gora, ustelkeria...

KALE INKESTA

Zer iruditu zaizu Herriraren kontra egindako operazioa?



AITOR AZKUNAGA
ARETXABALETA

"Oso txarto iruditzen zait. Epailak beti dabiltza gauza berarekin. Horrela, behintzat, ez du bake prozesuak aurrera egingo".



MIKEL LUENGO
ARETXABALETA

"Ez da erraza izango bake prozesua, baina hau zorakeria izan da eta ez du ezertan laguntzen. Atzerapauso ikaragarria izan da".



AMELIA FERNANDEZ
ARETXABALETA

"Honek bukatu beharra dauka eta topa dezatela irtenbide bat lehenbailehen. Leku pribilegiatuan bizi gara eta bakea nahi dugu".



GOTZON ETXAGIBEL
ARETXABALETA

"Betikoa da, estaltzeko trikigailua. Euren etxean ez dituzte gauzak ondo egiten eta hori ez ikusteko beti gurekin sartzen dira".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zergatik euskararen erabileraren hautua egin?

Aizpea Otxandiano
blogak.goiena.net/katebegia/

Askotan, hainbat hizkuntzalari eta soziolinguistika adituk familiari aitortu izan diote euskararen transmisioan funtsezko garrantzia. Eta guk ere horrela uste dugu.

Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu gurasoek edota familiako kide helduek euskararen erabileraren hautua egitea, azken finean ahalegin pertsonal honi esker emango baita integrazio linguistikoa.

Hizkuntza baten transmisioa ez da emango soilik hizkuntza jakitean baizik eta erabiltzerakoan transmitituko da.

Hizkuntza erabileraren hautua egiterakoan ematen diogu balioa hizkuntzari, bestela hizkuntza bat ez jakitea eta ez erabiltzea gauza bera izan baitaiteke.

Arrasaten, neurri handi

batean, euskaraz bizitzeko aukerak izan baditugu, baina hautu pertsonala falta zaigu, hau da, euskara etxean, kalean, lanean... haurrekin, gazteekin, beste guraso eta helduekin, aiton amonekin... euskaraz egitea.

Gure ondorengoek euskaraz bizitzeko nahi badugu, guk, helduok, eman behar dugu lehen pausua eta hautua egin.

Azken finean, gurasoen edo helduon eskuetan baitago haurren euskara ikasteko prozesua indartzea eta erraztea.

Eta horrela, haurren lehen hizkuntza halakoa bada, horrelako hiztuna izango baita!

Beraz, eredu izan gaitzen helduok eta egin dezagun hautua.

Haurrek ikusten dutenaz ikasten dute eta!

Ahotsen protesta

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Herriko maistra gutun bat idazten ari da, soldadu baten amak esandakoekin:

"Etxean denok ondo, atzo behiak umea egin zian.

Zaindu hadi...".

Zine mutuaren garaietan gaude, eta kontalaria Charloten eta azpitu-tuluen nondik norakoak argitzen ari da publiko gehienbat analfabeto batentzat.

Zahar etxeko laguntzaile bat *Gartxot* irakurtzen ari zaie bertako egoiliarrei.

Baina soldaduak amaren ahotsa entzungo du, eta ez maistrarena.

Zine mutuko ikusleek, Charlotena.

Zahar etxeok, Gartxotena...

Maistra, kontalaria, irakurlea hotzen zubigile anonimoak dira: zenbat eta hobeto egin zubia, orduan eta anonimoago.

Bikoiztaileak ere, zubigile.

Anonimoak. Iragan Zinemaldian anonimotasun ia erabatekotik irten eta protesta egin dute.

Lanik gabe utzi nahi dituzte.

Mututu.

Baina euskaldunok gure eta gure hizkuntzaren arteko sintoniari eusteko ahots kontaezinen zubian, premiakoa dugu bikoiztaileek beren zubigile-lan anonimoari eustea.



Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urzelai
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitate Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legedailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritza diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ongi etorri Gorbeiaiko udazkenera!



Urriaren 4tik aurrera

2.000
landare
oparituko ditugu

lehen 2.000 bezeroen artean

Promozioa 2013ko urriaren 4tik izakinak agortu arte izango da baliagarria. Oinarriak centrocomercialgorbeia.com webgunean.

Egizu erosketa bat Gorbeia merkataritza-guneko edozein saltokitan eta tiketa aurkeztuz, landarea Gorbeia Lorezaintza Gunean jaso dezakezu.



Gainera

**ARABAKO
BEGIRADAK 2013**

argazki lehiaketan parte har dezakezu

Saritan

3.000€ baino
gehiago
banatuko
ditugu

Oinarriak:

centrocomercialgorbeia.com

Urriaren 31 arte.

Gure bezeroei gogorarazten diegu Gorbeia Lorezaintza Gunea **IREKITA** dagoela **IGANDERO** 09:30etik 13:00etara



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com



HERRIAK

ONATI

Oñatiko historia Azpiazuren eta Elortzaren eskutik

- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide egingo dituzte bi historialariak
- Egindako ikerketak urriaren 12an aurkeztuko dituzte, unibertsitatean

IRATI GOITIA | ONATI

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide egingo dituzte Jose Antonio Azpiazu eta Jerardo Elortza oñatiarrak. Kide izateko, baina, hitzaldi bat eman behar dute. "Hori da baldintza, bazkide izateko ikerketa bat egin behar da lehenik, eta ondoren, hori aurkeztu jendaurrean", azaldu digute. Urriaren 12an egingo dute hori Oñatiko Snacti Spiritus Unibertsitatean.


"Gure ikerketek zein gai landu behar zuten jakin barik, elkarteko kideek galdetu ziguten ea aurkezpena Oñatiko unibertsitatean egin ahal izango zen. Eta bertan izango denez, bai neuk eta baita Jerardok ere Oñatiko gaiak aukeratu ditugu ikerketa egiteko. Aproposa iruditu zitzaigun", azaldu digu Azpiazuk.

Unibertsitatea bera, ikergai

Azpiazuk Oñatiko unibertsitateko garai bateko bizimoduak ikeritu ditu. "Oñatiko unibertsitatea oso garrantzitsua izan da. Oso ikerketa gutxi egin dira, ordea, eta arlo batzuk alboratu ere egin dira. Ni aspaldi hasi nintzen unibertsitatearekin lotutako informazioa lantzen eta aurkezpen hau aprobetxatuko dut urteetan eginiko lana azaltzeko. Nire aurkezpena, baina, deialdi bat izango da; jendea hori lantzerantz bultzatuko deia izango da". Azpiazuk azaldu digu Oñatin bertan dokumentazio asko dagoela eta berak gehiengo duela aztertuta dagoeneko, baina unibertsitateak itxi zenean, informazio asko Valladolidera eramane zela gaineratu digu. Hain zuzen, dio hor lan asko dagoela egiteko. "Zorionez, dokumentu garrantzitsuenak zaharrenak hemen gelditu ziren. Orain dela 100 urte, ez zitzairen balorerik ematen-eta".

1805eko bi liburu, oinarri

Jerardo Elortza Oñatiko euskalerrriaren inguruan eta Oñatiko idazlearen gainean hainbat urtetan ibili da lanean. Eta lanak ere argitaratu ditu. Hain zuzen, urriaren 12an egingo duen aurkezpena ere ildo horretatik joango da. "Dokumentu batzuk aurkitu ziren Oñatiko Arrazola Azpiko base-



Jerardo Elortza eta Jose Antonio Azpiazu Oñatiko Snacti Spiritus Unibertsitatean. | IRATI GOITIA

rrian (Olabarrieta). Ezagunak ziren aurretik ere, hainbat euskaltzale eta ikerlarik aztertutako zituzten-eta, baina argitaratu gabeko liburuak ziren eta horrek asko zailtzen zuen ikerketa. Guk orain dela urte batzuk lortu genuen fotokopiak egitea, ordea, eta transkripzioa egin nuen. Batetik eta bestetik eskatzen zidaten eginiko lan hori eta aukera hau aprobetxatu dut nuen guztia batu eta publikatzeko. Ez dugu argitaratuko, baina sarean jarriko dugu edonoren eskura. Eta eginiko ikerketa elkarteko buletinean edo aldizkarian ere argitaratuko da", azaldu digu Elortzak.

Zehazki, 1805 inguruan idatzitako bi liburu dira. Eliz liburuak, baina garai hartako bizimoduari buruzko idatziak ere badituzte. "Txokolateari buruz, adibidez, oso gauza interesgarriak daude. Esaten da izugarrizko

zaletasuna dagoela txokolatea jateko eta familiako kide guztiak ospitalera eramane behar izaten dituztela. Irakur daiteke baita, emakumeen artean duela batez ere arrakasta. Eliz liburuak izan arren, horrelako ohitura kontuak ere agertzen dira". Bestalde, liburuak balio etnografiko eta filologiko handia dute. Izan ere, Oñatiko euskalkia edo aldaera aztertzeko ere dokumentu aberatsak dira.

Deba bailararen garrantzia

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean garrantzia handia izan zuen Bergarako herriak, eta batez ere seminarioak. "Bergarako jesuiten ikastetxea aprobetxatu zuten elkarteko kideek bertan beraien seminarioa jartzeko. Eta Munibe (Peñafloridako kondea) elkarteko buru edo sortzaile izandakoa ere Bergarara bertara etorri zen bizitzera", adierazi digu Elortzak.

Maila handiko intelektualak batzen ziren hala Bergaran. Seminarioa zientzia arloan nabarmendu zen neurrian, Oñatin letretako unibertsitatea zegoen. "Hamalau kilometroren artean bi zentro garrantzitsu zeuden. Unibertsitatea lehendik zegoen eta gero Bergarako seminarioa egin zen", zehazten du Elortzak. Eta Azpiazuk honakoa gaineratu: "Deba bailara intelektuali oso gune garrantzitsua izan da historian. Lehenik Oñatiko unibertsitateaz, gero seminarioaz, eta egun, Arrasaten sortutako Mondragon Unibertsitatearekin". Zehazten dute baita Oñatiko unibertsitatea diru-iturri handia izan zela bere garaian herriarendako. "Tximinia gabeko lantokia izan zela esan ohi da", dio Elortzak. 1833an Oñatin eta Salamancan ikasle kopuru antzerkora zegoela esan digute, 600 inguru. "Pentsa herri baterako ze garrantzia izan dezakeen horrek. Adibidez, Oñatin ikasleak hartzeko 16 ostatu zeuden", gaineratzen du Azpiazuk.

Urriaren 12an aurkezpenak

Elkarteko kide izatea ohore bat den galdetuta, honakoa erantzun digute biek: "aitzakia bat da lanean jarraitzeko eta eskuartearen ditugun hainbat gauza argitaratzeko". Izan ere, eginiko lanak elkarteko buletinean edo aldizkarian argitaratzen dira. Azpiazuk esan digu, kide egin aurretik, eskatu diotela dagoeneko lehen lana urte amaierako.

Hilaren 12an egingo dute euren ikerketen aurkezpena Sancti Spiritus Unibertsitateko areto nagusian, 11:00etan. Ekitaldiari hasiera Juan Bautista Mendizabal elkarteko Gipuzkoako lehendakariak emango dio. Amaieran berriz, Amaia Azpiazuk elkarteko sortzaile izan zen Munibe berak idatzitako kantak abestuko ditu, Xabier Ugartek gitarraz lagunduta.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte XVIII. mendearen bigarren erdialdean sortu zen. Ideia trukaketarako jaio zen eta Peñafloridako Kondeak Azkoitiko Intsaustiko egoitzan ospatzen zituen solasaldiak hasiera horretan. IX eta XX. mendeetan gora-behera askorekin jarraitu zuen elkarrekin, baina 36ko gerraren ostean, berpiztu egin zela zehaztu digu Elortzak. Hain zuzen, estatutu berriak berridatzi ziren.

Hala, Euskal Herriko historia, kultura eta euskara aurrera ateratzeko garrantzia handiko elkarrekin dela gaineratu du Elortzak eta elkarteko buletinean oso gauza interesgarriak argitaratu izan direla. Aipatzekoa da baita, 36ko Gerraren ostean, euskaraz argitaratzen zen aldizkari bakarra Euskalerrriaren Adiskideen Elkatekoa zela.

Hurrengo urtean 250 urte beteko ditu bere sorreratik elkarrekin eta hainbat ospakizun ekitaldi egingo dituzte. "Gu urtebete lehenago hasiko gara ospakizunak bultzatzen" dio txantxaz Azpiazuk.

Egun arkitektoak, historialariak, ingeniariak eta medikuak daude elkartean, besteak beste, eta arlo ezberdinetako ikerketak egitera bideratzen dira. Azpiazu eta Elortza elkarteko bazkide numerarioak izango dira, hau da, eskubide osoko bazkide izango dira.



Trikitolariak, atzean Foruen plaza lepo beteta dutela. | IMANOL SORIANO



Honek bai jakin.



Barazki, fruitu, gazta eta abere lehiaketako sarituak. | M.B.



800 lagun inguru batu ziren Zubikoan herri bazkarirako.



Herriko baseritarrek jaitziko behie begira.



Sagar artean.



Hori da hori gaztetxoek duten sasoia.



'Zuk ekarri, zuk jan' gaztetxoentzako afaria. | I.G.

ten ere jendez bete zen Zubikoako pilotalekua.

Baseritarrez jantzia, kalera Zapatuko egun garrantzitsua da oñatiarrendako. Hala, eguraldia lagun, baseritarrez jantzi eta kalera irten ziren Herri Egunean. Jende asko ibili zen artisau, abere, barazki eta fruitu azoketan. Foruen plaza ere jendez lepo bete zen sagardo dastatzerako. Zubikoa kiroldegian egin zen herri bazkarian 800 lagun inguru batu ziren. Aurten, gaztetxean ere egin zuten bazkaria, 120 lagun inguru animatu ziren. Arratsaldean, herri kirolak izan ziren Foruen plazan. Eta gauean berriz, ez zen musika falta izan, erromeria eta kontzertuak izan ziren.

Atzo, Errosaixo Egunez, Udal bandaren kontzertua, motor klaskoien erakusketa eta haur parkea izan ziren, besteak beste.

OÑATI

Herritarrek zein kanpotarrek gozatu dute Herri Egunean, eguraldia lagun

Gaur mozorroek kolorez beteko dituzte herriko kaleak jaiei amaiera emateko Errosaixo Bixamona egunez

IRATI GOITIA | OÑATI

Errosaixo Bixamona eguna dute gaur Oñatin eta kolorez beteko dira kaleak. Izango da non gozatzeko aukera jaietako azken egu-

nean, besteak beste: sokamuturra, paellada eta Di-bertsioak izango dituzte. Asteburua ere indartsu joan da, ordea, egubakoitzetik dabilta jaietan-eta.

Kolore morea soinean

Egubakoitzean laugarren egun morea egin zuten. Hala, kolore morea soinean, aldarrikapen festa egin zuten. Gaztelekuan, bes-

talde, aurtengo berrikuntza izan den *Zuk ekarri, zuk jan* gaztetxoentzako afaria egin zuten. Urteroko zita den bertso jaialdia ere egin zuten egun berean. Aur-

Argazki galeriak: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



MADDI ALTZELAI
OÑATI

"Entsalada oso goxoa dago, gustuko dut herri bazkarira etortzea. Herri Eguna oso egun polita da. Goizean panderoa jotzen ibili naiz kalez kale. Arratsaldean berriz, barraketan ibiliko naiz nire lagunekin".



XABIER ELGERO
OÑATI

"Animaliak ikusten gabiltza umekin; gosalduta etorri direla esan digute jabeek eta ezin zaie jaten eman. Azokak ikusi, plazan sagardoa dastatu eta gero lagun artean bazkalduko dugu. Ondo pasatzeko asmotan irten gara".



AINHOA ARANBURUZABALA
OÑATI

"Guk usain oneko produktuak saltzen ditugu: xaboiak, krema naturalak eta ukenduak. Guretzat urteko azokarik onena da. Esaterako, urtero-urtero etortzen zaigu 90 urteko emakume bat goizean goiz erosketak egitera".



XABIER CAMPO
OÑATI

"Oso ondo doa eguna. Guk batez ere barazkiak ditugu, baina baita fruituak ere. Gustura gaude salmentekin. Aurten tomatea eskatzen dute gehien, izan ere, berandu heldu da. Goizean lan pixka bat eta gauean parranda".



AITOR ETA MAIALEN
OÑATI

"Lehenengo sariak irabazi ditugu. Nik bildotsetan eta Maialenek gaztarena. Egia esan, ez bata eta ez besteak, ez genuen espero, baina beti izaten da aukera. Aurten, akaso, ondo aukeratu dugu zer ekarri azokara. Pozik gaude".




Bikotea dotore-dotore jantzita.



Lore eskaintzak egin zioten herritarrek Maritxuri egun osoan zehar.



Neska koadrila hau loreak saltzen aritu zen.



Aurtengo mirariak Aretxabaleta izan zuen ardatz; bertan "egingo diren" 2020ko olinpiaden promozio bideoa erakutsi zuten pantailan.

ARRASATE

Maritxuk Aretxabaletara eramanez dituzte 2020ko Olinpiar Jokoak

Aurten ere egin du miraria Maritxuk, jendez lepo bete zen plazan; egun luzea izan zen Arrasaten

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Maritxu Kajoi egun borobila izan da aurtengo ere. Arrasatearrek eta baita kanpotik bertaratutakoek ohiturak errespetatu eta soinekoa zein trajea eta gorbata jantzita irten ziren kalera egubakoitzean. Batzuek lorea zuten paparrean, eta gehienek eskapularioa zermatan zintzilik lepotik.

Eguerditik jantzi zen dotore Arrasate eta hasieratik igarri zen festak ez zuela eteteko asmorik. Askotariko irudiak ikusi ahal izan ziren egun osoan zehar herriko kaleetan: lore eskaintza egin zioten hainbat koadrilek Maritxuri; gaztetxo asko papezko loreak saltzen aritu ziren; erraldoiek dantza egin zuten

Herriko Plazan, Irrien Lagunekin disfrutatuta zuten etxeko txikiak Seber Altuben; eta Gaztetxokoko neska-mutilek, oster, *Niri bost* lehiaketa egin zuten kaleetan zehar.

Olinpiadak Aretxabaletan

Urteroko miraria zein izango zen esperoan ehunka lagun bildu zen

Herriko Plazan iluntzean. "Urteetako jendetza handiena", bertako bizilagun baten esanetan.

Eta askoren ezusteko argiak itzali eta ikus-entzunezko bat eman zuten pantaila erraldoi batetan. Bertan 2020. urteko olinpiaden promozio bideoa azaldu zen eta Benny Hill komikoaren saioetan entzun ohi zen musika

bizikiak lagunduta, olinpiadetako sua Aretxabaletatik zehar eramanez zuten kirolari ezberdinek, bai igerilariak zein txirrindulariak... Kaleak zeharkatuta, Ibarra kiroldegian amaitu zen bideoa, eta bertatik magia bidez, arku tira-tzailearen suzko geziak Maritxuren inguruan zegoen uztaia piztu zuten.

Orduan egin zuen eztanda Herriko Plazak eta bertaratutako guztiek, bandaren laguntzarekin, Maritxu eta Bartoloren omenez kantatu eta dantzatu zuten.

Atzean utzi dute herritarrek Maritxu Kajoi eguna, eta gorde dituzte armairuan soinekoak eta trajeak. Agurrik ez, Maritxu; datorren urtera arte!



AMAIA ARRIETA
ARRASATE

"Lanean egon naizenez arratsaldean irten naiz kalera. Giro polita aurkitu dut. Mirariari dagokionez, nik Euskal Herri libre bat eskatuko nioke Maritxuri eta horretarako lana izango du agian... Baina zergatik ez eskatu!".



DIONI CABALLERO
ARRASATE

"Urtero egiten diogu lora eskaintza Erraldoi eta Kilikien konpartako kideok Maritxuri eta dantzatu eta kantatu ere egiten diogu. Bestalde, nik berriro ere ikusi gurako nuke iturritik ardo iritertzen hurrengo urtean".




SUSANA BERMEJO
ARRASATE

"Urtero iritertzen saiatzen naiz, gustuko baitut jai hau. Gehien, sortzen den giroa, janzteko modua eta koadrilan egotea atsegin dut. Eskapularioa ikusita, murrizketak amaitzea eskatuko nioke nik Maritxuri mirari moduan".



LIBE ARGOITIA
ARRASATE

"Duela hiru urte hasi ginen lorak saltzen Maritxu Kajoi egunean eta aurten ere koadrilan irten gara. Oso ondo pasatzen dugu lehenengo lora bakoitza egiten, eta ondoren kalez-kale jendearekin tratuan egiten".



ANE MENDIZABAL
ARRASATE

"Oso giro ona egoten da Maritxu egunean eta hori da gehien gustatzen zaidana eta miraria ikustera ere joaten gara lagun guztiok. Iruditzen zait kalean egoten garen guztiok oso pozik ibiltzen garela egun honetan".



ila erraldoian.



Ezinbesteko eskapularioa.



Gazte koadrila parrandako lehenengo orduetan.



Gorbata txukun, lagunari esker.



Herriko Plaza lepo bete zen miraria ikusteko desiratzen zegoen jendez.



Lore eskaintza egin zioten Erraldoi eta kilikien konpartsako lagunek Maritxuri.



Bertakoak eta kanpokoak batera, Maritxuren aitzakiaz.



Koadrila txosnetan. | IMANOL SORIANO, Z.V.D.M. I.G.



ITURRIZAR KALEA

ORTUZAL PROMOCIONES S.L

943 76 11 18

943 79 40 00

619 71 82 78

ARETXABALETA

AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela

2 bainugela

Sukalde hornitua

Ganbara bikaina

Azken etxebizitzak!!

**Etxe tasatuak
baino merkeago!!!**

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

160.000€

(BEZa ez dago barne)

BERGARA

Espoloitxo zumardira jaitsi bezain pronto hasi zen egun osoko festa

Ume txikiak zein handiak gustura ibili ziren zapatuan auzoko jaietan

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Eguerdian hasi eta egun osoko festa egitaraua izan zuten zapatuan Espoloia auzoan. Hirugarren aldia da Bergarako auzo horretan jaiak egiten dituztela, eta apurka-apurka badoaz errotuz.

Eguerdian hasi zen festa giroa kiosko inguruan. Lehenengo, txosna zabaldu zuten eta laster zabaldu zen txorizo usaina inguru guztian. Espoloitxoren jaitsiaren zain zeuden umeak eta auzoko jaietako musika entzun bezain laster agertu zen hosto itxurako panpina berdexka. Auzoko etxebizitza batetik jaitsi zen zumardira, eta neska-mutiko asko inguratu ziren auzoko panpinari

ongietorria egitera. Denek nahi zuten Espoloitxo ukitu.

Umeendako jokoak egin zituzten jarraian: marrazketa tailerra, jokoak globoekin, aulkien jokoak... azken honek arrakasta handia izan zuen, izan ere, neska-mutikoek behin eta berriz egin nahi izan zuten. Gustura ibili ziren umeak eta baita haien gurasoak ere. "Egia esan lana da auzoko jaiak antolatzea", esan zuen txosnan lanean ziharduen jai batzordeko kide batek. "Hilabete inguru ibili gara lanean, atzera eta aurrera guztia antolatzen. Eguna iritsi da eta ikusten duzu jendeak erantzuten duela, eta oso atsegin da hori".



Umeak Espoloitxori ongiatorria egiten. | IMANOL SORIANO



Haur jolasak egin zituzten eguerdian. | IMANOL SORIANO



Talde polita elkartu zen auzoko jaietako bazkaria egiteko. | IMANOL SORIANO

Arratsaldea lagun artean

Bazkaldu aurretik txikiteoan ibili ziren Espoloiko auzotarrak. Bergarako trikitilari taldearen laguntzarekin tabernaz taberna ibili ziren eta festa giroa animatzen joan zen. Buruhandien konpainia ere izan zuten triki-poteoan.

Bazkaria zumardian bertan egin zuten. Eguraldia lagun izan zuten eta koadrila polita elkartu ziren mahaiaren bueltan: 80 bat lagun inguru. Bingoak, karaokeak eta mus txapelketak ere izan zuten tartean. 16 bikote aritu ziren nor baino nor musean. Bitartean, gainerakoek karaokean erakutsi zituzten artista dohainak. Batzuk marrantak hartu arte. Auzotarrak animatuta zeudela ikusita helduendako jokoak ere egin zituzten jarraian.

Dantzaldi arrakastatsua

Iluntzean, Usain taldearen dantzaldia izan zuten Espoloian. Jendea gustura ibili zen dantzan eta antolatzaileen esanetan inguruko auzoetatik ere jende ugari etorri zen erromerian parte-hartzera. Talde zarautzarrak hiru bat orduko saioa egin zuen: pasodobleak, triki-ska doinuak... eta giro oso polita sortu zela esan dute jai batzordetik.

Erromeriaren ostean DJ Julenek hartu zuen lekukoa eta goizeko ordu txikiak arte luzatu zuten festa Espoloiko auzotarrak. "Oso pozik gaude jaiak eman dutenarekin. Auzoko jendeak erantzun egiten du, eta konturatu gara kanpotik ere etortzen dela jendea. Antolatzen koadrila eta adin ezberdinetako jendea gaude eta horrek ere laguntzen du jendea erakartzen. Ikusten dugu giro polita sortzen dela auzoan. Uste dugu saiatuko gara jaiak urtero antolatzen", esan dute batzordetik.

ARAMAIO

"Denetik eta denendako", izan dute aste bukaeran Untzillan

LARRAITZ ZEBERIO | ARAMAIO

Horrela esan digu auzo-alkate Ekaitz Zubiak. Egubakoitzean hasi ziren jaiak eta hiru egunetan bertotan, kantuan, dantzan, musean eta bolotan egin dute. Adin guztiendako ekintzak izan dituzte eta kanpotik ere joan zaie jendea bisitan, gehienbat Aretxabaletatik, Arrasate-tik eta Aramaiotik.

Egubakoitzean bertso-afaria izan zuten Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin: 50 lagun elkartu ziren. Zapatuan, berriz, umeendako pailazoak eta puzgarria izan zituzten, eta I. Mus txapelketa jokatu zen. Jose Luis Errastik eta Traillasek irabazi zuten. Bolo txapelketak ere jende ugari ekarri zuen; ehun bat lagun inguru.



Haurrak zapatuan pailazoen ikuskizunaz gozatzen. | GOIENA

ARETXABALETA



IMANOL SORIANO

Ate irekien eguna egin zuten Kuku Mikun

Egubakoitz arratsaldean atek zabalik hartu zituzten bisitari guztiak Aretxabaletako Durana kaleko 30. zenbakian. Kuku Mikuren egoitza dago bertan, eta lokala ezagutzeaz gain elkartearen nondik norakoekin ere jaso zuten bisitariak. Haurrek zein gurasoek merienda goxoa egin zuten eta jolasean ere aritu ziren. Bazkietza kanpaina dute zabalik Kuku Mikukoek. Gaur, astelehena, da izena emateko azken eguna. Interesatuak kukumikuelkartea@gmail.com helbidera idatzi behar dute.

Xabier Mendizabal | BIHEko koordinatzailea

"Lomce legeak sailkapena egiten du ikasleen artean"

- ▶ Hitzaldia egingo du bihar Kulturateko areto nagusian, 18:00etan
- ▶ Zapatuan Bilbon egingo den manifestaziorako dei egingo dute bihar

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bigarren Hezkuntzako institutu publikoen zuzendarien artean koordinatzaile lanak egiten ditu Xabier Mendizabalek (Donostia, 1956). Bihar hitzaldia egingo du Kulturaten (18:00), Lomce legearen ondorioak azaltzeko.

Zein da hitzaldiaren helburua?

Benetako beharra ikusten genuen jendea azaltzeko hezkuntza komunitatearen barruan nola eragiten duen halako lege organiko batek. Eskolaren eguneroko zereginean, gure misioan, zein ondorio kaltegarri izango dituen azalduko dugu hitzaldian.

Zeintzuk dira, zure ustez, Lomce edo Wert legeak eragingo dituen kalte nabarmenenak?

Inklusibitatearen gaia dago, bate-tik. Askotan lantzen dugu hezkuntza inklusiboarena; hau da, ikasle guztiei bermatu behar zaie aukera berdina ematea. Ikasteko eta pertsona moduan garatzeko aukera berdina izan behar dituzte guztiek eta lege honek ikasleen arteko sailkapena egiten du, nolabait. Hor arazo handi bat ikusten dugu, gure planteamenduen aurka doa zuzenean. Gu inklusiboak izan gura dugu.

Nola egiten du lege honek aipatzen duzun ikasleen sailkapen hori?

Gure ustez, tresna garrantzitsuenak dira etapan amaieran jartzen dituzten ebaluaketak. Kalte handia sortzen dute, hezkuntza jarduera proba horiek gainditzera bakarrik bideratzen dutelako. Gainera, proba horiek nolakoak izan behar duten Madrilek ezartzen du. Edukien gaia ere ezin dugu ahaztu; izan ere, edukiak oso garrantzitsuak dira ikasleen



Xabier Mendizabal. | GOIENA

"Parte hartze demokratikoaren eredu bertan behera uzten du"

prestakuntzan. Bada, hor ere sekulako aldaketa dator: Estatuak erreserbatzen ditu eduki horiek aukeratzeko portzentaje nagusia. Hori ere kalte izugarria da. Probaturik daukagu gure hezkuntza jardueran irakasleei ez bazaie aukera ematen curriculum a egiten joan eta edukien zentzuzko aukeraketa egiteko, eskolaren arrakasta oztopatzen dutela.

Hezkuntza sistema propioa izan ohi da lege honen aurka egiteaz batera datorren aldarrikapena. Zuek ere bat zatozte eskera horrekin? Bai, zalantza barik. Aspalditik

ari gara gure curriculum propioa garatzeko eskaera egiten. Eragile ezberdinekin ari gara hezkuntza sistema propioa aldarrikatzen. Baina Estatuak curriculumaren gainean erreserbatzen baditu eskumen guztiak, guk ulertzen dugu kontrol ideologiko bat dagoela. Eta hori oso larria iruditzen zaigu.

Zuzendariaren figurak botere handia hartzen duela diote lege honen aurkako eragileek. Hala da?

Frogatuta daukagu lan metodologia eraginkorrenak, ikasleen artean arrakasta maila handiena lortzen dutenak, eskola-komunitatea osatzen dugun guztion parte hartzean oinarritzen direnak direla. Hau da, irakasleen, ikasleen eta gurasoen inplikazioa ezinbestekoa da. Bada, lege honek planteatzen duena da zuzendariari ematea ia botere guztia. Beraz, guk horren barneratuta daukagun parte hartze demokratikoaren eredu bertan behera uzten du Lomce legeak. Eta beste hainbat gabezia ere baditu.

Amaitzeko, nola planteatzen duzu hitzaldia? Ikus-entzunezkoren bat egongo dela entzun dut...

Jendea aukera emango diogu zalantzak argitzeko eta, batez ere, dituzten kezkei erantzuteko. Azalpena bi ataletan banatuko dugu: batetik, diapositiben laguntza mezu argi eta zehatzak helaraziko ditugu. Bestetik, konparaketak egingo ditugu egungo egoeraren eta Lomce legearekin izango denaren artean. Eta noski, zapatuako deituta dagoen Bilboko manifestazioaren gaineko informazioa ere emango dugu, eta bertaratzeke animatu.



Harkaitz Cano idazlea Kulturateko areto nagusian. | ARTXIBOA

Harkaitz Cano idazlearen saioa etzi Kulturaten

AEDren Literaturjauzien barruan egingo du 'Kontakizuna eta katarsia' hitzaldia (18:00)

J.B. | ARRASATE

AEDren Literaturjauziak ekimenaren barruan Harkaitz Cano idazle ezagunaren bisita izango dugu etzi Kulturateko areto nagusian. *Kontakizuna eta katarsia* izenburu duen hitzaldia egingo du, 18:30ean. Literaturaren eta memoriaren arteko loturaz egingo du berba idazle lasartearrak. Hain zuzen ere, memoriak euskal literaturan duen lekuaz gain, literatura unibertsalean eta, oro har, artean duena ere aztertuko du Canok etziko saioan.

'Hitz ibiltariak', eguenean

Bestalde, *Hitz ibiltariak* atzeratutako ekitaldia eguen honetan egingo da: "Literatura eta antzerki munduan dabilzan Arrasateko lau pertsonak eskainiko dute", adierazi du AEDko Itxaro Artolak. Ekitaldia 19:00etan hasiko da Arbolapetan. Alde zaharrean gora joango dira eta lauzpabost geldialdi egingo dituzte, pintxo-poteoa dagoela aprobetxatuz. Tabernaren batera ere sartuko direla aurreratu dute. 20:00 aldera amaituko da, Seber Altube plazan.

NIRE USTEZ

ANE GOROSABEL



Ereindako hazia loratuz

Zoritxarrez ezustekoak bizitzen ohituak gaituzte, urrun geratzen zaigun munstroak behin eta berriz gogoratzen digu aske izateko bide honetan oztopoak ezartzeko jaiola dela, bere existentzia beste batzuen sufrimenduari indartzen dela eta ustezko boterea soilik bere menpe dagoela. Ase ezina da bere gosea, eta betekada honetan beharrezkoak dituen baliabideak eskura ditu, berak sortutakoak baitira, gainontzekoak zapaltzeko, etsitzeko eta desagerarazteko. Makina bat trikimalu erabili izan ditu isiltasuna, men egitea eta errenditza lortzeko.

Munstro asko daude mundu osoan zehar sakabanaturik, hel-

buru bakar bezala gainontzekoen menpekotasuna lortzea dutenak, eta imajinaezinak diren azpijokez baliatzen dira herri xumea kontrolatzeko. Inuzenteak, baina, munstro hauek, oraindik ez baitira ohartarazi etsigaitzak diren izakiak egon badaudela, lur azpitik bada ere, berpizteko gaitasuna dutenak, barruko sua inoiz itzaliko ez zaien segurtasunarekin, amets kolektibo baten erakuntzan tinko dihardutenak. Porlan arte-tik irteten diren belarrak bezalaxe etengabeko hazkundera inoiz uko egin ez dioten izakiek edonon eta edonola jarraituko dute beren bidea, argi baitute norantz jo nahi duten, beldurrik gabe, eta ez dago mundu honetan zurrumbilao eteteko kapaza den munstro ikaragarririk. Hazia ereinda dago, gainean jauzitako zaparradek sustraiak egonkortzea lortu dute, zurtoina tinko ari da gorantz, beti gorantz, eta batzuetan makaldu egiten den arren, ahalegina ez da alferrik galduko, denbora kontua da udaberria heldu eta landarea loratzea. Gora bihotzak eta aurrera bolie!



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Elkarretaratzea, "justizia soziala" eskatzeko

"Justizia soziala" aldarrikatzeko hileko lehen eguenean egiten den elkarretaratzea egin zuten Portaloian. Eraso sozialei erantzuteko herritarrak batzeko dei egin dute: "Krisi hau ez dugu guk sortu eta ez dugu guk ordainduko; politikari ustelak, bankuen egoera, etxe kaleratzeak... herritarren diruarekin jolasten dute", diote. Herritar talde bat dira: "Denok batera erantzuteko beharra dugula sentitzen dugu".

Txolarteko erabiltzaileek eta begiraleek aisialdia elkarrekin igarotzen dute

Atzegiren programa da Txolarte eta Arrasaten ere elkartzen dira zapatu arratsaldeak elkarrekin pasatzeko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Atzegi elkarteak programa ezberdinak garatzen ditu, eta horietariko bat, adimen urritasuna duten pertsonentzako Txolarte izeneko aisialdi taldeena da.

Arrasaten ere burutzen dituzte ekintzak Txolarteren baitan; Bergararekin txandakatzen joaten dira, modu horretan, zapatu bakoitzean herri batetan elkartuz, ekintzen arabera. Bospasei begiraleren gidaritzapean –gehienak gazteak eta emakumezkoak– Atzegiko 30 erabiltzaile inguru dabilta bi herriotan Txolarten, Leire Poyato begiraleak aditzera eman duenez. "Zapatutan elkartzen gara, 16:00etatik 19:00ak arte".

Begiraleak behar dituzte

Oso gustura aritzen dira bai erabiltzaileak eta baita begiraleak ere. "Kanpoko ekintzak egiten ditugu batez ere, normaltasuna bultzatu gura dugu-eta. Esate baterako, poteoan irteten gara. Baina gainera, Atzegikoek badute lokaltxo bat, eta bertan sukaldaritza tailerra egiten dugu, edo zorionetako askariak, dantzak...".

Egun dauden begiraleez gain, taldera beste batzuk gehitzea gurako lukete. "Lanean erosoago aritzeko kopuruak handiagoa izan beharko luke". Eta horretarako, begirale izan gura dutenek ateak irekita ditzutela gaineratu du Poyatok. "Ez da titulu berezirik behar, orain gauden begiraleok gure esperientziaren bitartez ikastaro txiki bat emango genio-



Txolarteko begiraleak. | TXOLARTE AISIALDI TALDEA

ke interesa duenari". Funtsezkoa den gauza bakarra gogoia edukitzea dela gaineratu du. "Azken finean, oso garrantzitsua da beraien ongizatearentzako aisiaz gozatzeko aukera edukitzea. Eta bene-benetan, beraiek horren ondo eta

horren pozik ikusteak guztiz betetzen gaitu eta hori da garrantzitsua". Hala, boluntario moduan begirale gisa aritu gura duenak txolartebergara@atzegi.org helbidera idatzi edo 680 53 80 62 telefonora deitu dezake.

Musakolako Gazteen Eguna ospatuko dute

Jolasak, grafitiak zein herri bazkaria nagusituko dira urriaren 12an, zapatua, Herri Eskolan

Z.V.D.M. | ARRASATE

"San Isidro jaietatik dator Musakolako Gazteen Eguna antolatzekeo ideia. Herri bazkarian haurrentzako menua egotea eskatu izan dute, eta hori barik, hemengo gazteei –7-15 urte bitartekoei– zuzendutako egun bat antolatu dugu". Hala azaldu du Iban Goñi auzo alkateak.

Herri Eskolako jolastokia izango da gune nagusia: "Goizean haurrentzako jolasak egongo dira, puzgarriak eta aurpegia margotzeko tailerra, besteak

beste. Herriko neska-mutil denek izango dute parte hartzeko aukera". Herri bazkaria ere egingo dute, auzoko gazteentzako soilik: "Makarroiak eta solomoa izango dira menuan. Izen-emate egunean bertan egin behar da". Eta bazkalosterako ere hainbat ekintza antolatu dituzte. "Grafitiak, herri kirolak, tailerrak eta Repelencia taldearen emanaldia".

Jai batzordeko kideekin batera, Gaztetxokokoak ere arituko dira laguntzen zapatuan.

The Hot Wok talde gasteiztarra Koolturen

Egueneko kontzertuan 'Main dish' izeneko bigarren lana aurkeztuko dute arabarrek

Z.V.D.M. | ARRASATE

Talde gasteiztar bat igoko da eguen honetan Arrasateko Gaztetxeko oholtzara. Hain zuzen ere, Kooltur Ostegunak ekimenak The Hot Wok taldea ekarriko du bertara eta 22:00etatik aurrera askotariko doinuz blaituko dute ingurua arabarrek.

Funk, jazz eta elektronikak doinuak nahasten dituen taldea da The Hot Wok, eta helikoia, saxoa, tronboia, bibrafono eta

bateriaren laguntzarekin erritmo handiko kantuak jo eta ikus-entzuleak dantzan ipiniko dituzte.

Berritasunak ere ekarriko dituzte The Hot Wok taldeko kideek, euren bigarren lana aurkeztuko baitute gaztetxean. Hala, *Main dish* diskoak eman dituenak zuzen-zuzenean ezintun ahal izango dituzte Kooltur Ostegunak ekimenera bertaritzen direnek.

Lau eguneko pilates hastapen ikastaroa egingo dute kiroldegian urriaren 21ean hasita

Aukeak pilates hastapen ikastaroa antolatu du; urriaren 21ean hasiko da eta 4 saio egingo dituzte. Astelehen eta eguaztenetan 20:30ean elkartuko dira Musakolako kiroldegian; martitzen eta eguenean, ostera, 15:00etan edo 19:30ean. Izena eman behar da parte hartu gura izanez gero; bazkideek 19,10 euro ordaindu beharko dituzte eta 29,10 euro aldiz, bazkide ez direnek.

1955. urtean jaiotakoak urriaren 19an elkartuko dira aurten eta bazkari bat egingo dute Saran

Urriaren 19an elkartuko dira aurten 1955ean jaiotako arrasatearrak. Hala, antolatzaileek bazkaria antolatu dute egunerako; Saran izango da, eta gura duten guztiei izena eman beharko dutela ekarri dute gogora. "Ez utzi azken momenturako, animatu eta eman izena lehenbailehen!". Horretarako bidea Laboral Kutxako kontu korrante honetan 60 euro sartzea izango dela gaineratu dute: 3035 0202 742021042311.

'The Trip' filma eskainiko dute bihar Amaia antzokian martitzenetako zinearen baitan (20:30)

Astero bezala zine eskaintza egongo da bihar, martitzena, Amaia antzokian, 20:30ean hasita. Michael Winterbottom zinemagilearen *The Trip* komedia eskainiko dute. Bertan, herrialdeko jatetxerik onenak bisitatzeko hautatzen dute protagonista, eta neska-lagunarekin joaten da bidaiari, neskak uzten duenera arte. Lagun bitxi batekin amaituko du jatetxeetako bira azkenean.



JESUS MARI APRAIZ

**Musakolako
50 lagunek
Polonia
ezagutu dute**

Alderik alde zeharkatu zuten Polonia argazkiko lagunek irailean. Guztira Musakolako 50 gizon eta emakume animatu ziren mailetan egin eta lurralde haiek ezagutzera. Hamar egunetan zehar Varsovia zein Krakovia bisitatu zituzten, besteak beste. Kultura eta paraje berriak ezagutzeko aukera aprobetxatu zuten eta ederto igaro zutela eman dute aditzera.



Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen taldearen ¿Dónde está la pierna del alcalde? antzezlanaren une bat. | GOIENA

Zinema, bakarrizketak eta musika urriko egitarauan

Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak azken lana erakutsiko du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Urria hasi berri dugu eta Udalak kaleratzen duen kultura agenda bete-beteta dator.

Egubakoitzean izan zen Txalo antzerki taldearen *Hiru* helduendako antzezlanari, hilaren 18an egongo den helduendako beste bat gehituko zaio: Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarte-ko Ikusi Makusi antzerki taldeak *¿Dónde está la pierna del alcalde?* izeneko antzezlanara egingo du 17:30ean, Zabalotegi aretoan. Sarrera dohain izango da.

Pedro Mario Herrero idatzitako *No le busques tres piernas* lanaren moldaketa da. Alkatearen hanka ortopedikoaren bila jardungo dute ordu eta erdian taularen gainean egongo diren bederatziko aktoreek. Historia irudikatze-ko bi dekoratu izango dituzte;

batetik, egongela bat; eta parrokiako bulego bat, bestea. Talde horrek aurretik taularatu dituen aurreko lanek moduan, oraingoak ere humorea oinarri duen istorioak harrera ona izan zuen Oñatiko taldeak herrian aurkeztu zutenean. Hain zuzen, joan den azaroan estreinatuta zuten, Asun Artzuagaren zuzendaritzapean, eta ordutik, herri askotan antzeztu dute.

Bakarrizketak gaztetxean

Datorren astetik aurrera, hau da urriaren 11n hasita, umorezko bakarrizketak egongo dira kartzela zaharretan, 22:30ean, Bergarako Gazte Asanbladak antolatuta.

Hilaren 11n, Jon Plazaolak eta Aitor Navarrok egingo dituzte bakarrizketak; hilaren 18an,

Txiki-ren lana ikusteko aukera egongo da eta baita *Gozamenez* izeneko bakarrizketa *Pituxa* klown-aren eskutik. Bakarrizketa sortari amaiera emateko, urriaren 25ean, *Xustin sermoia* eta *Alopecia en la lengua* entzuteko aukera egongo da.

Zinemari dagokionez, Zabalotegiko film komertzialen emandiek zein zine-klubekoek jarraituko dute. Zine-klubari dagokionez, eguaztenean, hilak 9, *Amor es todo lo que necesitas* amodiozko komedia ikusteko aukera egongo da, 20:00etan. 16an, *Blue Valentine* emango dute eta 23an, *Golpe perfecto*.

Zinema komertzialari dagokionez, urriaren 13an, umeendako *Jack el caza gigantes* emango dute 17:00etan, eta 19:30ean, berriz, *El Hobbit; un viaje inesperado*.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Non zauria han mihia

Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen jaialdi erraldoia Tolosan ospatu da. Hendaia Ikastolaren egoera larria eta Iparraldeko guztiena orokorki kontutan izanik proposamen serio bat eginaz natorkizue.

Oraintsu Hendaia Ikastolari inongo diru publikorik ez emateko ordena jaso zen Pabeko epaitegitik. Falloux lege zaharkitua indarrean dagoen bitartean Iparralde osoko ikastolatan aplikatuko delarik. Gertaera mingarri honen aurrean, ikastola maite duen pertsona baten garrasia plazaratu nahi dut: "Hegoaldeko ikastolen zein herritar ororen laguntza derrepentean eta eskuzabalez ez bada aktibatzen, Iparraldean euskara kinka larrian ez ezik hil zorian aurki daiteke".

Proposamen zehatza eta solidarioa honako hau da. Urte bi barru hasita Hegoaldean, Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki egiten diren ikastola jaialdiak, Ipar Euskal Herriko ikastolen onurarako modu zuzenean –ikastola berriak eraikitze edo handitzeko premia duenei– laguntzea. Hau da, Kilometroak, Ibilaldia eta Araba Euskaraz jaialdietako laguntza ekonomikoaren %75a zuzenean entregatzea. Modu horretan, epe laburrean ikastola mordoska bat gehiago izango genituzke eta bide batez, solidaritate efektiboa eta baita ere federazioen arteko elkarkidetzaren osasuntsu bihurtu. Non beharra-zauria, han mihia. Jomuga berriak, maila goragoko iniziatibak lantzea ezinbestekoa da geure nortasuna suspertzeko eta aberri zentzua hedatzeko.

"Iparraldean euskara kinka larrian ez ezik, hil zorian aurki daiteke"

Dagoeneko 250 lagunek eman dute izena hilaren 13an ibaia garbitzeko

Deialdia erabat irekia da eta interesatuek oraindik ere eman dezakete izena

M.B. | BERGARA

Urriaren 13rako egin duten ibaia garbitzeko deialdia forma hartzen ari da. Auzolanean garbitu nahi dute eta dagoeneko 250 lagunek eman dute izena.

Deba ibaia garbitzeko deialdia Mankomunitateak egin du eta asmoa da Eskoriatzatik Soraluzeainoko ibai zatia garbitzea, Oñatira ere helduta. Bergarari dagokionez, Epeletik Osintxura arteko zatia garbitu nahi dute herritarrez osatutako brigadek.

Garbiketa lana ondo antolatzen hasteko, hiru puntu nagusi zehaztu dituzte: Labe-garaietako kiroldetgia –San Antoniotik Epelera bitarteko

zatia garbitzeko–; San Martin plaza plaza – erdigunea, poligonoa eta Mekolalderainoko zatian ibiliko direnak– eta Osintxu –auzo inguruko zatia–. Hitzordua 08:30ean da.

Izen-ematea zabalik dago

Deialdia erabat irekia da, 500 bat lagun batu nahiko litzuzke deitzaileek eta izen-ematea zabalik dagoela ekarri dute gogora. Agorrosinen, kultura etxean edo Udaltzaingoa eman behar da izena eta posta elektronikoz ere egin daiteke, mezua bidalita errekagarbitzeko@gmail.com helbidera. 14 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta adingabeek gurasoekin parte har dezakete.

Julen Arana omendu du San Migel-pe elkarteak

San Migel-pe elkarte-ko bazkideek afaria egin zuten aurreko egubakoitzean. 35 bat bazkide batu ziren eta menu ederra eta giro aparta izan zituzten. Gainera, bazkideetako bat omendu ere egin zuten, urtero bezala. Aurtan, Julen Arana izan da omendua eta erlojuak jaso zuen opari; Martin Agirrezabal presidenteak eman zion.



AITOR ARANTZABAL

OHARRAK

1960KO KINTOEK AFARIA EGINGO DUTE 19AN

Zumelaga jatetxean izango da eta urriaren 12a baino lehen eman behar da izena Igarza harategian (Alicia) edo Barrenkaleko estankoa (Josefina), 10 euro aurreratuta.

1967AN JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE 19AN

Etxagin izango da eta interesatuek izena eman behar dute hilaren 16a aurretik, Elkar fotokopia dendan, 20 euro aurreratuta. Kintada egunean 20:00etan elkartzeko dira, Infernokuan.



Emakumea ontzia pintatzen. | TODOHABITATES

Ikastaroak

ORRATZ LANAK
Astelehen eta martitzena,
14:30-17:00 / 17:30-20:00

ESKULANAK
Martitzena, 15:00-17:00 /
18:00-20:00.

BITXIGINTZA
Eguena, 18:00-20:00
Bi ikastaro: hastapeneko
eta aurreratua

PINTURA
Astean birritan, heldu, haur
eta gaztetxoendako

ZERAMIKA
Astean birritan, heldu, haur
eta gaztetxoendako

Arantzazuko mezako kantuak bi CDtan batuta

Arantzazuko oroigarri dendan eta Oñatiko turismo bulegoan erosi daiteke 15 eurotan

I.G. | OÑATI

Hogeiabost kanta batu dituzte Arantzazuko frantziskotarrek bi diskotan. Meza nagusian abestu ohi dituzten abestiak dira guztiak ere. Hala, *Arantzazu. Meza Nagusiko kantuak* izenburupean kaleratu dute. Disko bakoitzak, baina, izen propioa du: *Bedeinkazioa* izena du batek eta *Bakearen zoriontasuna* bestek. Liburuxka batekin datoz diska biak; liburutxo horretan CDeetan graba-

tu dituzten kantuen letrak datoz idatzita.

Fraideez gain, Santa Anako mojek eta Arantzazuko koruak ere hartu dute parte diskoen grabazioetan. Iñaki Beristainek egin ditu zuzendaritza lanak. Eta bestetik, Pello Zabalak jotzen du organoa eta Xabier Ugartek, gitarra.

Arantzazuko oroigarri denda eta Oñatiko turismo bulegoan erosi daitezke biak 15 euroren truke.

Euskal Herriko bertso txapelketa nagusiko finalerako sarrerak Txokolateixan daude salgai

Abenduaren 15ean jokatu da Euskal Herriko bertso txapelketa nagusiko finala, BECen, eta saio horretarako sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan. Finalerako sarrerak 30 euro balio du, bazkariokoak 18 euro eta autobusekoak, 13 euro. Finalerako sarrerak arruntak dira, hau da, Bertsozale elkartereko ez bazkideentzat dira. Bazkideek, beraien onura izateko, internet bidez erosi ahal izango dituzte.

Bi astez itxita egon ostean, bihar irekiko ditu atek berriro ere igerilekuak, mantentze lanak bukatuta

Urteroko garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko itxita egon da igerilekua azken bi asteotan. Gune bustiko elbarrituen aldagela berriro dute eta baita igerilekuen ur biltegietan mantenu lanak egin ere. Behin lanak amaituta, bihar (urriak 8), irekiko ditu atek. Hala ere, arratsaldez bakarrik izango da. Izan ere, jaiak direla-eta itxita egongo da Zubikoa kiroldegia 14:00ak arte.

NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA



Aurpegira barre!

Pasa den ikasturtean irakasle ikasketak hasi nituen HUHEZIn. Euskara, EUSKAL GIROA eta euskal ikasketa-irakaskuntzaren garrantzia azpimarratu ziguten lehenen unetik, horren aldeko apustu garbia egiten baitute. Beraz, zentzuzkoena da gure unibertsitateko giroa ere euskaraz izatea. Sartu ginen klasera eta irakasleak honen inguruan mintzatzea erabaki zuten halako erdal kutsadura edo poluzio bat nabaritzen zuelako. Egia zen giroa oso espainolizatua zegoela, are gehiago, zegoen giro euskaldun urria apurka-apurka erdararazten joan zen. Irakasleak, hau adatu nahian, galdetu zigun: "Zergatik uste duzue dela hain

garrantzitsua euskara eta euskal transmisioa?" Erdal giroa zabalzen zuten gehienek erantzun prefabrikatuak bota zituzten, guztiak bihotzez sentituko balute legez: "Artzek esaten zuen moduan hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"... eta tanke-rakoak. Hau harro-harro esan ostean eseri eta ondokoarekin gaztelaraz mintzatzen hasi ziren. A zer nolako haserrea etorri zitzaidan bat-batean! Oraindik horrelako gauzak jasateko arazoak ditut. Eta gauza pare bat esateko gogoia ere banuen... baina ezin ezer esan. Orain esango dut, bada: Jendeari aurpegira barre egitera nor bere etxera joan dadila!!! Eta euskaraz bada, askoz hobe. Eskerrik asko.

"Nolako haserrea etorri zitzaidan bat-batean!"

Eman daiteke izena Udal ikastaroetan bihartik

Aurten, ohiko eskaintzaz gain, aldiari aldikako ikastaroak eskainiko dira

IRATI GOITIA | OÑATI

Badatoz beste urte batez udal ikastaroak eta aurten ere askotarikoa da eskaintza, besteak beste: orratz lanak, eskulan dekoratiboak, bitxigintza, pintura eta zeramika.

Izenematea bihartik zabalik

Interesa duenak bihartik, martitzena, aurrera du izena emateko aukera hilaren 19ra bitarte. Kultur etxean egin daiteke arratsalde (16:30etatik 20:30etara) edo mezu bat idatzita honako helbide elektronikora: kultura.idazkaritza@oinati.net.

Matrikulazio epea berriz, urriaren 21etik 31ra izango da. Ordaindu beharrekoa 75 euro helduek eta 55 euro haur eta gaztetxoek. 40 orduko ikastaroak

izango dira. Bitxigintzaren kasuan, baina, ikastaro bakoitza 10 orduko izango da (matrikulazioa 25 euro da).

Orratz lanetan Arantzazu Lizarralde izango da irakaslea, eskulanetan Jasone Agirre, bitxigintzan Inma Graña, pinturan Luis Laskurain eta Lexeia Larrañaga eta zeramikan Arantxa Madinabeitia. Bitxigintzan bi ikastaro izango dira: hastapeneko eta aurreratua. Bestalde, pintura eta zeramikan heldu zein haur eta gaztetxoek zuzenduko da eskaintza.

Eskaintzako plazak baino jende gehiago apuntatuko balitz, aukeraketa zozketa bidez egingo da. Taldeak osatuta nola geratzen diren eta behin betiko egutegi eta ordutegiak urriaren 21ean

arratsalde jakinaraziko dira kultur etxeko harreran.

Irratigintza ikastaroa

Urteroko eskulan ikastaroez gain, ikastaro laburrak ere egingo dira hiru hilean behin edo, Udalak antolatutako eskaintza osatzeko helburuarekin. Hala, Oñati Irratigintza egingo den ikastaroak eman go dio hasiera berrikuntza honi. Kasu honetan, 12 orduko ikastaroa izango da, 14 urtetik gorakoentzat. Izen-emate datak eta modua beste ikastaroen berdina da, baina kasu honetan doakoa da. Bi egunetan egin daiteke ikastaroa: egubakoitzetan (17:00-19:00) edo zapatuetan (11:00-13:00). Ikastaroa azaroaren 9an edo 10an hasiko da, aukeratutako egunaren arabera.

Oñatiera lantzeko eta ostalariendako ikastaroa prestatu ditu Euskaltegiak

Urriaren 21ean hasiko da bata eta azaroaren 8an bestea; bietan eman daiteke izena oraindik

O.E. | OÑATI

Oñatiko Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak bi ikastaro berri antolatu ditu datozen asteetarako. Horieta bat da oñatiera lantzeko ikastaroa, eta bestea, ostalaritzako langileendakoa.

Izenematea, zabalik

Antolatu dituen bi ikastaroetan laburrena, herriko hizkera lantzea

helburu duena da; 12 orduko izango da, hain zuzen ere. Azaroaren 8an hasi eta abenduaren 20an amaituko da ikastaro hori eta sei ostiraletan irakatsiko dute, 18:00etatik 20:00etara. Gehienez, 15 ikasle onartuko dituzte taldean. Interesa duenak, izena eman dezake jada, matrikula epea hilaren hasieratik zabalik dago-eta urriaren 31ra arte.

Ostalaritza arloan diharduten langileendako antolatutako ikastaroa, berriz, bestea baino luzeagoa da; 60 orduko izango da eta astelehenetik egubakoitzera, egunero ordu eta erdiko jarduna beteaz osatuko da. Urriaren 21ean hasi eta abenduaren 18an amaituko da. Taberna edo jatetxe batean dihardutenei egokitutako ikastaroa da: eguneroan behar duten oinarriko hiztegia edo gertatzen diren egoerei aurre egiteko oinarriko hizkuntza ikasteko aukera ematen duena. Oraindik aukera dago ikastaro horretan ere izena emateko.

Ikasturte osoko ikastaroekin batera, kolektibo jakin bati zuzendutako ikastaro laburrak eskainiko ditu Euskaltegiak aurten ere, eta horren adibide dira antolatu dituzte bi hauek.

ESKORIATZA

Garagardo festak plaza hartuko du asteen

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eguenean, hilak 10, hasiko da Eskoriatzako garagardo festa. Plazan jarriko duten karpak 18:00etan zabalduko ditu ateak,

eta gauerdian itxi. Askotariko garagardoak probatzearekin batera, aurten ere patata-tortilla pinxoak saltzeko asmoa dute, eta horretarako herritarren parte

-hartzea behar dutela gogorarazi dute antolatzaileek. Festak irauten duen lau egunetan, tortillak prestatzeko gertu daudenek karpak eroin behar dituzte, gunea zabaldu baino lehen.

Egubakoitzetik domekara bitartean 13:00etatik egongo da zabalik eta ekintza bereziak ez dira falta izango: egubakoitzean, 18:00etan, Alaitz mexikar taldeak joko du; 20:00etan, Malenkoniak; 22:30ean, Burrumba Kelele batu-kadak; eta 23:30ean, Eko D Bull Bagaudak. Antolatzaileek nabarmendu dute talde horiek debalde joko dutela, eta horren bueltan, eskerrak eman gura izan dituzte modu batean edo bestean garagardo festan lagunduko dutenei. Horretan batzen den dirua zaharren egoitzara bideratuko da.



Joan den urtean giro ederra izan zen karpan. | GOIENA

Udalak bi peoi kontratatuko deialdia egin du

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak bi peoi kontratatuko ditu urrian. Interesatuek honako baldintzak bete behar dituzte: Lanbiden izena emanda egotea, Eraikuntzako Txartel Profesionala izatea, Eskoriatzako Udalean errolatuta egotea 2011ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik eta joan den urtean programa horretan parte hartu ez izana.

Horretarako izen-ematea Lanbiden egin beharko dute urriaren 11n baino lehen; kontratua bost hilabetekoa izango da eta lanaldia %100ekoa izango da.

Arte sorkuntza ikastaroan izena eman daiteke

M.B. | ESKORIATZA


Eskoriatzako Gazteria Zerbitzuak eta Mantalhari proiektuak elkarlanean 5 eta 11 urte bitarteko umeendako ikastaroa antolatu dute. Besteak beste, sormen eta marrazketa tailerra, birziklapen tailerra, musikaterapia, artearen historia eta papiroflexia landuko dituzte hurrek.

Gaur hasi eta hilaren 17ra arte eman daiteke izena honako tokietan: *mantalhari@gmail.com* eta *gazteria@eskoriatza.net* posta elektronikotan, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo kultura etxean. Hileko kuota 22 euro da.

ARETXABALETA

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA



Inbidia apur bat

Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioen erakargarritasunaz hizketan jardun ginen aurrekoan bertsolari bat eta biok. Nik zalantza agertu nion saioak irauten duen bi ordu eta erdi pasatxoak luzeegi egingo ez ote zitzaizkidan, saiora entzutera joanda. Azken urteetan ohitu naiz ondoren saioez -orain zuzenean ere bai, Twitterren- idatzi beharretik saioak ofizioak eskatzen duen arretaz jarraitza eta aztertza. Saioa onetik ala erdipurdizkotik joan -denetik izan ohi da- eta txapelketatan, eskatzen didan arretak eta ostein idatzi beharrekoaren ardurak erakargarri egiten dit saioa. Zalantza nuen

bertsozale txapelketazalea ote nintzen.

Zehatz ez dakidala nola, gaia irten zen astebeteren buruan beste bertsolari batekin elkarriketan ari nintzela. "Nola ezetz?", galdetu zidan, eta, galdera horrek normalean erantsita dakarren legez, azalpena eman zidan: lagunekin geratu saiora joateko, jan, edan, animatu, ondokoarekin komentatu, mila pertonekin -ala milaka, saioaren arabera- sentimenduak konpartitu -bertsoenak eta bertsolarienak, eta euskararenak eta Euskal Herriarenak-, hunkitu, animatu, txalo egin, kotxean gauez lagunekin hori guztia elkarrekin bizi izanda itzuli...

Eta aitortu behar dut: une horretan inbidia apur bat sentitu nuen.

"Zalantza nuen txapelketazalea ote nintzen"

Liburutegiak irakur punturako marrazki lehiaketa antolatu du

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaleako Udal Liburutegia datorren urteko irakur puntua gertatzen hasi da, eta aurten, irakur punturako marrazki lehiaketa antolatzea erabaki du. 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketa horretan eta irabazleak 200 euro jasoko ditu.

Lanok lau baldintza tekniko bete beharko dituzte: tamainari dagokionez, 21 zentimetroko altuera eta 5,6 zentimetroko zabalera izan beharko du marrazkiak. Bestetik, gaia eta teknika libreak

badira ere, irudiaren ondoan leloa eroin beharko du. Laugarrenik, marrazkiek argitaratu bakoak izan beharko dutela azaldu dute antolatzaileek.

Azaroaren 8a arte

Irudiak liburutegira eroin behar dira azaroaren 8a baino lehen. Bi gutun-azal aurkeztuko dira, azalean leloa idatzita dutela: barruan, gutun-azal batean tolestu gabe dagoen marrazkia sartuko da; eta bestean, egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia.



2013/2014 IKASTURTEA IKASTAROAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ) KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa	UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan	80
		UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	80
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
		UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30
(FMEO110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG eta (FMEO210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsitzailearekin soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
		UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
		UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea	UF1672 Oxigas soldadura	70	
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA eta (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANTARIOA	MF0251_2 Etxeko laguntza eta elikadura familiarra	UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldea famili unitatean	60
		UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	40
	MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa	UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala	30
		UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza	50
UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen komunikazio teknikak	50		

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEO110 Soldadura elektrodo estaliekien eta TIG

680

DOAN

Altueran lan egitea
Garabietan lan egitea
Eskorgan lan egitea20
20
20

DOAN



heziketa formazio profesional



IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA
Asteleneetik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO





Konposta egiten ikasteko bigarren bilera egin zuten Sastiñan. Herritarrek "interes handia" erakutsi zuten. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Konposta egiteko tailerrekin pozik, herritarren konpromisoa neurtuko dute

Konposta egiteko herritar kopuru minimo bat behar du Udalak edozein inbertsio egin aurretik; joan den egueneko saioan 15 bat lagun elkartu ziren

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak eta Zuiako Tokiko Agenda 21 egitasmoak norberak konposta egiteko aukera eskaini gura die aramaioarrei. Horretarako, tailer bat egin zuten uztailean, eta, orduan jende gutxi enteratu zenez, joan den eguenean ekimena errepikatzea erabaki zuten.

Joseba Sanchez Iruñeko Vernicam enpresako konpostatze arloko arduradunak gidatu zuen tailerra: "Herrian dagoen interesa eta ezagutza maila neurtu gura ditugu. Horretarako, hondakinen kudeaketaren arloan zein puntutan gauden azaldu dugu, eta, behin hori jakinda, konposta nola egin daitekeen ere aztertu dugu". Izan ere, Aramaio konposta egiteko herri "ezin aproposagoa" dela uste du Sanchezek.

ASEkoak bereziki interesatuta Uztaileko lehen bilera "teknikoagoa" izan zela gogoratu du adituak: "Konposta nola egiten den arlo teknikitik landu genuen orduan, eta, ikusita hitzaldi horretara agertu zirenen inte-

resa, pentsatu genuen bigarren saio honetan Aramaion konposta egiteko aukera onenak zeintzuk izan daitezkeen aztertzea". Hitzaldiaren hasieran adierazi zuenez, "nahi beste" mozteko eskatu zien bertaratutakoei: "Nahiago dut etengabe mozten aritzea eta edozein zalantza galdetzea, saio guztia bakarriketa bat izatea baino". Saioa nahiko hotz hasi bazen ere, amaierarako herritarrek ez zuten lotsarik izan zalantzak galdetzeko; 15 bat lagun elkartu ziren.

Jon Toña Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikaria ere

bertan egon zen, eta, saioa amaitu ostean esan zigunez, "balorazio ona" egiten dute: "Jendea pozik joan dela esango nuke, interes handia erakutsi dute gehienek". Aramaioko Sagardogileen Elkarteko kideak ere egon ziren eta haiendako bereziki interesgarria izan zela uste du Toñak: "Sagarraren hondakinak kudeatzea arazoa da euren dako, eta, horregatik, oso interesatuta daude konpostaren gaineko xehetasunen berri izateko. Bada, azalpenak jaso ostean elkarteko kideen artean eztabaidatuko dutela esan zuten".

Udala, konpromiso bila

Udalak edozein proiektu abian jarri aurretik konposta egiteko herritarrek duten interesa eta konpromisoa neurtu gura ditu. Beraz, orain, hausnarketarako unea da: "Herritar kopuru minimo bat lortu gura dugu konposta egiteko gertu egongo dena eta horren arabera hasiko gara egin beharreko inbertsioak aztertzen", adierazi zuen Toñak.

ESANAK

"Herritar kopuru minimo bat lortu gura dugu gertu dagoena"

JON TOÑA | TOKIKO AGENDA 21

ANTZUOLA

Gaur itxiko dituzte Sanjosepeko eta Sagastiko sarrerak, obregatik

Lanak Sanjosepeko horma egonkortzeko eta Sagastiko lurra berdintzeko etengabeko dituzte

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Gaur bi obra hasiko dituzte herrian: batetik, Sanjosepe kaleko errepide ondoko horma egonkortzekoak eta bestetik, Sagasti kalearen amaieran lurra berdintzeko etengabeko dituztenak.

Aurreikusitakoak, Sanjosepeko lanek hiru edo lau aste iraungo dute eta bitarte horretan

horko sarrera itxita egongo da. Sagastiko obrek bi hilabete iraungo dute eta sarrera ere itxita egongo da epe horretan.

Egoera horrela, Lapatzako sarbidea, Kalebarrenen, eta Antigua ermitakoa egongo dira erabilgarri. Eta irten ere puntu horietatik egin beharko da. Ondorioz, autobusa Antiguako gera-

lekuan bakarrik geldituko da. Ostiraleroko azoka, berriz, Herriko Plazatik frontoira lekualdatuko da.

Haur Dantzari Eguna

Domeka honetan etengabeko dute bi urtean behin ospatzen duten Haur Dantzari Eguna. Inguruko herrietako dantzariak ere etorri ohi dira eta aurten 150 ume espero dituzte Oinarin dantza taldeak. Umeek herritarren etxeetan bazkaltzea da asmoa eta hauek hartzeko prest daudenek izena emateko epea eguenean amaituko da. Martin okindegian, Itzar liburu-dendan edo Nerea mertzerian apuntatu daitezke.

ELGETA

Bultzatzaileak gustura 'Ontziratuz' kanpainaren emaitzekin

Jakinarazi dute irailean 500 erosteta baino gehiago egin direla plastikozko ontziak erabiltza

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bultzatzaileen esanetan bide onetik doa uztailean Elgetako udalak, Ekogunek eta Kutxabankek elkarlanean martxan jarritako *Ontziratuz!* kanpaina. "Udaletxetik elgetarrak zoriondu gura ditugu eta baita animatu ere erostetak egiteko orduan plastikozko ontziak erabiltzera", adierazi dute Udaletik. "Gogoratu gura dugu oraindik plastikozko ontzirik eskatu ez duenak aukera daukela horretarako bai kanpaina honetan bidelagun ditugun Amagoia arrandegian, Goikoetxe harategian eta Ugari dendan bai udaletxean. Esan etxeko ontziak ere erabil daitezkeela erostetak egiteko".

Plastikozko ontziarekin erosteta egiten duen bakoitzean zozketa baterako zenbakia jasotzen du, gainera, erosleak. Hala, honakoan, iraileko zenbaki sarituak dira: 48 Ugari dendan, 427 Goikoetxe harategian, eta 477 Amagoia arrandegian.

Auzo-konposta

Udalak jakinarazi du, bestalde, konposta egiteko interesa duten herritarrek urriaren 15era arteko epea dutela izena emateko. Ekimenak herrian harrera ona izan duela adierazi dute, hala luzatu egin dute izenemate epea. Kalkulatzen dute 85 familiak dihardutela konposta egiten: gutxi gorabehera 220 pertsona — herritarren %20—.



Amagoia arrandegian plastikozko ontziarekin erosteta egiten. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Ludotekako espazio berria, gertu eta eder

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gertu-gertu dute ludotekako espazio berria Gurelek antolatutako zerbitzu berria eskaintzeko: etxeko lanen errefortzurakoa. "Bertako liburutegia egokia iruditu zaigu horretarako. Egokitu egin dugu, eta gertu dago neska-mutikoei etxeko lanak egiteko erabil dezaten", adierazi du Inaxio Gabilondo Gureleko kideak.

Bi modutan erabili ahaliko da zerbitzu hori: egunero, nor-

bere kontura. Edo astelehen eta eguaztenetan, 17:30etik 18:30era bitarteko ordutegia bereziki horretarako bideratuko dute, ludotekako begiralde bat zeregin horretarako izango da-eta.

Bi begirale

Hain zuzen ere, ludotekaz arduratuko diren bi begiraleek txandaka jardungo dute zerbitzu hori ematen: Beñat Agirreurretak eta Garazi Orobengoak, hain zuzen ere.



Ludotekako espazio berria, begirale eta neska-mutikoei. | A. LARRAÑAGA

Goiena Klubeko urriko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Debagoiena
BASERRI
SAREA
Auzolanen Zuzen

Otarra
DEBAGOIENEN BASERRI SAREri
esker baserriko produktuez osaturiko
4 otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea



**Realeko
ekipamendua**

**Etxeko txikiarentzat Realeko
ekipamendua.**

Parte hartzeko sariaren izena: **LORAMENDI**
Reala **INTERSPORT**



<http://harremendenda.wix.com/arrasate>

HARREMAN

Otarra
HARREMAN DENDari esker bidezko
merkataritzako produktuez osaturiko **2**
otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



PAMIELA
argitaletxea

Liburuak
Nola sentitzen zara?, Matiasen ametsa,
Hartza ehizatza goaz umeentzako
hiru liburu sorta

Parte hartzeko sariaren izena:
Liburu sorta



PAMIELA
argitaletxea

DVD-Liburuak
Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren
Paradisua eta katuak errezitaldiaren hiru
DVD-liburu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Paradisua eta katuak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen atzo Antzuolako taldeak

- ▶ Hiru gol egin zizkioten Estalan Lasarteko taldeari
- ▶ Lau partiduren ostean oraindik ez dute galdu

EMAITZA

ANTZUOLA

3-0

OSTADAR

FITXA TEKNIKOAK

Antzuola: Iturbe, Del Pozo, Asensio, Zabala, Lete, Longares, Godoy (Linazisoro, 85. min.), Larrea (Arana, 67. min.), Sanz, Arantzabal (Ibabe, 92. min.), Zubikarai (Zabalo, 92. min.).

Ostadar: Hernando, Gartzia A. (Rodríguez, 79. min.), Gonzalez, Arrondo, Perez, Manero (Paniagua, 62. min.), Utiel, Mayoz, Paiño (Sanchez, 71. min.), Aizpurua eta Gartzia B (Altolagirre, 62. min.).

Bestelakoak: Zaleek estu hartu zuten epailea, errespetua faltatzeraino.

LARRAITZ ZEBERIO | ANTZUOLA
Antzuolan pozik ziren atzo partidu amaieran. Lasarteko Ostadar taldearen aurkako norgehiagoka

3-0 amaitu zen. "Pozik gaude emaitzarekin, baina partidu gogorra izan da", zioen norgehiagoka amaieran Josu Zubikarai jokalaririk.

Sarrera gogorrek egon ziren partiduan, eta jokalariek batek baino gehiagok hartu zuten min. Kolpe larriena amaierako minutuetan Antzuolako jokalariek Imanol Arantzabalek hartutakoa izan zen: sorbalda bere tokitik irten zitzaion, berriz ere.

Lehen zatiko gola

Partiduko lehenengo gola polita izan zen: Hasier Larreak egin zuen gola, 22. minutuan ezkerreko hankarekin jaurtiketa indartsua eginda. Baloia zuzenean joan zen Lasartearren ateko sarera.

Ostadarrekoak saiatu ziren erasoan, eta atsedeneren aurretik pare bat jaurtiketa arriskutsu egin zituzten, baina esan beharra dago Antzuolako atezain Jon Iturbe oso ondo aritu zela. "Atezain oso ona dugu bai", esan zuen Zubikarai. "Mailako onenetariko bat izango da, eta gaur ere erakutsi egin du hori". Hala, atsedenean 1-0 jasotzen zuen Estalako markagailuak.

Beste bi golak

Etxekoen lehenengo golaren ostean dezente zatartu zen giroa Estalan. Lasartearrek epailearen erabaki asko kritikatu zituzten futbol zelai barrutik zein kanpotik, eta areagotu egin zen tentsio maila. Bigarren zatiko lehenengo minutuetan Jon Iturbe atezaina nabarmendu zen, berriz ere, hiru bat geldialdi ikusgarri egin zituen eta.

Orduan, Antzuolako bigarren gola iritsi zen. Josu Zubikarai egin zuen 76. minutuan. Buruz egin zuen, eta min ere hartu zuen beste jokalariek batekin aurrez aurre talka eginda.

Etxekoen bigarren gola sekulako kolpea izan zen Lasartekoendako. Falta gogorrek ikusten jarraitu genuen Estalan. Hala ere etxekoen hirugarrena iritsi zen. Asier Longerasek egin zuen txilenaz 85. minutuan, eta ia ustekabean.

Antzuolako helburua, aurtentzen, mailari eustea da. Ondo ari dira oraingoz jokatutako partidu guztietan batu dituzte eta puntuak. Datorren astean ere etxean jokatuko dute. Aurrera taldea izango dute kontrario.



Antzuolako jokalaria erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Sarrera gogorra egon ziren partiduan. | J.A.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hondarribia 2-4 nagusitu zen atzo Ibarren

Galdu egin zuen atzo UDAk, baina Alberto Albistegi entrenatzailea gustura agertu da taldeak egindako lanarekin. Argi dauka Hondarribikoek golak akats indibidualen ondorio izan direla. "Ondo jokatu dugu eta aukera mordera sortu ditugu. Pozik nago mutilek egindako lanarekin", esan du Albistegik.



JOSETXO ARANTZABAL

27 | **KIROLA** | Josu Larreategiri egindako elkarrizketa**OHOREZKO ERREGIONALA**

Fanderian irabazi egin zuen Aloñak; Gal-en, osterara, berdindu Bergarak

Etxetik kanpora itxura polita eman zuten ibarreko bi ordezkariak

XABIER URZELAI | ARRASATE

Galtzeko ala irabazteko gutxi behar izan zuen Bergarak zapatuan, eta balantza erdian geratu zen, ez batera ez bestera (2-2). Partiduan 0-2 aurreratu baziren ere, Aitor Arrate Bergarako entrenatzaileak onartu zigun kontrarioak partidua irabazteko aukerak ere izan zituela, eta Galen lortutako puntua ontzat hartzen zuela.

"Sentsazio onaz gatoz bueltan, partidu txukuna egin dugula koan. Joko mailan puntu bat

aurrera egin dugula esango nuke, baina bigarren zatian edozer gerta zitekeen. Berdinketa ona izan da, kanpoan izan dela kontutan hartuta", adierazi digu entrenatzaile bizkaitarrak. Hala, Eneko Ibarluzea izan zen mahoneroen golegilea. Berdinketa horrekin, Bergarak bost puntu batu ditu, eta sailkapenaren 11. postuan dago.

Aloñak Touringi irabazi

Aloña Mendik, osterara, taldearen aurpegi ona erakutsi zuen Fan-

derian, Touringen kontra: "Aurten etxetik kanpoko garaipenak oso garesti egon behar dira, eta hiru puntu garrantzitsu lortu ditugu", adierazi digu Andoni Azkargortak.

Oñatikoek lehenengo zati txukuna egin zuten –Haimar Lizarralde izan zen golegilea– eta bigarren zatiko hasierako zatian jokoa horren ona izan ez bazen ere, azken 20 minutuetan itxura polita erakutsi zuen osterara taldeak. Aloña Mendik seigarren posturaino egin du salto.

ERREGIONAL PREF.

Errenta txikia defendatzeko gauza, Mondra

Balio handiko gola egin zuen Igor Eskibelek atzo Mojategin, Lazkaori irabazteko balio izan zuen gola (1-0). Lehenengo zatian txukun ibili ziren Urzelairen mutilak, baina bigarrean fisikoki behera egin zuten, eta markagailuko alde defendatzera mugatu ziren. Lortu zuten, eta ez da gutxi.



JOSETXO ARANTZABAL



Antzuolarren ordezkoen aulkia. | JA

FUTBOLA

Agorrosinen beharrea, Sagarpen, 25 urte geroago

1987-88 denboraldian antolatu zuten lehenengo 2. erregionaleko liga txapelketa, eta Bergara izan zen urte hartako txapelduna. Hala, garaipen haren 25. urteurrena ospatzeko Sagarpe elkartearen batu ziren 15 lagun egubakoitzean. "Poteoa luzatu egin zitzaigun, eta ederto ibili ginene gero, orduko anekdotak kontatzen".



JOSE LUIS BETIA

SENIORRAK 2. MAILA

Bergararrak hobeto hasi ziren, baina partidua Arrasatearrek irabazi zuten

Jokalari berri asko dituzte bi taldeetan, baina helburua da lehian egotea

EMAITZA

MU
57-52
SORALUZE BERGARA

FITXA TEKNIKOA

MU: Moreno, Zabala, Gonzalez, Sanz, Ezpeleta, Pardo, Tina, Ceciaga, Apellaniz, Lizarralde, Bouzon.

Soraluze Bergara: Irazoki, Oregi, Gartzia M., Arroyo, Marzo, Eucabo, Mancha, Gartzia O., Gorostiza, Ibarguren eta Marquez.

Markagailua laurdenetan: 12-20, 26-29, 42-35, 57-52.

Epailea: A. Anton eta G. Alarcia.

gak. "Eta hiruko marratik, gainera, baina gure jokoa egin dugu eta poliki-poliki alde hori murriztea lortu dugu". Pozik zen Zeziaga partidua amaieran taldeak irabazi egin baititu etxean jokatutako bi partiduetan.

Bigarren laurdenean min handia egin zuten Arrasatekoek eta berdintzera iritsi ez baziren ere asko murriztu zuten hasiera batean Bergarakoek zabaldutako aldea. "Lehenengo zatia oso ondo jokatu dugu", adierazi du Bergarako entrenatzaile Jon Beistegik. "Bigarrenean konfiantza gehiegi hartu dugu akaso, eta hor egon da akatsa". Gauzak horrela atsedenean 26-29 jasotzen zuen markagailuak.

Hirugarren laurdena arrasatekoendako izan zen argi eta garbi; emaitza partziala 16-6 izan zen eta. Orekatuagoa izan zen laugarren laurdena eta Bergararrek egin zituzten saskiratze gehiago, baina garaipena etxe-koendako izan zen azkenean.

Talde osatu berriak

Talde batean zein bestean kide berri ugari sartu dira aurrean, eta denbora behar dute elkar ezagutzeko. "Ekipo polita dugu", esan du Arrasateko entrenatzaileak. "Nire ustez lortu beharko genuke borrokan egotea". Bergarako Jon Beistegiren esanetan, berriz: "Helburua da lehen lauzpabosten artean sailkatzea, hala igoerako fase finala jokatzea. Nire ustez posiblea da".

ESANAK

"Dena sartu dute hasieran, baina gure jokoa eginez berriz sartu gara partiduan"

"Taldea berria dugu, baina borrokan egotea lor dezakegu"

ANDER ZEZIAGA | MU

"Konfiantza larregi hartu dugu hasieratik, eta flojo ibili gara batez ere defentsan"

"Denboraldiko helburua litzateke fase finalean sartzea"

JON BEISTEGI | SORALUZE BERGARA



Apellaniz arrasatearrek baloia eskuratu nahian. | JOSETXO ARANTZABAL



Ezpeleta arrasatearra erasoan eta Oregi bergararra defentsan. | JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Bost puntuko aldearekin nagusitu zitzaion atzo eguerdian Mondragon Unibertsitatea (MU) Soraluze-Bergara taldeari. Antoñan jokatu zuten norgehiagoka eta indartsuen Bergarako taldea hasi zen. Etxekoek nekez eutsi zioten hasierako erritmo horri, eta lehenengo laurdenean zortzi puntuko aldea zuten mahoneroek markagailuan. "Hasieran dena sartu dute", zioen partidua amaieran MUko entrenatzaile Ander Zezia-

NAZIONAL MAILA

Jokalari garaien aurrean sufrituta ere, MUK irabazi

Josu Larreategiren mutilek ez zuten aparteko partidua egin atzo iluntzean, Egues taldeko jokalariek garaiek min egin zituelako Arrasateko taldeari, batez ere barruko jokoan. Hala ere, ligako bigarren garaipena eskuratzeko gauza izan ziren (68-59). Iturripeko zoruak labainkor eta arriskutsu jarraitzen du.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL



Otegi Zaragozako hainbat jokalariz inguratuta, lehenengo zatiko une batean. | ARGAZKILARIAXXX

NAZIONAL MAILA

Garaipena, komeni dena baino emozio handiagoz

- ▶ Lehenengo zatian ondo aurreratu ondoren behera etorri zen taldea
- ▶ Bigarrenean sufritzen dakiela erakutsi zuen Arrasateko taldeak

XABIER URZELAI | ARRASATE

Emozioa bai, baina neurrian. Eta, kontrarioak horretara behar izan zaituenean, hau da, indarrak parean daudenean. Baina, atzo Iturripen ikusi zenagatik –tarte-ka izan bazen ere– Ford Mugarri Zaragoza baino gehiago zen, eta hala ere, kanpotarrak azken unera arte egon ziren kantxan *bizirik*.

Norbaitek pentsatuko du Mari-txu Kajoiko ajeagatik izango zela, baina ez, joan den astean ere gauza bera gertatu zitzaizen Elgoibarren, baina orduan larriagoa

izan zen, Arrasatekoak atzo irabazteko gauza izan zirelako.

Kategoria berrian dago Ford Mugarri Arrasate, eta hiru partidutatik bi irabazi dituzte; bistan da ez dutela kritika gogorrik merezi, ezta gutxiago ere. Hori bai, liga hasiberri honetan, badute non hobetu, lehenengo zatian alde ederraz irabazten hasi ostean (11-5, 15. minutuan) atsedena iritsi aurretik etxekoek arnasa eman ziotelako kontrarioari (17-15 atsedendian).

Zaragozakoak partiduari buelta emateko kapaz zirela pentsa-

tuta joan ziren aldagelara, baina Arrasatekoek ez zuten halakorik onartuko: "Horretaz egin dugu berba atsedendian, ezin zela joan den astekoa errepikatu", zioen Andoni Bernalek.

Lortu zuten helburua, Zaragoza ez zen partidua inongo momentuan berdintzera iritsi, baina oso gertu izan zuten helburua (27-26, 18. minutuan). Momentu erabakigarri horietan, baina, Arrasatekoak errenta txiki hori defendatzeko gauza izan ziren: Bernalek jaurtiketa zuzen bidez egindako golaz, Vallelek gel-

ditu ederra eginda, Ikerrek gola eginda jokaldiz... Modu batera edo bestera azken minutuetan Gartziazen mutilek tinko eutsi zioten aldeari, eta horri esker azken 2-3 minutuak nahiko lasaiak izan ziren.

Santoñan, kantxa gogorra

Datorren astean Arrasateko taldekoek Kantabriara egingo dute bidaia: "Partidu gogorra izango da, gainera, iazko igoera fasea euren kantxan irabazi genuen, eta gure kontra jokatzeko gogoz izango dira". Kantxa gogor horre-

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

33-29

DOMINICOS ZARAGOZA

FITXA TEKNIKOA

Ford Mugarri: Aranburuzabala, Valle, Alzelai, Kepa, Zuloaga, Bernal, Zubiaurre, Peio, Unai, Nestor, Isasmendi, Otegi, Herrero, Urrutia.

Dominicos Zaragoza: Alejandro, Alvaro, Castillon, Garcia, David, Navarro, Gonzalez, Victor, Raul, Jorge, Aitor, Arioño, Miguel, Cortes.

Beste: Giro polita harmailtan, bistan da kategoria estreinatzen dabilela Arrasateko taldea, eta zaleak erantzuten dabiltzala.

tan, baina, taldea babestuago egoteko klubak autobusa jarriko du, prezio bereziaz. Joan gura duenak Angel Moralejari eman behar dio izena, ahalik eta lasterren (606 06 50 12).

EUSKADIKO TXAPELKETA

Bederatzi goleko aldeaz, liga ezin hobeto hasi du Bergarak

Soraluce BKE taldeak ezin hobeto hasi du Euskadiko Txapelketa, etxetik kanpora jokatu arren Josetxo Munia-tegiren mutilek errepasso galanta eman ziotelako Corazonistas talde gasteiztarrari (32-41).

Euskadiko Txapelketa moduko liga parekatuan kostako zaie etxetik kanpora ostera horren ondo irabaztea. Hala, hasiera on horrekin bergararrak sailkapenaren bigarren postuan daude. Usurbil geratu da aurretik, oraingoz lider. Txapelketa hasi baino ez da egin, baina halaxe hasiatek lagungarri da.

ATLETISMOA

Nere Arregi arrasatearra azkarrena Zakila Biran

Zumaian egiten duten Zakila Bira lasterketan Nere Arregi –argazkian helmugan– izan zen zapatuan emakumezko azkarrena. Hasieratik hartu zuen emakumeen lasterketako burua eta hiru minututik gorako aldearekin helmugaratu zen, Ana Maria Gonzalez (Orereta) eta Eva Esnaolaren (Hernani) aurretik.



ARETO FUTBOLA

Ligari hasiera bikaina eman dio indarrez betetako taldeak

EMAITZA

ESKORIATZA K.E.

5-2

KUKUIAGA ETXEBARRI

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Oso kontzentratuta. Halaxe irten ziren atzo Eskoriatzako areto futboleko joklariak partiduari

aurre egitera. Eta funtzionatu zuen; ligako lehenengo partiduan 5 eta 2 irabazi baitzion etxeko taldeak Kukuiaga Etxebarri talde bizkaitarrari. "Partidu ona jokatu dugu", azaldu zuen amaieran Narciso Pavo entrenatzaileak.

Joko bizia eta garbia

Gustura aritu ziren etxeko joklariak ligako lehenengo partiduan eta 3 goletako aldearekin amaitu

zuten eguna. Bi taldeek joko bizia erakutsi arren, etxekoek asmatu zuten gehien baloia aurkariaren atean sartzen. Hala, Aratz Kortazar (1), Julen Ibabe (1), Jorge Mora (1) eta Richard Hidalgo (2) izan ziren atzoko goleatzaileak.

Epaileek, bestalde, nahiko partidu garbia izan zela eman zuten aditzera. "Txartelen bat erakutsi den arren, orokorrean nahiko jokaldi garbiak egin dituz-

te bi taldeek. Noski, ligako aurrenekoa da, eta giroa ez dago bero oraindik".

Igotzea helburu

"Zalantza barik hau da jarraitu beharreko bidea. Denboraldiurrean taldea konprometituta dagoela ikusi genuen, eta lehenengo partiduko emaitzak ere halaxe erakusten du, ez dago zalantzarik. Gainera, iaz baino kalitate handiagoa daukagu".

Aurtengo helburuak zehazten ere hasiak daude Eskoriatzakoak. Eta Pavoren esanetan, euren xedea liga amaieran sailkapenean aurreneko hiru postuetan egotea egotea izango da, "mailaz igotzeko aukera benetako" izan daitekeela uste baitute.



Aitor Mendizabal. | GOIENA

PILOTA

Mendizabal Lau t'erdikoa jokatzenetik pauso batera

Z.V.D.M. | ARRASATE

22-14 irabazi zion atzo Aitor Mendizabalek Aritz Lasari Eibarko Astelena pilotalekuan. Lau t'erdiko Txapelketa jokatzenetik urrats batetara dago une honetan, antzuolarra; datorren astean Joseba Ezkurdiari izango du aurrez aurre.

Pozik azaldu zen amaieran Antzuolako pilotaria. "Aste hasieran abisatu ziguten jokatuko genuela. Oso pozik nago enpresak emandako aukeragatik, ez bainuen espero". Astea gogor entrenatzen igaroko du orain Mendizabalek, Joseba Ezkurdiari irabaziz gero, Lau t'erdiko Txapelketa jokatuko baitu.



Eskoriatzako taldea atzoko partiduaren amaieran. | JOSETXO ARANTZABAL



Eskoriatzako kiroldegian jokatutako partiduaren une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Antzuola-Ostadar	3-0
Real Union-Bergara	2-2
Aretxabaleta-Hondarribia	2-4
Touring-Aloña Mendi	0-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Beti Gazte	8	4
2 Hondarribia	7	4
3 Berio	7	4
4 Anaitasuna	7	4
5 Aurrera	7	4
6 Aloña Mendi	7	4
7 Ostadar	7	4
8 Antzuola	6	4
9 Hernani	5	4
10 Real Union	5	4
11 Bergara	5	4
12 Getariako Keta	5	4
13 Vasconia	4	4
14 Tolosa	4	4
15 Touring	4	4
16 Aretxabaleta	3	4
17 Zarautz	1	4
18 Lagun Onak	1	4

HURRENGO JARDUNALDIA

Antzuola-Aurrera
Getariako Keta-Vasconia
Lagun Onak-Berio
Anaitasuna-Beti Gazte
Tolosa-Real Union
Urola-Touring
Bergara-Aretxabaleta
Hondarribia-Zarautz
Hernani-Touring
Ostadar-Aloña Mendi

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Basconia-Aretxabaleta	1-0
-----------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Lazkao	1-0
---------------	-----

I. ERREGIONALA

Bergara	Atsedena
---------	----------

OHOREZKO GAZTEAK

Ordizia-Mondra	3-1
Bergara-Aurrera	0-4
Aloña Mendi-Euskalduna	2-1

GAZTEEN 1. MAILA

Aretxabaleta B - Bergara B	1-4
Beasain B-Arizmendi	15-0
Aloña Mendi B	Atsedena

OHOREZKO KADETEAK

Amaikak Bat-Bergara	3-0
Eibar-Aretxabaleta UDA	0-0
Arrasate-Lazkao	3-4

EUSKAL LIGA EMAKUMEAK

Osasuna-Mondra	8-0
----------------	-----

EMAKUMEAK GAZTEAK

Bergara-Orioko	1-3
Aloña Mendi	Atsedena

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Ikasberri-Bergara	2-2
Arizmendi-Mondra	2-1

ESKUBALOIA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ford Mugarriz-Zaragoza	33-29
------------------------	-------

EUSKADIKO TXAPELKETA

Corazonistas-Soraluce BKE	32-41
---------------------------	-------

EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEAK

Aloña Mendi	Atsedena
-------------	----------

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Eibar-Aloña Mendi	21-27
-------------------	-------

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Orkli Ordizia-Arrasate	36-7
Bergara	Atsedena

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Kukuiaga Etxebarri	5-2
-------------------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Egues	68-59
----------	-------

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

MU A-Soraluce BKE	57-52
Aloña Mendi-Orioko	53-77

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza	Atsedena
------------	----------

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

MU A-Easo 97 A	33-83
----------------	-------

KADETEAK ERRENDIMENDUA

Zast 98 -Soraluce Bergara	61-40
Adarra-Aloña Mendi	96-38
Cafes Aitona-MU A	27-68

KADETEAK ERRENDI. EMAK

Ostadar-Soraluce Bergara	56-21
--------------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Josu Larreategi | Mondragon Unibertsitatearen entrenatzailea

"EBA maila daukagu buruan: igoera fasea jokatzeko sailkatzea da gure helburua"

- ▶ Mondragon Unibertsitateak Lehen Nazional mailako liga txapelketa hasi berri du
- ▶ Gasteizera joateko eskaintza izan arren, Arrasaten geratu da entrenatzailea

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Baskonian bide luzea egin ostean, 2010-11 denboraldian heldu zen Josu Larreategi Mondragon Unibertsitatearen aulkitxora. Gasteizen ikasitakoa -Iriarteren, Comasen, Lamasen eta Dusko Ivanovicen ondoan egin zuen lan- erakusteko asmoz heldu zen Arrasatera. Seniorrekin lanean hasi zen, eta urtez urte hazi egin den taldea da. Aurten goian egon gura dute: EBArak igotzeko ligaxkan sartu gura dute. Oraingo, liga nahiko ondo hasi dute.

Liga txapelketa ondo hasi duzue. Zarautz aise menderatu zenuten eta etxeko lehenengoa ere irabazi egin duzue. Nola dago taldea?

Egia esan, hasteko gogoarekin geunden. Denboraldi-aurreak oso luzeak izaten dira. Oporren ostean gogotsu ekin genion denboraldi-aurreari, baina, egunak aurrera egin ahala, txapelketa-rekin hasteko gogoa pizten da.

Iturripeko kantxan egindako lanek hainbat buruhauste sortu dizkigu, eta ondo entrenatzeko arazoak izan ditugu. Zorua labainkor egon da, eta oraindik ere badago.

Hori horrela, gure prestaketa ez da guk gura genuen mailara heldu, baina, esfortzu berezia eginda, liga txapelketa gogotsu hasi dugu. Zarautzen lehia borobila jokatu genuen.

Entrenatzeko arazoak izan dituzue. Eta jokatzeko?

Iturripen jokatu dugu. Zorua labainkor dago, eta arazoa konpontzeko hainbat produktu bota dituzte irailan. Oraingo, ez dute ezer lortu. Zoru azpian hezetasun handia dago. Irailan Musakolan entrenatu gara. Badugu Iturripen ganorazko entrenamenduak egiteko gogoa.

Entrenatzaile gehienok partiduz partidu antolatzen duzen denboraldia. Edozelan ere, zuk izango duzu buruan helburu zehatzen bat.

Denboraldia hasten dugunean, beti egon gura dugu goiko postuetan. Hori izaten da helburu nagusia, baina gero, faktore askok dute zeresana sailkapena egiteko orduan. Emaitzez gain, beste hainbat gauza hartu behar dira kontuan; besteak beste, lesioak.

Dena den, hasi berri dugun denboraldirako ilusio berezia daukagu. Alegia, liga txapelketa ona egiteko esperantza.

Jokalariek urtebete gehiagoko esperientzia daukate, eta,

euren konpromisoarekin, goian egoteko ilusioa daukagu. EBArak begira egon gura dugu

Bi baja garrantzitsu izan dituzue: Andoni Arantzabal eta Ander Atxa; baina bi jokalaririk indartsu fitxatu dituzue. Pozik?

Bai. Andoni Arantzabal eta Ander Atxa ikastera joan dira kanpora. Iaz, biek ala biek, denboraldi oso onak egin zituzten. Euren bajak inportanteak dira taldearendako. Baina Ointxeko harrobitik sortutako bi jokalaririk fitxatu ditugu: azken bi urteetan EBAn jokatu duten Gorka Kintana eta Imanol Zeziaga. Esperientzia handia duten bi jokalaririk dira, eta, gainera, etxekoak. Talde orekatua dugula esango nuke.

Ze ezaugarri ditu zure taldeak?

Talde gaztea da. Hiru urteko esperientzia duena, baina gaztea. Gainera, joko azkarra dugunez, kontraerasoak baliatzen ditugu puntuak sartzeko. Defentsan intentsitate handiarekin jokatzeko. Taldearen ardura hartu nuenetik, asko indartu dugu kanpoko jaurtiketa. Gure pibotak ez dira oso altuak, eta, hori horrela, kanpoko jaurtiketa hobetzeko beharra izan dugu.

Hainbat urte daramazue Lehen Nazional mailan, eta talde gehienok elkar ezagutzen duzue. Zaila da ezustekoak ematea?

Bai. Gurekin lehiatuko diren



Josu Larreategi, atzo iluntzean Iturripen.

"Gogotsu hasi dugu denboraldia; ea, bada, liga ona egiten dugun"

"Gogotsu hasi dugu denboraldia; ea, bada, liga ona egiten dugun"

"Ointxek 19 talde ditu eta duela bi urte neskekin lanean hasi ginen"



Goian, ezkerretik eskuinera: Josu Larreategi (entrenatzailea), Iker Barbero (hegaleko pibota), Unai Barrera (hegaleko pibota), Eneko Lopez de Armentia (hegaleko pibota), Paul Isasa (pibota), Alex Lorenzo (hegaleko pibota), Gorka Kintana (hegalekoa), Martxel Balantzategi (antolatzailea), Juan Carlos Davila (2. entrenatzailea), eta Gorka Herranz (estatistika-egilea).

Behean, ezkerretik eskuinera: Joseba Arexolaleiba (delegatua), Mikel Arexolaleiba (eskolta), Mikel Atxa (eskolta), Julen Kortabarria (hegalekoa), Imanol Zeziaga (antolatzailea), eta Gorka Arexolaleiba.

taldeek hainbat aldaketa izan dituzte jokalarien artean. Horien erantzuna zer-nolakoa den ikus beharko dugu.

Guk, zorionez, bloke osoarekin jarraitzen dugu, eta horrek nolabaiteko abantaila ematen digu. **Horrez gainera, Kintanak eta Zeziagak ezagutzen dute elkartearen filosofia.**

Etxeko jokalaririk osatutako taldeak izan gura ditugu. Duela lau urte hasi ginen saskibaloieskolan harrobiko jokalariekin lanean. Eurak izango dira etorkizuneko jokalaririk: etxekoak. Bide beretik jarraituko dugu.

Egun, 19 saskibaloitalde ditugu elkartearen. Duela bi urte neskekin lanean hasi ginen, eta antolatzen ditugun ekintzetara geroz eta jende gehiago joaten da. Horrek guztiorrek erakusten digu bide onetik goazela.

Lehen Nazionalean aldaketak daude aurten.

Txapelketa erregularra lehen lekuan bukatzen duena EBArak igotzeko da zuzenean. Bigarrenetik laugarrenera sailkatzen direnek igoera fasea jokatu dute.

Non ikusiko dugu MU?

Oraingo helburua EBArako igoera faserako sailkatzea da; hau da, lehen bosten artean sailkatzea. Lehenengo lekuan geratzen bagara, askoz hobeto.

Dena den, liga txapelketa oso luzea da, eta kanpoko faktoreek zeresan handia izaten dute sailkapenean; besteak beste, lesioak. Ea zortea daukagun lesioekin eta errespetatu egiten gaituzten.

EBArak igotzea sari potoloa litzateke zuendako!

Bai, horixe. Lehen lekuan egoteko aukerak baditugu, eta horren jakitun, zuzendaritza batzordeko kideak hasi dira lanean. EBArak igotzea lortuko bagenu, maila horretan jokatzeko ze aukera ditugun aztertzen dabil zuzendaritza, eta beharrezkoa den dirua lortu guran.

Udan Gasteizen entrenatzeko eskaintza jaso zenuen.

Bai. Eskaintza mahai gainean izan nuen. Ointxeko ordezkariekin eta jokalariekin berba egin, eta Arrasaten geratzeko eskatu zidaten. Eurengan konpromiso handia ikusi nuen, eta etxean geratzea erabaki genuen.

Hirugarren denboraldia dut eta taldeak beti izan du konfiantza nigan, eskertzekoa da hori.



Umea arreta eskatzen. | JUANKY ALVAREZ

Nola erakutsi ingurukoon elkarrizketak errespetatzen?

Gauza gehienetan moduan, gurasook eredu izan beharko genuke horretan ere

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Telefono dei bat, aurrez aurreko elkarrizketa bat... Ume batzuek gurasoen etengabeko arreta eskatzen dute, eta gai dira behin eta berriz elkarrizketa bat eteteko. Hori gertatzen zaio Jenny Fonseca izeneko ama bati, eta dio neurririk hartu ezean ohitura bihur daitekeela. "Normala da haurrak gurasoaren arreta eskatzea, baina adin batetik aurrera ulertu behar dute gauza batzuek

itxaron dezaketela eta zenbait gauza errespetatu egin behar direla".

Umeek hori ulertzeko modurik egokiena, Fonsecaren esanetan, gu —helduok— eredugarri izatea da. "Hala, komeni da guk ere elkarrizketarik ez etetea, eta ezinbestekoa bazaigu barkamena eskatzea", dio Fonsecak. "Lagun-garri izango zaigu baita ere dei edo elkarrizketa garrantzitsu bat egin behar badugu umea aurretik

jakinaren gainean jartzea. Esan denbora apur bat behar duzula, baina ondoren zure atentzioa beregana itzuliko dela".

Gizarte honetan entzuten ikasi behar dugula uste du Fonsecak. "Helduok eredu egokia ematen badugu, umeek ere berdina jokatuko dute. Haurra zerbait kontatzera hurbiltzen bazaigu, entzun egingo dugu eta une horretan ezin badugu esango diogu beranduago tartea egingo diogula".

Hazkuntzak umeen hanketan eragiten duen mina erreala da

L.Z. | ARRASATE

Egunaren amaieran edo gauean agertu ohi dira minok, eta, gehienetan, hurrengo goizera-ko arindu egiten dira ondoezak. Horregatik, gurasook umea gezurretan ari dela uste izaten dugu sarri.

Diagnostiko zaila

Zaila da hazierak sortzen dituen minak diagnostikatzea. Sendagileak bestelako gaixotasunak baztertuta iristen dira diagnostiko horretara. Esan ohi da hezurren handitzeak sortzen duela mina, baina ez da horrelakorik baieztatzea lortu. Ondoeza muskulu edo giharretan sortzen da.

Umeek hanketako mina sentitzen dute. Ikerketen arabera, umeen %25-40 artean sentitzen dituzte, eta bi etapa-

tan agertzen dira nagusiki: 3-5 urte bitartean eta 8-12 urte bitartean. Izterren aurreko aldean, aztaletan eta belautetan kontzentratzen da mina. Egun amaieran edo gauean agertzen da, batez ere umeak jarduera fisiko handiko eguna izan badu —saltoka, lasterka...—, eta haurra hobeto sentitzen da zonan masajea ematen badugu.

Mina arintzeko

Mina arintzeko komeni da masajea ematea, hanka luzatzea, kuxin termikoa ipintzea zein ibuprofenoa edo parasetamol ematea —aspirinarik ez 12 urte-tik beherako haurrei—. Medikarengana joko dugu lesio berezia antzematen badugu, mina artikulazioetan kontzentratzen bada, sukarra badago edo mina arintzen ez bada.



Salto egiten. | MULTISANTI

Zorriak bueltan ditugu, eta prebentzioa da har dezakegun neurririk eraginkorrena

L.Z. | ARRASATE

Hasi da ikasturtea eta horrekin batera urteroko buruhaustea: zorriak. Ume asko elkartzen dira eskoletan, eta horrek erraztu egiten du zorriak hedatzea. Horregatik, garrantzitsua da zorriak agertu aurretik prebentzio neurriak hartzea.

Kontuan hartu behar dugu azkura zorriaren listoak eragiten duela. Azkura agertzen denerako zorriak denbora darama dagoeneko buru horretan. Kontuan hartuta eme heldu bakoitza egunean 200 arrautza erruteko gauza dela, oso azkar ugaltzen da zorria.

Zorriendako orrazia

Zorriaren presentzia antzemateko neurri eraginkorrena da. Egunean ez bada, gutxienez astean behin pasa behar zaio umeari

zorriendako orrazia. Dutxa ostean eta ilea bustia dagoela pasa behar zaio. Egunean pasatzen badugu, berehala konturatuko gara zorriak ditugula eta lehenbailehen hartu ahal izango ditugu neurriak.

Ilea lotzea ere prebentzio neurri ona da. Batzuek moztu ere egiten dute. Zorriak ez du hegan egiten; buruak elkarren ondoan daudenean pasatzen da batetik bestera. Hortaz, ile luzea edukiz gero, komenigarria da lotzea. Egokiena txirikorda egitea da; bestela, mototsak. Komeni da, baita ere, orraziak, urkilak, ileko gomak, txapelak, zapiak... ez partekatzea. Izurritea badago, toallak eta eskolako arropak ere ez dira elkarbanatu behar.

Zorrien kontrako tratamenduak ere badaude: produktu naturalak zein kimikoak. Betiko ozpin-ura ere eraginkorra da.

Generoari atxikitako estereotipoei alternatiba bila

L.Z. | ARRASATE

Nerea Agirre pedagogoak egin du gogoeta *Guraso.com* atarirako idatzi duen azken artikuluan. "Emakumetasunaren eta gizon-tasunaren irudiak, harreman ereduak, kontsumo eta bizi estiloak", aipatzen ditu Agirrek, ohartaraziz estereotipo horiek gure seme-alabengan ere eragina dutela. "Apenas dute aukeratzeko tarterik. Zaila izango zaigu musika bidez transmititzen diren hainbat letra eta eduki-ekin amaitzea. Zaila telebista deuseztatzea. Zaila ziprztinduak ez izatea. Baina behintzat, goazen aukera ezberdinen artean guk geuk entzun eta ikusi nahi ditugunak (ere) aukeratzera!".

Agirrek dio erraz zaiguna kontsumitzen dugula: "Saltzen digutena, modan dagoena, ingurukoek dutena, albokoak eman edo pasatzen diguna, eta Inter-

net bidez gure etxe birtualera konturatu orduko sartzen dena (...) Gurasoak euren seme-alabek ikustea eta entzutea nahi dituzten ipuinak, musika, filmak... bilatzera gonbidatu nahi ditut lerroon bidez".

Proposamen xumeak

Gurasoei denbora inbertitzeko eskatzen die Agirrek. "Arakatu, eztabaidatu, informatu...". Pista batzuk ere ematen ditu; berak aurkitutako materiala interesgarria, alegia. Erreferente gisa euskarazko ipuinen produkzioan eman diren aurrerapausoak aipatzen ditu. "Baloreetan hezteko intentzioz idatzi eta argitaratutako euskarazko ipuin eta liburua", aipatzen ditu tartean Urtxintxa eskolaren *Titiriteroen ipuinak*.

Musika esparruan Pirritx eta Porrotx pailazoek egindako

ekarpena nabarmentzen du Agirrek. "Ekarpen interesgarriak egin dituzte azken urteotan". Ez dira bakarrik Agirreraren esanetan: Pantxika Solorzanoren *Bilintx* diskoko kantak ere gustuko ditu.

Film alternatiboen artean Hayao Miyazaki manga marrazki bizidunen zuzendari, gidogile, marrazkigile eta komikigile japoniarren lanak proposatzen ditu: *Ponyo itsaslabarretan*, *Totoro*, *Chihiroren bidaia*, *Monomoke printzesa...* *Pelispes.com* helbidean aurki daitezkeela dio. "Hiroyuki Morita-ren lanen artean, berriz, *Haruen el Reino de los Gatos* eta *Susurros del Corazon* dira ezagunenak".

Bilaketak egiteko bi webgune ere gomendatzen ditu: *luz-deluciernagas.com* eta *bibliodiversia.com*.



KULTURA



Umetan jolastoki zuen Oñatiko Lazarraga parkean Ruper Ordorika eguaztengan. | AITZIBER ARANBURUZABALA

"Ez dut euskal kantu onenen antologia bat egin gura izan"

- ▶ 'Azukre koxkorak': Askotariko estiloko Ordorikaren 12 kantu kuttun
- ▶ CD formatuan eta sarean eskuragarri, eta Durangoko azokan LPan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Gustuko dituelako, kantu hurbilak dituelako, bertsiionatutako taldeak aspaldiko lagunak dituelako, garai baten elkarrekin kantatu izan zutelako edo gehien *telonero* izan delako; horiek dira, besteak beste, Ruper Ordorikak kaleratu berri duen *Azukre koxkorak* diskoan batutako kantuen bildumaren aitzakiak. "Gutizia bat izan da", dio Oñatiko musikariak diskoaren izenburua oinarri hartuz, "euskal musikariok edaten dugun infusio horretan dauden urtutako azukreak koskortu egin ditut berriz ere".

Ez du erantzun zehatzik baina, diskoa orain kaleratzearen gainean galdetuta: "Gauzak egin egiten dituzu eta orain, berriz, pentsatzen jarrita, nik uste, barru-barruan nuela horrelako lan bat egiteko gogoia. Egin ditudan lan gehienak talde moduan aurkeztu izan ditut eta kasu honetan gehiago. Zuzeneko taldekide (Harkaitz Miner, Lutxo Neira eta Hasier Oleagarekin) eta teknikoarekin (Jonan Ordorika) grabatu dut. Bost urte

elkarrekin egin eta gero, batua go gaude eta sonoritate bat dugu; egokiera ona zela pentsatu nenez, kantuak proposatu nizekin, jolastu eta gure esparrura ekarri genituen. Nire asmoa, kantu guztietan musikarien aldean jarri eta garai hartako ikusmoldean kokatzea izan da. Geureganatu egin ditugu baina originalak errespetatuz". Ben Monder oñatiarraren aspaldiko lagunak ere parte hartu du.

Hitzetan ere moldaketa batzuk

Oñatiarrez kantatu du *Sarri-Sarri*, baina orokorrean, bere horretan utzi ditu kantuen hitzak, nahiz eta egokitzapen bat edo beste egin behar izan duen: "Bestelakoa zen garai baten zegoen euskara maila edo euskara ikasteko zegoen aukera; azpiko hizkuntza bat zen eta akatsak agertzen dira han eta hemen. Hitz batzuk eguneratu egin ditut" dio Ruper Ordorikak.

CDan eta sarean entzungai

CD formatuan dago diskoa eskuragarri orain, eta LP formatuan ateratzeko asmoa dute Elkarrekoek Durangoko Azoka helburu. Hala ere, badago sarean entzun eta erosteko aukera ere, Spotify bidez: "Elkarrekoek dute horren erantzukizuna. Anabasa batetan gaude; lehen horrelakorik ez zegoen, neurri eta bide berriak probatzeko garaian gaude".

Zuzeneko agenda

Elgetako Espaloian izango da abenduaren 29an. Aurretik baina, hainbat dira lotuta dituen emanaldiak: herri txikietan egingo ditu zuzeneko lehenengo *frogak*, Nafarroako Ituren eta Mirafuentesen; Donostiako Victoria Eugenia Antzokian izango da azaroaren 24an; Durangoko Plateruenan, azaroaren 29an; Bilboko Kafe Antzokian abenduaren 14an eta Gasteizko Jimmy Jazz aretoan abenduaren 27an. "Ez dakit nola sartuko dugun disko hau zuzenekoetan, baina asmatuko dugu zer edo zer" dio irribarrez.



Egubakoitzean Bilboko aurkezpenean Ordorika eta Valdés. | OIHANA OTAEGI

Aukeraketaren zergatiaz

SIGARRILLOS AMARIYOS

Hertzainak-en kantu berezia da, musikalki eta esanahigatik. Garai bateko bizimodua isladatzen du.

EZEKIELEN PROPHEZIA

Sarritan abestu nuen abestia, Itoiz-ekin eta Juan Karlos Perezekin geroago. Gertuko kantua dut.

SARRI SARRI

Kortatu-ren kantuarren sorreran izan nintzen eta ez nuen uste sekula joko nuenik. Diskoari oinarri ona eman diola uste dut.

GARRAZTASUNA

Beti gogoan izan dut Koska talde handiaren kantua. Oroitzapen garbia dut ume denboretan Oñatiko jaietan ikusi nituenekoa.

TXAKURREN PARTIA

Hurbileko lagun batek proposatuta aukeratu nuen Txomin Artolarena. Txuriko txakurraren istorio polita.

KANPO

Izugarrizko taldea zen Iparraldeko Errobi. Zuzenean ikustea sekulako deskubrimendua izan zen.

EMAZURTZ

Natxo de Feliperen bitartez ezagutu nuen Gabriel Aresti; balio handi moduan gordetzen dut une hori.

IZARREN HAUTSA

Diskoaren abiapuntua izan da. Euskal olerkari buruz iaz Galizian egin zuten jaialdirako prestatu nuen.

NAHIA

Delirium Tremens-ekin harreman estua izan dut eta oso gustuko beti, Andoniren kantatzeko era.

AMA EUSKADI

Umetatik dut gogoan, Jean Mixel Bedaxagarren kantua baina Niko Etxart eta haren aitaren bertsiak erabili ditut.

NON DUZU ZAURIA?

Estribillo baten indarraren adierazle da, aspaldiko lagunak ditudan Balerdi Balerdiren kantua.

GURE BAZTERRAK

Mikel Laboa handiaren omenezko *Txinaurria* diskorako egin nuen.



Miren Gojenola, Ana Elordi eta Loli Astoreka emanaldiaren une batean. | IMANOL SORIANO

'Hiru': Aktore finak eta gidoi landua, arrakastarako formula perfektua

Egubakoitzean goraino bete zen Bergarako Zabalotegi aretoa

TXOMIN MADINA | BERGARA

Eskola garaian lagunak ziren hiru emakumek ume bana izan gura dute eta horretarako gizon berarengana jotzen dute. Horixe da, labur, egubakoitzean goraino bete zen Zabalotegi aretoan eskaini zuten *Hiru* antzezlanaren muina. Ez dirudi aparteko ezer, baina abiapuntuak askorako, askoz gehiagorako ematen du.

Juan Carlos Rubiok idatzitako lanaren bertuteetako bat hiru

lagunen arteko dinamika ederki definitzea da. Angela (Ana Elordi) funtzionarioa da, alarguna, eta berak dioen bezala ez-alaia. Txaro (Loli Astoreka) bestalde, telebistako aurkezle arrakastatsua dugu, aldaketaren aldeko emakume indartsua. Eta Mertxek (Miren Gojenola) osatzen du hirukotea: lodia izandakoa, abokatu ironikoa. Hain pertsonalitate ezberdinak ederki uztartzen ditu obrak, bakoitzak ematen

dituen aukerak eta harremanei ahalik eta zuku gehien atereaz. Eta horretan asko laguntzen dute hiru aktoreek. Laugarren bat ere bada: Jose Ramon (Zuhaitz Gurrutxaga), aita izateko aukeratu duten gizon, antza denez, perfektua.

Aktoreak, bikain

Ondo idatzitako pertsonaiak baina, ez dira ezer ondo irudikatuko dituzten aktore barik, eta horretan ere esan behar da ager-

tokian dauden laurak primeran moldatzen direla. Eta profesional apartak ere badirela gainera: Zabalotegin izandako argiztapen arazoan aurrean lasai asko jarraitu zuten, ezer gertatuko ez balitz bezala.

Aurretik azaldutako abiapuntuak ematen du hausnarketarako bidea. Zer da adiskidetasuna? Zergatik gara garenen lagunak? Noraino egin ditzakegu gauzak gure lagunengatik, edo gure lagu-

Eguenean Aretxabaletan

Egubakoitzean Bergaran egindako emanaldia ez da baina egunotan *Hiru* Debagoienean ikusteko izango dugun aukera bakarra. Izan ere eguenean Aretxabaletan egingo du geldialdia obrak. 19:30ean hasiko da antzezlanaren Arkupeko Zaria aretoan, eta sarrera 4 euro kostako da.

nekin egitearren? Galdera horiek datoz burura obra ikustean. Baita amatasunari edo familiari buruzkoak ere. Umea izatea zein puntura arte da kapritxo?

Gaztetxeko urteurreneko ekitaldiek herria dantzan eta jolasean jarri dute

Urtebete herrixa pizten! lelopean antolatu dituzte, besteak beste: jolasak, kontzertuak eta bazkaria

IRATI GOITIA | ANTZUOLA

Antzuolako gaztetxearen lehen urteurrena ospatzeko ekitaldiak izan dituzte asteburuan.

Ekintza ugari

Egubakoitzean afari ibiltaria egin zuten, benetan bitxia. Afarirako izena eman zutenen artean taldeak egin eta zozketa egin zuten bakoitzak afarirako zein plater prestatu behar zuten erabakitzeo. Ondoren, plater bakoitza herriko

toki ezberdin baten jan zuten. "Esan daiteke, poteo estilora afaldu genuela", esan digu Jon Lizarazu gaztetxeko kideak. Gaineratu digu giro bikaina izan zutela eta jende dezente batu zela.

Ostean, Dhuna taldearen kontzertua izan zuten gaztetxean. Kantaldi akustikoa izan zen; giro goxokoa. Kandelak eta guzti piztu zituzten.

Zapatuan, berriz, umeendako jolasak izan ziren: puzgarria,

soka-saltoa, trizikloaz zirkuitua... Han batu zirenen artean txorixoa ere banatu zuten eta herriko trikitilari gazteek jarri zuten musika. Bazkaria ere egin zuten. 60 lagun inguru batu ziren.

Bazkal ostean, Bilbora joateko autobusa zuten, baina itzultakoan ospakizunekin jarraitu zuten. Lunch-a egin zuten lehenik eta batukada ehunzango taldearekin ondoren. "Gustura ibili zen jendea", esan digu Lizarazuk.

Gauean dantzan jarri zituzten gaztetxean batutakoak Salda Badago taldeko kideak. Erroneria giro bikaina jarri zuten. Ostean DJ Elvis Caino izan zen gaua girotzen.

'Urtebete herrixa pizten'

Adin ezberdinetako jendea batzen duten egitarauak antolatzen saiatzen dira gaztetxetik. Hala, antzezlanak, ikastaroak, bertso saioak edo kontzertuak izan dituzte urtean zehar. Hain zuzen, urteurrenerako aukeratu duten leloa *Urtebete herrixa pizten!* da. Lizarazuk esan digu helburu horrekin jarraitu nahi dutela lanean, eta aldi berean, gaztetxea biziz bete nahi dutela.



Gaztetxoak puzgarrian jolasten. | IMANOL SORIANO



Bi mutiko gaztetxeko argazkiei begira. | I.M.

INTERPRETE
DESCONOCIDO
&
THE CONVICTS

GURE MUSIKA TALDEAK



Interprete Desconocido eta The Convicts taldeak. | INTERPRETE DESCONOCIDO/THE CONVICTS

"Teletetxo Records-ek diskoa Euskal Herritik kanpo zabalduko du"

- ▶ Duela hilabete kaleratu zuten partekatutako diskoa
- ▶ Hainbatetan oholza gainean bat egin dute bi taldeek

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Gaur egun ez da ohikoena bi taldek batera disko bat kalera-zea. Bada, Interprete Desconocido eta The Convicts taldeek hori bera egin dute; *split* edo partekatutako diskoa argitaratu zuten duela hilabete. Musikan adiskidetasuna eta anaitasuna aldarrikatzeko formatu erabilia izan da; baten jarraitzaileek, besteen musika entzun dezaten eta alderantziz. Kasuak kasu, disko berriak 12 kantu batzen ditu, talde bakoitzaren sei konposizio propio; punk-rock, punk-oi! eta hardcore zertzeladak. Okinak, The Convictseko batera-joleak, eta Danik, Interprete Desconocidoko abeslariak kontatuko dizkigute diskoaren sekretuak.

Nola bururatu zitzaizuen *split*-a kaleratzea?

Dani: Aspaldi ezagutzen dugu elkar bi taldeok, eta betidanik harreman ona izan dugu. Duela

urtebete sei kantu grabatu genituen eta *split*-aren ideia bueltaka izan dugu; beraz, aukera ezin hobe zen The Convictsekin batera egitea. Horrez gain, diskoaren kostuetan ere eragina izango zuela pentsatu genuen.

Okina: Bai, taldekide gehienak adin berekoak gara. Guk ere estudio berean grabatu genuen, Nekrosounds-en, eta, Karlotek Interprete Desconocidok lan partekatua kaleratu nahi zuela esan zigunean, ideia ona iruditu zitzaigun. Guk ere sei kantu grabatu genituen; horrenbestez, aukera paregabea zen.

"Bi taldeek Nekrosounds estudioan grabatu dugu"

Izan ere, aspaldi ezagutzen duzue elkar.

D: Bai, aspalditik hainbat kontzertu jo ditugu batera. Denboraldi batean, gainera, bi taldeok Aretxabaletako gaztetxe lokaletan entseatzeko genuen; beraz, harreman handia zegoen.

O: Esan bezala, taldekide gehienak adin berekoak gara, eta, musika munduan egonez gero, ezinbestekoa da elkar ezagutzea. Gainera, musika mota antzekoa egiten dugu.

Nolakoak izan ziren grabazioak?

D: Grabazioa Nekrosounds Aretxabaletako estudioan egin genuen, joan den udan. Grabazio oso azkarrak izan zen, asteburu batean grabatu genuen dena; izan ere, orduan Jose gitarrak-jolea Alemaniako zegoen ikasketa kontuak zirela-eta, eta Ibai baxu-jolea Bartzelonan. Karloterengana jo genuen, teknikari eta musikari moduan esperientzia handia du-

ZERTZELADA



INTERPRETE DESCONOCIDO-THE CONVICTS

Estiloa: Punk-rock, Punk-Oi!

Egilea: Interprete Desconocido-The Convicts (Arrasate, 2013).

Argitaletxea: Teletetxo Records.

Iraupena: 31:44 minutu.

Bada punk-Oi!aren lekukoa hartu duenik

Arrasate hamarkadatan punk-Oi! estiloari heldu dion herri bakarrenetarikoa da; hemen etenik gabe beti egon da-eta halako talderik. Eta hona hemen gaur egungo bi adibide *split* edo partekatutako diskoaren formulak elkartuta. Aretxabaletako eta Arrasateko kideak dituen Interprete Desconocido Ingalaterrako eta -tarteka-Alemaniako Oi! klasikoaren ildotik hurbil dago eta 'Bizipenak' lagun arteko hit!a nabarmenduko nuke. *Split*-eko kideak The Convicts-ekoak dituzte eta arrasatear hauek erritmo biziagoa duen punk-Oi!-a egiten dute, punk-rocketik gehiago duena. Bi taldeotan euskara eta ingelesa tartekatzen dituzte eta gitarren lana aipatzekoa da.

IKER BARANDIARAN

lako, eta aukera egokia iruditu zitzaigun. Gainera, prezio ekonomikoa egin zigun.

O: Guk ere estudio berean grabatu genuen, baina, gure kasuan, hilabetez egon ginen bueltaka. Taldekideen ordutegia zela eta, askotan zaila izaten zen bat egitea. Edozelan ere, oso eroso

sentitu ginen eta lan ona egin zuen Karlotek. Nahasketak, adibidez, bere kontu egin zituen eta ondoren entzun eta ukituak egin genituen.

Banaketa Azpeitiko Teletetxo Records-ekin egin duzue.

D: Bai, Teletetxok eskaintzen duen zerbitzua oso ona iruditu zitzaigun. Haiek finantzatu dizkigute kopien gastuak eta guk 50 disko eman dizkiegu trukean. Hala ere, diskoak saldu ahala, kopien gastuak ordaindu behar dizkiegu. Gainera, Teletetxok Euskal Herritik kanpoko hainbat herrialdetara bidaltzen ditu diskoak. Azken finean, musika zabaltzen du.

O: Bai, hori oso garrantzitsua da, guk betiko tabernetan jarri ditugulako salgai diskoak, baina berau zabaltzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Esaterako, dagoeneko diskoa Interneten deskargatzeko jarri dugu, edozeinek entzun dezan.

Diseinuan, taldekide ohiak ere agertzen dira; nolabait, haien tokia aldarrikatzeko da?

D: Bai; gehienbat, nik egindako diseinua da, eta denok genuen argi taldeen historiaren parte direla. Diskoaren zati bat ere euren da. Gure kasuan, gainera, Josebaren irudia oso garrantzitsua da, Interprete Desconocidon izan zuen eraginagatik.

Aurkezpen kontzertuan 20 disko zozketatu zenituzten, ezta?

O: Ez, hasieran hori egin behar genuen, baina, desastre hutsak garenez, diskoak eramatea ahalatu zitzaigun. Beraz, Dat tabernan zeuden bost diskoak banatu genituen!

Diskoa non dago salgai?

O: Oraingoan, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Azpeitian, Beasainen eta Donostian jarri dugu salgai. Hala ere, diskoak erosi nahi izanez gero, gura duena taldeekin harremanetan jar daiteke.



UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere:



CIES UHARTEAK. Abuztuan Galizian ateratako argazkia da goikoa. Elba, nire laguna, itsasoa eta belaontziak agertzen dira. /Argazkia: June Larzabal Sanz /Eskoriatza



ARROZ-SOROA. Umea arroz-soroan. Kanbodiako Kamput herria. 2012ko abuztua. /Argazkia: Ager Zamudio /Aretxabaleta



HEGAZKINAK. Korsikako zeruan, Bonifacion. 2013ko udan. Bi hegazkin. /Argazkia: Jone Elkor Garcia/Elgeta



BABESLEKUA. Spitzkoppe, antzinako boskimanoen babeslekua, eguzkia ezkutatzeko zebilean. Namibian, 2013ko abuztuan. /Argazkia: Jon Baltzategi /Arrasate




ALMERIAKO FERIA. Flamenko jantzitako neskek Almeriako feriaz disfrutatzen jan eta edaten duten bitartean; abuztuaren 25ean ateratako argazkia. /Argazkia: Gorka Kerejeta /Arrasate



HEGAZ. Argazkian izurdeak eta haien hezitzaileak agertzen dira, Mundomar parkean. Askotariko ariketak egin zituzten. Argazkian, ematen du neska Benidorm gainean hegaz dabilela. /Argazkia: Saioa Ojanguren / Arrasate




BEGIRADAK. Kanbodiako Angkor tenpluan. Bertan, joan ginen lagunak agertzen gara tenpluko leiho batetik koadro itxurak eginez. Begiradak. /Argazkia: Mikel Urbarren Borrego / Arrasate



YING ETA YANG. Bi txakur horiek Ying eta Yang izan daitezke, bata argia eta bestea iluna, bata uretan eta bestea hondarrean. Nork besteari pasoa utzi edo aurre egin erabaki ezinean, erabakitzean edo besteak zer egingo duen zain. Gu ere txakur horien moduan ibiltzen gara askotan. /Argazkia: Eider Otxoa /Aretxabaleta



MISERIKORDIA-FIKUSA. Udan, Palma de Mallorca hiriburuan topatu genuen naturaren altxorra. /Argazkia: Joseba Carnicero Padilla /Bergara



IZARREI BEGIRA. Uda hasieran Oñatin ataratakoa da. Ni agertzen naiz zerura begira. /Argazkia: Xabier Urteaga /Oñati



LA HABANA. Kuban (Habana) ateratako argazkia orain dela pare bat urte. /Argazkia: Markel Madinabeitia /Arrasate


IX. GOIENA LEHIAKETA

an: blogak.goiena.net/argazkiak

udakoargazkiak  udakoargazkiak



ESKOZIAKOBEBIA. Eskozian ateratako argazkia. Bertako Lur Garaietako behia, *behi iletsua* izenarekin ezaguna. /Argazkia: Jone Agirrezabal Iturbe/Bergara



VALPARAISO. Valparaisoko (Txile) kale ezku-tuetako bat 2013ko abuztuaren 17an. /Argazkia: Itsaso Diego/Arrasate



SUGE-SORGINTZAILEAK. Jaipur ondoan dagoen Amber fortean, turistak erakartzeko holakoak egiten dituzte. Gerturatzeko gogorik ez du ematen... /Argazkia: Sergio Moreno Juan/Antzuola



UMEAK JOLASEAN. Argazki hori aurtengo udan Kadizko hondartza luze batean ateratakoa da. Arratsaldeko eguzkipean umeak jolasean. /Argazkia: Garikoitz Dominguez/Arrasate



MUSIKARI. Argazki hori Berlingo Harresian aterata dago 2013ko udan, abuztuaren. Bizimodua atera nahian, musikari hori egunero ehunka bisitariren aurrean jartzen da (izan ere, ez zen erraza izan argazkian hura bakarrik agertzea). Haren musikak eta koloreek zeharo kontrastatzen dute Harresia-ren benetako izaerarekin. /Argazkia: Jone Arregi Etxaniz/Bergara



LURRA LANTZEN. Oro auzoa, Aretxabaleta, 2013ko uztaila. Guhaziakgara elkarteko langabeek sorturiko proiektu berrian dihardugu lanean. Baserritar jator batek utzitako lurra landatu eta baserriko hainbat fruitu jasotzen gabiltza jada. /Argazkia: Luzma Rojas/Aretxabaleta



BISTA EDERRA. 2013ko abuztuaren, Arriondasen, Asturiasen, ateratako argazkia. Mirador del Fitutik ateratako argazkia. Atzeko planoan Europako Mendiak ikusten dira. /Argazkia: Miren Zubizarreta/Oñati



TXININOEN BASOA. Ubud (Bali), Indonesia. Gurekin jolas egin nahi zuen tximino txiki bat agertzen da argazkian. /Argazkia: Juan Aranburu Agirre/Arrasate



UZTA. Helsinkin hango azoka baten 2013ko abuztuaren 22an ateratako argazkia. Abuztuko hango uzta. Barazkiak, frutak, perretxiakoak... Kontuz! Ez dituzte kiloka saltzen, litroka baiziki. /Argazkia: Mari Karmen Atorrasagasti



Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinak bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekoan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

* Oinari guztiak: ttiki.com/53342

Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** bi pertsonendako SPA zirkuia eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaiek-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** Google Android sistemadun 7 hurbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emaleentzat saria:** unduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com



Txori baten irudia, bilaketa koadroaren gainean 'Hummingbird' delakoaren adierazle moduan. | GOOGLE

Bilaketa 'adimendunagoak' egingo ditu Googlek

Ahotsean eta galdera mota naturaletan sakondu gura dute horrela

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Algoritmo berri batekin ordezkatu du lehengoa, 2010ekoa, Googlek. Erabateko ordezkapena egin dute, orain dela hilabete hasitako eta joandako eguaztenean jakinarazi dutena. Munduko bilaketen %90, orain, algoritmo horren bitartez prozesatzen dira. *Komplexu* deritzen bilaketen emaitzak hobetu gura dituzte, eta horretatik izan da aldaketa. Bilaketaren zelanbait azaltzarren-formula matematikoa 2010ean eguneratu zuen azken aldiz Googlek, aldaketa nabariek. Orain egin dutenak, *Hummingbird* goitizenez bataiatua, fasea berria irekiko du bilaketen handikiarentzat.

Azalpenak urri, oraingoz

Iragarpen soil batekin eman dute berria Googlek, eta, oraingoz,

argibide gehiago eskaintzeko prestutasunik ez dute agertu, Interneteko giltzen egungo jabe bezala, urrea balio baitu sekreturik gordeenak. Aldaketaren zergatia, ostera, azaldu dute: erabiltzaileen galdera konplexuei erantzun hobea emango ei die algoritmo berriak. Galdera konplexu horiek lengoia naturalen egiten diren galdera horiek lirake, ez gaur egun bezala, hitz-gakoen konbinazioen bitartez eginiko bilaketa hutsak direnak. Bilatzaile adimendunaren bidean urrats berria da Googlerentzat, gainera, helburua erabiltzaileen bilaketa bera iragarri, erantzun zuzena eman eta baliagarriak izan dakizkiokeen datu erantsiak eskaini ahal izatea baita. Orain arte Google webguneen indexazio sakonean ibili da lanean eta orain,

emaitzen ordenan sakonduko du, errelebantzia irizpide berriekin. Bilatzen den hitz bakoitzaren esangura zehatza barik, testuinguru orokorra hartuko da gehiago aintzat aurrerantzean.

Horrekin lotuta, eta algoritmo berriarekin, ahots bidezko bilaketak garrantzi handia izango du. Uda ezker egin daitezke ahots bidez bilaketak Googlek, eta orain, ingelesez soilik uone honetan, galderak eginez ere egin daitezke bilaketak eta zuzenean aginduak eman. Horrez gain, filtroen bitartez emaitzak berrordenatzeko aukera ere ematen du bilatzaileak, eta, produktuen eta objektu bilaketen kasuan, osagaien taulak ere emango ditu Googlek. Bi produkturen edo gairen arteko konparaketa ere eskaintzen da taula horien bitartez.

Skype osorik euskaratu dute, Windowsentzat, oraingoz

Boluntario talde batek Skype aplikazio osoa euskaratu du, oso-osorik, 6.1 bertsioetik aurrerako guztietan. Lanean segitzen dute, eta oraingoz Windowserako bertsioa soilik eskura badaiteke ere, gainontzeko sistemetarako lanean dihardute itzultzaileek. Kaleratu duten bertsioa Eusko Jaurlaritzako teknikari batek gainbegiratu dago. Sourceforge-n proiektua abiarazi eta lanean ibili da talde bat. Instalazioa egiteko '.lang' fitxategia sourceforge.net/skypeeuskarazkoitzulpena gunean aurki daiteke, doako deskargan. Une honetan Linuxerako bertsioarekin dabilta.

Mugikorretan, dagoeneko aplikazio bidez nabigatzen da gehien Interneten

Mugikor bitartez egiten diren Interneterako konexioen %73 aplikazioen bitartez egiten dira gaur egun. Hala, WhatsApp aplikazioak bereganatzen ditu Estatuan konexioen %70. Deskargen zerrendan lehen hiru postuak Facebooken eta Twitterren mugikorretako aplikazioek osatzen dute. Kontsulta hutsei dagokienez, %61 aplikazio bidez ere egiten da. Aplikazio motekin jarraituz, erabiltzaileekin %35ek ordaintzen dute aplikazio bitartez. Bestalde, kopuru orokorretan, erabiltzaileen %53k publizitadedun doako aplikazioak dituzte gurago, *freemium*-ak %35ek eta ordainpekoak, berriz, %12k. Android da, %78rekin, erabiliena.

Internauta gehienek anonimo izan gurako lukete, etsipenez

Carnegie Mellon Unibertsitatearen ikerketa batek internauten etsipena agerrarazi du. Lagin moduan Pittsburgh hiria hartu dute. Enpresa, gobernu zein senide eta lagunen zelataritza ia %100en ardura da inkestaren arabera. *Zaintza ekosistema* deritzon horren eraginez, erabiltzaileen %86k jada posta elektronikoa enkriptatzeko softwarea eta askotariko neurriak hartzen dituzte. Bostetik batek posta elektronikoa eta datu pertsonaletan sarkin arrotzak izan ditu. Ziber-jazarpena %12k jasan dute eta %11k diote informazio pertsonala ebatsi diotela inoiz.

Gmail aplikazioa iragarkiak ematen hastekoa da aurki

Aplikazioaren kodean txertatutako informazioak laster ezar litekeen balizko sistema azaleratu du

J.B. | ARRASATE

Googlek geroago eta etekin handiagoa atera gura die publizitate baliabideei, eta gailu eramangarrietarako Gmail e-posta aplikazioan iragarkiak txertatzen has liteke aurki Google. Mugikor eta tabletetarako bertsioetan aplikazioaren 4.6 bertsioetik aurrera tartea gordetzen da iragarkien txertetarako. Horixe azalarazi du kodearen azterketa batek, Androiderako bertsioan. Hori horrela, edozein momentutan

abiaraz lezake ezarpen sistema berria. Implementazioaren beselako ezaugarriak atera ahal izan dizkiote kodeari.

Adibidez, erabiltzaileak atsegin ez dituen iragarkiak baztertu ahal izango dituela eta sarrera-ontzira zein publizitate mota sartuko den aukeratu. Azken aukera horretan, ematen duenez, erabiltzailearen esku geratuko litzateke azken aukeraketa; mezurik ez jasotzeko aukera ere badago, konfigurazioaren arabera.

iOS7 beste behin ere eguneratzekotan da Apple

Segurtasun eta errendimendu arazoei aurre egitea da lehentasuna banaketa berriarekin

J.B. | ARRASATE


Zenbait segurtasun eta errendimendu arazo direla eta, iOS7 atera berriaren eguneraketa uste baino lehenago ateratzekotan da Apple. Bereziki, iPhone3 eta iPad4 gailuetan sortu dira akatsak eta eguneraketa berria datozen egunetan zabalduko dute Applekoek: iOS 7.0.3 delakoa, zehazki.

Gainera, ez da sistema eragilearen bertsio berriztaileak

sortutako lehen akats handia. Orain dela aste bi, blokatze-pantailako akatsak eta errendimendu arazoak, besteak beste, konpontzeko eguneraketa banatu zuten.

Segurtasuna kolokan

Oraingoz, segurtasunari dagozkie akatsak dira larrienak eta berandu baino lehen aurre egin beharrekoak. Aste honetan zabalduko ei dute bertsioa.



BIZZIDENT.COM

Haginak garbi, sei segundoan

Blizzident milioika zurdak osatzen duten hagin-garbitzailea da, oinarri moduan norberaren hortzeriaren 3D irudi bat hartzen duena eta 3D inprimagailu batekin inprima daitekeena. Nahikoa da sei segundoan pieza ahoan ibiltzea haginak garbitzeko, guztiz moldatzen baita bakoitzaren hortzeriaren formara.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Informazioan lider?

Ez dut uste. Somoanok TVEren informatiboen ardura hartu zuenetik egoerak ez du hobera egin. Talentu eta ospe handiko profesionalak baztertu, lagunei ardura postuak eman... Egin zitekeen guztia egin ostein, bere mugak gauditutu.

40 urtez Informe Semanal munduan gertatu diren ezbehar eta berri esanguratsuenen testigu izan ostein audientzia kontuak medio, larunbat late night-era aldatu du Somoanok. Erdi tontoak garelakoan gainera bigarren prime time izena eman dio ordutegi berriari. Lotsagarria benetan!

Iragarkirik ez duen kate bati ze axola dio audientziak? Audientziaz gain, zergatik ez dute prestigio eta sinesgarritasun galera ere aipatzen? Kuriosoena zera da, beti bezala, TVE informazio kontuetan liderra omen da. Liderra ordu kopuruan izango da ze ospe eta audientzian... Azken urteetan nazioartean lortutako ospe guztia urte bete galdu du, horretan bai lider, urte askotako lana komun-zulotik behera botatzen. Somoano maitea, egunen batean ulertuko duzu kantitateak kalitaterik gabe ez duela ezertako balio!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 7



'Harmailatik'

Arrasaten hilaren 18an egingo den Tafyd gaueko kroseto antolatzaileekin hitz egingo dugu. | 21:22

12:00 Magazinea
12:45 Kantari
13:15 AsteON
13:45 Artearen ibilbidea
13:55 Ikusten
14:31 Artearen ibilbidea
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 AZK2012
15:53 Zorion Agurrak
16:00 Onein
16:30 Berriak
17:00 Eguraldia
17:03 Zorion Agurrak
17:08 AsteON
17:38 Altxorraren bila
18:15 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak
19:05 Berriak
19:30 Eguraldia
19:33 Kantari
20:03 Zorion Agurrak
20:07 Magazinea
20:52 Berriak
21:17 Eguraldia
21:22 Harmailatik
22:07 Berriak
22:32 Eguraldia
22:35 Magazinea
23:20 Gurean gaur

MARTITZENA, 8



'Magazinea'

Eskoriatzako batzokiak 100 urte bete ditu eta bailarako EAJ-ren historiari buruz jardungo gara. | 20:06

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Kantari
13:50 Onein
14:15 AsteON
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein
16:28 AsteON
16:58 Berriak
17:23 Eguraldia
17:26 Ikusten
18:02 Harmailatik
18:47 Artearen ibilbidea
18:57 Zorion Agurrak
19:02 Berriak
19:27 Eguraldia
19:30 Kantari
20:00 Zorion Agurrak
20:06 Magazinea
20:51 Berriak
21:16 Eguraldia
21:19 AZK2012
21:49 Berriak
22:14 Eguraldia
22:17 Magazinea
23:02 Gurean gaur
00:34 Gurean gaur

EGUAZTENA, 9



Bertso txapelketa

Markina-Xemeinen asteburuan jokaturako Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa ikusgai. | 21:19

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:10 Kantari
13:40 AZK2012
14:10 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:54 Harmailatik
16:39 Zorion Agurrak
16:44 Berriak
17:09 Eguraldia
17:12 Harmailatik
17:52 Onein
18:19 Klaketa
18:49 Zorion Agurrak
18:54 Berriak
19:14 Eguraldia
19:17 Bideo klipak
19:37 Baietz asmatu!
20:07 Magazinea
20:52 Berriak
21:17 Eguraldia
21:19 Bertso Txapelketa Nagusia
22:19 Berriak
23:04 Eguraldia
23:34 Magazinea

EGUENA, 10



'Planik bai?'

Asteburuan Deabgoienean izango diren kultura ekitaldien berri emango digu Mireia Bikuñak. | 18:07

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:15 Kantari
13:45 AZK2012
14:15 Bideo klipak
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 AZK2012
15:43 Zorion Agurrak
15:48 Altxorraren bila
16:25 Ikusten
17:01 Berriak
17:26 Eguraldia
17:29 Onein
18:07 Planik bai?
18:27 AZK2012
18:57 Berriak
19:17 Eguraldia
19:20 Planik bai?
19:40 Kantari
20:07 Magazinea
20:52 Berriak
21:17 Eguraldia
21:20 Planik bai?
21:40 Berriak
22:10 Eguraldia
22:13 Magazinea
22:58 Gurean gaur

EGUBAKOITZA, 11



'AsteOn'

Astean zehar gure bailaran gertatutako albiste esanguratsuenak errepasatuko ditugu saioan. | 21:26

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Kantari
13:30 Bideo klipak
13:55 AZK2012
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak
16:03 Zorion Agurrak
16:09 Planik bai?
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 AZK2012
17:31 Bideo klipak
17:51 Artearen ibilbidea
18:01 Altxorraren bila
18:38 Planik bai?
18:58 Zorion Agurrak
19:03 Berriak
19:33 Eguraldia
19:38 Kantari
20:08 Planik bai?
20:33 Zorion Agurrak
20:38 Berriak
21:03 Eguraldia
21:06 Planik bai?
21:26 AsteON
21:56 Jaiak: Oñatiko jaiak
22:56 Planik bai?
23:16 Berriak
23:41 Eguraldia
23:44 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Literatur solasaldiak
berbagai izango ditugu
gaur, astelehena

Igo autobusera! irratsaioan, elkarrizketaren tartean, Asun Agiriano Arrasateko bibliotekako arduraduna izango dugu literatur solasaldiei buruz hitz egiten. Gaur, astelehena, izango da hori 11:00etan Arrasate Irratian. Solasaldiei buruzko informazioa emango digu Agirianok.

Gazte informazioa jaso
ahal izango duzue,
bihar, martitzena

Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek gazte informazioari buruz hitz egingo digu martitzeneko irratsaioan. Arrasate Irratiko 107.7ko uhinetan izango da hori, *Igo autobusera!* irratsaioan. Bihar, martitzena, 11:00etan elkarrizketaren tartean eskainiko dizuegu. Ez galdu saioa.

'Sutondoan' umeei
zuzendutako
antzerkirako sarrerak

Zapatuan, hilak 12, Amaia Antzokian *Sutondoan* izeneko antzezlan eskainiko dute 17:00etan. Umeei zuzendutako ikuskizuna da *Sutondoan* eta bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu egubakoitzean. Zozketan parte hartze-ko deitu 943 25 05 05 telefono- edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

TELE-ALBISTEAK

Festa giroko
'Magazinea' izango
dugu gaur, astelehena

Oñatiko Herri Egunean eta Errosaixo Bixamon egunean jasotakoak eta Maritxu Kajoi, ikusgai

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Oñatiarrek jaietan jarraitzen dute oraindik eta aurreko asteburuko San Migel jaien ostein, Errosaixo jaiak ospatzen dihardute oraingoan. Beste behin, beraz, Oñatiko jai giroa ekarriko dugu gaurko, asteleheneko, *Magazinea* saiora. Egubakoitzean Arrasaten ospatu zen Maritxu Kajoi eguneko kontuak ere izango ditugu berbagai gaur 20:07ean.

Oñatiko jaiak

Zapatuan Herri Eguna ospatu zuten Oñatin eta kalean zegoen

giroa jasotzen izan ginen. Egur-diko feria, ganadua, azoka, unibertsitatean egoten diren postuak, Foruen Plazako sagardoa, taloak... denetarik jaso genuen zapatuan. Herritarrak baserriar jantzita ikusi genituen eta euren adierazpenak ere jaso genituen; jaietan primeran dabilzala kontatu ziguten.

Eta gaur, Errosaixo Bixamon eguna izanda, herriko koadrilak mozorrotuta irten dira kalera eta aurten nolako karroza eta mozorroak ikusi ahal izan diren erakutsiko dizuegu saioan.



Aurtengo Oñatiko Herri Eguneko argazki bat. | GOIENA

Oñatiko jaien saio
berezia ikusgai,
egubakoitzean
21:56ean

Maritxu Kajoi

Arrasaten, berriz, egubakoitzean izan zuten festarako eguna eta han jasotakoak ere erakutsiko dizkizuegu gaurko *Magazinea* saioan. Jendearen adierazpenak ere entzun ahal izango dituzue.

Oñatiko jaien saio berezia

Oñatiko aurtengo jaiak eman dutenaren gaineko saio berezi eskainiko dizuegu egubakoitzean 21:56ean, Goiena telebistan; San Migelak eta Errosaixuak ikusi ahal izango dituzue, beraz.

ZORION AGURRAK



BERGARA Aritz Unamuno
Urriaren 13an, 13 urte.
Zorionak eta ondo-ondo pasatu, etxekoan partetik!



ANTZUOLA Alazne Ezkurra Alonso
Urriaren 12an, 4 urte.
Zorionak, maitxia!
Ondo-ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat aitatxo eta amatxoren partetik!



BERGARA Nerea Leceta Alberdi
Urriaren 11n, 6 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partetik!



BERGARA Udane eta Ion Unamuno
Udanek urriaren 11n, 2 urte eta lonek urriaren 21ean, 35 urte. Zorionak, bikote. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI Beñat Arregi Unamuno
Urriaren 11n, 2 urte.
Zorionak! Ondo ospatu egun berezi hau. Patxo bat danon partetik.



BERGARA Hodei Maiztegi Uribealzo
Urriaren 10ean, urtebete. Zorionak, txiki. Urte mundiala izan da. Laztanak etxekoan partetik.



ARRASATE Uxue Iturbe Lopez
Urriaren 10ean, 9 urte.
Zorionak, Uxue! Ondo pasatu zeure eguna eta muxu potolo bat etxeko danon eta batez be zure ahizpa Elaiaren partetik.



ARAMAIO Hegoi Azkarate Arriolabengoa
Urriaren 10ean, 5 urte.
Zorionak, Hegoitxi!
Familiakoan eta, bereziki, Oihanen, Lideren eta Garaziren partetik.



ARETXABALETA Gorka Bereziartua Altube
Urriaren 9an, urtebete.
Zorionak, pirata! Behin urtea beteta zure patxo goxoak probatu gura ditugu! Bitartean jaso etxeko guztion laztanak.



OÑATI Aimar Iturricastillo telleria
Urriaren 9an, 7 urte.
Zorionak, Aimar. Ondo pasatu egun berezi hau. Etxekoan partetik.



BERGARA Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Allegatu da azkenean!
Patxo pila-pila-pila bat maite zaitugun guztion partetik, eta oso ondo pasatu merendolan.



OÑATI Gotzon Osinaga
Urriaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, aitona! Ondo pasatu zure eguna. Besarkada eta patxo handi bat Eneritz, Malen, Auritz, Lier, Ane eta Intzaren partetik. Mundiala zara!



ARRASATE Julian Zubizarreta
Urriaren 7an, urtebetetzea. Jaixa borobiltzeko Maritxutako parrandia astelehenera arte luzatu bihekou. Ondo ospatu eguna eta zorionak etxekoan partetik. Maitxe zaitzugu!



OÑATI Unax eta Mikel
Urriaren 7an, 3 urte. Zorionak bixoiri, pottokok! Egun on-ona pasatu zuen urtebetetzian eta holako alai eta maiztagarri jarraitu bixok! Patxo handi bana danon partetik, baina bereziki Teo, Urdin, Amanel eta hainbeste maitte zuein eta maitte dozuen zuen arreba Sararen partetik!



ANTZUOLA Oihan Alberdi Hernandez
Urriaren 6an, 6 urte.
Aupa, Ohian, ausart hori!
Gogor zabilza irakurri eta idazten. Segi horrela, alai eta irrifartsu. Muxu handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA Sara De la Torre Gonzalez
Urriaren 6an, 3 urte.
Zorionak, potxoli! Muxu handi bat etxeko danon partetik.




ARRASATE Ainhoa Busto Muruamendiaraz
Urriaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, maitia, eta patxo handi bat etxeko guztien eta, batez ere, Aritzen, Joneren eta Xabiren partetik.



ARETXABALETA Julen Garcia Sanchez
Urriaren 5ean, 4 urte.
Zorionak, txapeldun!
Horregatik denok batera ospatuko dugu. Muxu potolo bat familiaren eta lagunaren partetik. Laztana, asko maite zaitugu.



ANTZUOLA Garazi Kortabarria Otaegi
Urriaren 5ean, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure eguna, aitatxo, amatxo eta Laieneren partetik.



ARRASATE Ane Mendizabal
Urriaren 4an, 17 urte.
Zorionak, Ane! Ondo ospatu egun berezi hau. Muxu bat danon partetik!



ARRASATE Unai Laskurain Gonzalez
Urriaren 4an, 11 urte.
Zorionak, txapeldun.
Aurten zure urtebetetzea Maritxu egunean. Patxo handi bat etxekoan eta, bereziki Haizearen partetik.



ESKORRIATZA Peio Lizundia Kortazar
Urriaren 4an, 3 urte.
Zorionak, pirata!
Ondo-ondo pasatu zure egunian eta besarkada bat etxeko danon partetik! Aitaxoren partetik, txokolatezko muxu amaigabeak!



ARETXABALETA June Iturbe Etxeandia
Urriaren 4an, 2 urte.
Zorionak etxeko mari matrakari eta patxo pila bat danon partetik.



OÑATI Oier Ezkibel Bastida
Urriaren 4an, 2 urte.
Zorionak, potxolo!
Etxeko danen eta, bereziki, aita, ama eta Izarren partetik zorionak eta patxo handi bat!



OÑATI Alluitz Markuleta
Urriaren 4an, 4 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna!
Etxekoan, eta bereziki, aitatxo Iñigo eta ama Jaioneren partetik, muxu handi bat.



BERGARA Jennifer Caballero Garcia
Urriaren 4an, 12 urte.
Zorionak, neska handi, familiaren eta baita Liraren partetik ere!



OÑATI Libe Idigoras Garcia
Urriaren 3an, urtebete.
Zorionak, maiztia!
Primeran pasatu zure lehen urtebetetze egunian. Merendolia mundiala izango da! Mila kilo patxo aitatxoren eta amatxoren partetik!



OÑATI Sara Arenaza Barriola
Urriaren 3an, urtebete.
Gure etxeko poppolintxuak urtebete eitten dauenez, zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA Leire eta Ibai Moncayola Garcia
Urriaren 3an, 2 urte. Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen egunean. Patxo handi asko familia guztiaren eta, bereziki, Ikerren, amatxoren eta aitxoren partetik!



BERGARA Irati Loidi Aizpuru
Urriaren 2an, 12 urte.
Zorionak, politx hori!
Ondo pasatu zure urtebetetzea. Familia guztiaren partetik.



ARRASATE Izaro Garai Ibañez de Opakua
Urriaren 1ean, 2 urte.
Zorionak, printzesa!
Muxu eta besarkada handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Jondiren, Iratiren, Haritzen eta Aimarren partetik.



OÑATI Amaia Landeira
Urriaren 1ean, 26 urte.
Zorionak, Amaia, kuadrilla danaren partetik! Egun bikaina euki eta asteburuan zelebratuko! Besarkada handi bat!



ANTZUOLA Xuban G. Rodriguez
Irailaren 28an, 9 urte.
Zorionak, pelotari, Danelen eta etxekoan partetik. Antzuolatik musu handi bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otorra Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.


HILETA

**Francisco Moracho Garcia**

—Goian bego—

Haren aldeko meza
gaur astelehena izango da, urriak 7, 19:00etan,
Bergarako Pedro Deunaren parrokiak.—
*Beti gure artean*Zuloa Elkarteak
Bergaran, 2013ko urriaren 7an.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA**JAIOTAKOAK****Izadi Etxarte Elorza**Itziar. 3,400 Kilo. Irailaren 24a.
Gurasoak: Ainara eta Antxoka.
Argazkian, Izadi jaiberria gura-
soekin.**Ander Zabalo Del Fresno**Arrasate. 2,950 Kilo. Urriaren
2a. Gurasoak: Izaskun eta Iñigo.
Argazkian, Ander jaioberria
sehaskan.**Aisha Rumbos Barruso**Donostia. 3,150 Kilo. Irailaren
12a. Gurasoak: Arritxu eta Gus-
tavo. Argazkian, Aisha txikia
aitatxo eta amatxorekin.**Alex Axpe Rodrigo**Arrasate. 2,760 Kilo. Irailaren
28a. Gurasoak: Esther eta Manu.
Argazkian, Alex aitarekin eta
aitaita Nataliorekin.**Izei Areitio**Berriz. 2,900 Kilo. Irailaren 29a.
Gurasoak: Iratxe eta Gorka.
Argazkian, Izei jaioberria aitare-
kin.**Imanol Fernandez Gomez**Oñati. 4,240 Kilo. Irailaren 28a.
Gurasoak: M. Nieves eta Kotxan.
Argazkian, Imanol amaren besoet-
tan.**Isabella Demestri Filiberto**Oñati. 3,590 Kilo. Urriaren 3a.
Gurasoak: Julieta eta Hector.
Argazkian, Isabella jaioberria.**Aner Etxaniz Fernandez**Bergara. 3,600 Kilo. Irailaren
28a. Gurasoak: Xabier eta Ixaso.
Argazkian, Aner jaioberria gura-
soekin.**Naiara Rabazo Sanchez**Aretxabaleta. 1,840 Kilo. Iraila-
ren 28a. Gurasoak: Esther eta
Raul. Argazkian, Naiara amaren
besoetan.**Martin Legorburu Igarza**Antzuola. 2,450 Kilo. Irailaren
30a. Gurasoak: Ainhoa eta Xabier.
Argazkian, Martin amona
Begoñaren besoetan.**Labrit Alvarez Arrieta**Bergara. 3,880 Kilo. Urriaren 3a.
Gurasoak: Zerala eta Kiko. Argaz-
kian, Labrit amaren besoetan.**Muhamad Nuriaz**Elgeta. 3 Kilo. Urriaren 1a. Gura-
soak: Zara eta Mudassr. Argazkian,
Muhamad jaioberria sehaskan
bapo lo.**Elene Aranzabal Laskurain**Elgeta. 3,640 Kilo. Urriaren 2a.
Gurasoak: Leire eta Juan Luis.
Argazkian, Elene amarekin.**Sara Cabanillas Zubizarreta**Bergara. 2,700 Kilo. Urriaren 2a.
Gurasoak: Ana eta Imanol. Argaz-
kian, Sara izeba Ainhoarekin.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30**EROSKI**
zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

Urte askotarako!Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:**Internet**Sar zaitzez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra,
baita GOIENA paperean ere.**Posta elektronikoa**Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.**Ordezkaritzak**

Etor zaitzez Goienaren ordezkariaren batera.

AI, ENE!

Hortzak garbi, eskuak ia mugitu barik

Asmakizun horrekin, hortz guztiak garbi-garbi izango dituzu nekatze-ko behar barik. Hori bai, ez ahaztu sudurretik arnasa hartzea!
www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Politika uzten badut zertaz biziko naizen? Irakasle gaixoeek oso gutxi kobratzen dute"

JOSEP DURAN I LLEIDA | KONGRESUKO DIPUTATUA

CIUko idazkari orokorrari ezingo zaio leporatu gauza bat pentsatu eta beste bat egiten duenik: nahia- go du murrizketek gutxien eragin duten esparruan geratu. Gauzak dauden moduan egonda, ez daki- gu hain garbi berba egitea ausar- dia edo zinismo kontua den.
Catalunya Radio

EGURALDIA



Max. 22°

Min. 11°

Hodei batzuekin hasiko dugu eguna. Baina gerora jaso eta giro eguzkitsua geldituko da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-10-07

HAMARREKOA

Iñigo Lamarka Donostiarra eta abokatu, euskal LGBT mugimenduaren bultzatzaileetako bat izan zen; 2004a ezker Arartekoa da, administrazioen aurrean pertsonen eskubideen babeslea | TXOMIN MADINA

"Kanpokoan iritiz, euskal herritarrak tolerantetara gara"

1. Zenbatetan defendatu behar izan duzu Arartekoaren beharra?
 Harro eta kontent nago: Arartekoa errotuta dago euskal gizartean, eta, gure gomendioak derrigorrak ez badira ere, administrazio publikoek betetzen dituzte: iaz, %85tik gora.

2. Arartekoa izateko derrigorrezkoa al da idealismo puntu bat?
 Bai. Legea era ezberdinetan interpreta daiteke eta gure lana da interpretazioa eskubideen ahalik eta aldekoena egitea. Horretan laguntzen dute gizarte justizia eta kohe- sioaren aldeko ideiek; baita ere eskubideen alde egiteko gogoak.

3. Bi urtean %50 igo zaizkizue kekak. Kriiarekin lan gehiago duten bakarrenetakoak izango zarete!
 Lanbide eta gizarte langileek ere bai, zoritxarrez. Kriiak familia eta pertsona asko kolpatu ditu, asko geratu dira gizarte bazter- keria arriskuan; baina klase ertaina ere kaltetu du.

4. Kriiarekin, eskubideak ez dira hain eskubide?
 Oso kezagarria da: gizarte esku- bideen babes sistema kolokan dago eta gizarte eskubideak giza eskubideak dira, bete beharrekoak. Euskal administrazioak mantentzen saiatzen dabilta, baina egon dira murrizketak.

5. Kexatzea libre da. Kexei erantzuna ematea...
 Gu derrigorortuta gaude, eta administrazio guztiak ere egon beharko lukete arrazoiekin erantzutera.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Giza eskubideak betearazi"

"Helburu nagusia izango litzateke bai Euskal Herrian eta baita munduan ere giza eskubideak betearaztea eta azpihelburu gisa, bazterkeria oro eta emakumeen kontrako indarkeria oro ezabatzea eskatuko nuke. Zerrenda luzea izango litzateke, baina hortik hasiko nintzateke".

6. Gauzak aldatu ahal izanaren gozoa edo ezin izanaren garratza, zein zapore izan duzu gehiago?
 Zaporea gazi-geza da, bai, baina askoz gehiago izan dira lorpenak porrotak baino. Baina ez dut Arartekoa asebeteta utziko, eragin- kortasuna ez delako %100 izan.

7. Euskal jendartea uste edo esaten dugun bezain irekia al da?
 Esango nuke baietz. Iritzi baliagarriena da kanpokoek emandakoa, eta horien arabera fama hori dugu, tolerante fama. Homofobia, xenofobia eta sexismoa badaude; baina beste gizarte batzuekin alderatuta, nahiko ahul.

8. "Gay nauzu". Oraindik ere esatea kostatzen den esaldia?
 Euskal gizartean zorionez ez; jaso ditudan testigantzen arabera, izugarri aurreratu dugu nire nerabe- zarotik edo liburua idatzi nuenetik hona. Baina oraindik ere bada zer hobetu, batez ere eskoletan.

9. Zure lehen liburuaren izena ere bada Gay nauzu. Hor bukatu zen literaturaren eta zure artekoa?
 Ez. Datorren urtearen urrian edo azaroan iritzi dut Arartekoa, eta pena ematen dit; baina egia da beste ezer egiteko astirik ez dudala, eta uztean, besteak beste, lehentasuna idaztea izango da.

10. Dena ez da lana eta militantzia; deskonektatzeko, zer?
 Ordu asko eserita nagoenez, astean zehar ariketa egiten dut; baita irakurri eta paseatu ere.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Hirueletasunaz

Azken asteotan Balearretako eskola-giroa bere onetik irtenda dabil hango PPko gobernuak ikasturte hasieran hartu duen erabaki batengatik.

Labur gaiztoan: Balearretako eskoletan hizkuntzak ez, beste irakasmateria guztiak katalanez, espainolez eta ingelesez emango dira, herenez heren, Haur eta Lehen Hezkuntzan hasita. Libre geratzen den %10az ikastegi bakoitzak erabaki dezake. Ondorioz, bat-batean, matematikak adibidez, ingelesez ere eman beharrean aurkitzen dira eskolak.

Auziak auzi, irletako eskola-jendeak dio: 1. Katalana nagusi delarik, orain arteko sistemak gizartearen onarpena du. 2. Ez gaude ingelesa (edo frantsesa) sisteman sartzaren aurka; horiek eskola-hizkuntza arrunt bihurtzeko denbora eskatzen dugu, bat-batean abian jartzea ezinezkoa baitugu. Horiek horrela, zergatik ez exigitu Balearretako gobernuari, —eskolari bikaintasun-lezio bat emateko, jakina—, Govern beraren astero-ko bilerak, gaur bertan hasita, lehena katalanez, hurrengoa espainolez eta hirugarrena ingeles hutsez egin ditzala?

Bai trebeak PPko artaburuak ondo eratu den oro zapuzten!

ARETXABALETA

ARRASATE

ARETXABALETA

GRUPO **RKUZ** 1950-2013

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ARETXABALETA **FAGOR**

banatzaile ofiziala

expert

banatzaile ofiziala